NUP NAFARROAKO UNIBERTSITATE PUBLIKOA

# Derrigorrezko bigarren hezkuntzan eskolatutako immigranteen integrazioa Nafarroako gizartean

Luís Sarriés Sanz. Soziologiako katedraduna
Esther Casares García. Soziologiako irakaslea

2010

SOZIOLOGIA SAILA
ARROSADIKO CAMPUSA, z/g 31006 IRUÑA

## AURKIBIDEA.


Sarrera 4

1. Azterlanaren justifikazioa 5
2. Azterlanaren xedeak 7
3. Azterlanerako metodologia 8

Lehen zatia Azterlan kuantitatiboa 10

1. Metodologia 11
2. Azterketa 13

Bigarren zatia. Azterlan kualitatiboa 83

1. Ikastetxeen ikuspegia 84
2. Antolamenduen eta erakundeen ikuspegia 10
3. Immigranteen elkarteen ikuspegia 111
4. Immigranteen integrazioa udalen ikuspegitik 116
5. Immigranteen integrazioa parrokien ikuspegitik 123

Hirugarren zatia. Nafarroako gazteriari buruzko azterlanak 125

Laugarren zatia. Kontrasteko ikastetxeak 134

Bosgarren zatia. Azken ondorioak 146

Bosgarren zatia. Proposamen orokorrak 155

Eranskinak 160

# DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZAN ESKOLATUTAKO IMMIGRANTEAK NAFARROAKO GIZARTEAN INTEGRATZEA

Luís Sarriés Sanz. Soziologiako katedraduna
Esther Casares García. Soziologiako irakaslea

upna
Universidad Pública de Navarra
Nafarroako Unibertsitate Publikoa

Iruña, 2010eko ekainaren 4a

# SARRERA

# DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZAN ESKOLATUTAKO IMMIGRANTEAK NAFARROAKO GIZARTEAN INTEGRATZEA

**DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZAN ESKOLATUTAKO IMMIGRANTEAK NAFARROAKO GIZARTEAN INTEGRATZEA**

## 1. AZTERLANAREN JUSTIFIKAZIOA

Gurea bezalako herrialdeetan, esate baterako Frantzian, gauza jakina da gazte immigrante asko, beren gurasoekin immigratu duten edo xedeko herrialdean jaiotako lehenengo belaunaldikoak diren alde batera utzita, ez direla haiei abegi egiten dien gizartean integratzen eta jokabide arazo larriak izaten dituztela, banakakoak zein kolektiboak, bereziki nerabezarotik aurrera.

Gazteak ez integratzea (ez gizarteratzea) zenbait aldagai batera biltzen dituen prozesu baten emaitza da:

- Gazte immigrante asko herrialde hartzaileko gazteek haien adin berarekin batez beste daukaten hezkuntza-maila baino maila baxuagoarekin sartu dira eskola-sisteman.
- Askok arazoak izan dituzte hizkuntzarekin.
- Beste batzuek ikusi dute gizarte hartzailearen balioak, sentimenduak eta sinesmenak ez datozela bat familian jasotako sozializazio bidearekin.
- Irakaskuntza metodoak eta irakasleekiko harremanak jatorrizko herrialdetakoez bestelakoak dira.
- Nabarmena da beren larruaren kolorearengatik, ezaugarri fisikoengatik eta hitz egiteko moduarengatik gazte desberdinak direla.

Ikastetxeetan:

-Askotan, errefusa gutxi-asko esplizitua edo ikaskide immigranteekiko bereizte argi bat egon da.

- Ikastetxeetako hezkuntza-proiektuetan ez dira beti arlo horretarako proposaturiko helburuak lortu.

Laneko hipotesiak:

- Immigranteek beren burua ikasle desberdintzat, eta are errefusatutako ikasletzat ere, hartu dute.
- Beren talde etnikoetan bilatu behar izan dute babesa, haietan berdintasun baldintzetan egin baitiete abegi.

“Baztertu” sorren egoera horrek, agian, haiek hartzen dituen gizartearen aurkako errefusa eta eraso prozesuak agertzea ekarri du. Gizartearen aurkako erasoek adierazpide ugari izan ditzakete:

- Beste talde batzuetako ikaskideen aurkako erasoak.
- Ikastetxeetako diziplina ez betetzea.
- Ikastetxeetan egokitzeko arazoak.
- Banda txikiak sortzea, batzuetan, gizartean indarkeriaz sartzeko.
- Jabetzaren aurkako delituak.

Horrenbestez, etorkizunean bizikidetasun arazo larriak sor ditzaketen ghetto txikiak sor daitezen saihesteko, jakin beharra dago gazte immigranteak baztertu eta errefusatzeko zein mailatako prozesuak dauden, eta arazoa immigrante horien jatorriaren arabera bereizi beharko da.

## 2. AZTERLANAREN XEDEAK

1. Immigrante helduek ikastetxeetan eta gizartean integratzeko dauzkaten zailtasun “subjektiboak” ezagutzea. Zailtasun objektiboak era askotara adieraz daitezke; esate baterako, familian nagusitzen diren balioak, sexua, immigrantearen jatorria, hizkuntza, larruaren kolorea, ezagupenen maila.
2. Integrazioaren arloko desberdintasunak egiaztatzea immigrantearen sexuaren arabera.
3. Gazte nerabe immigranteak integratzen direneko sare sozialak ezagutzea, haien etnia, naziotasuna, hizkuntza eta erlijioa kontuan hartuta.
4. Isolamendurako lagungarri gertatzen diren eremu geografikorik baden ala ez den ezagutzea (bizi diren auzoak)
5. Ikastetxeek eta gizarteak immigranteen integrazioa bultzatzeko ematen dituzten erantzunak ezagutzea.
6. Integraziorako oztopo objektiboak identifikatzea, bai eskolaren esparruan, bai gizartean: immigranteak errefusatzea, adiskideen sareetan integratzeko zailtasunak, jatorrizko familiez bestelako familiak aurkitzea.
7. Bazterketaren adierazle batzuk identifikatzea: jolas-orduetan norekin egoten diren, eskolako lanak norekin egiten dituzten, aisialdiko zein tokitara joaten diren, aisialdian zer egiten duten.
8. Sozialki justifikatzen diren balizko jarrera xenofoboak identifikatzea.

## 3. IKERLANAREN METODOLOGIA

Hain azterlan konplexua egiteko, ikuspegi desberdinetatik ekin behar zitzaion:

### 3.1. *Nerabeen ikuspegia.*

Haiek dira integrazio prozesu sozialaren protagonistak eta prozesu hori esperientzia positibo nahiz negatibo baten gisara bizi dutenak. Horrenbestez, azterlanak immigranteak berak hartu ditu kontuan, jakiteko gure artean izaten ari diren esperientzia nola bizi duten eta zein mailatan sentitzen diren bertakoek onartuta nahiz errefusatuta. Bigarrenik, nerabe espainiarrek immigranteekiko erakusten dituzten jarrerak aztertu ditugu.

Laginaren hautaketa, haren ezaugarriak eta banaketa geografikorako hautaturiko irizpideak kasuko kapituluan aztertuko dira.

Azterlanak arazoaren beste dimentsio bat ere landu nahi izan du. Immigranteak onartzen diren ala errefusatzen diren nabarmenago gertatzen da immigranteak bertakoekin batera egoten diren ikastetxeetan. Gerta daiteke, alabaina, immigranteak ez dauden ikastetxeetan kutsu xenofoboko jarrerak elikatzea. Hori dela eta, ikastetxe horiei buruz atal berezi bat gehitu dugu.

Azkenik, adierazi beharra dago eraikitako lagina *selektiboa* dela; hau da: immigranteak % 15 baino gehiago diren ikastetxe publiko eta itundu guztiak hautatu dira, haietan azterlaneko hipotesietan planteatutako arazoak hobekien aztertuko ditugulakoan. Azterlanaren laugarren zatian 5 ikastetxe hautatu dira (hiru itundu eta bi publiko), non immigranteen presentzia ez baita nabarmena. “Kontrasteko” ikastetxeak izanen dira, non ikusiko baitugu ikasleek immigranteekiko dauzkaten jarrerak desberdinak diren ikastetxeetan haiekin harremanik ez dutenean.

### 3.2. *Ikastetxeen ikuspegia.*

Ikastetxeak, berez, hezitzaileak eta integratzaileak dira. Azterlanean, aztertu da ikastetxeek nola planteatzen duten immigranteen integrazioa, eta zein toki betetzen duten immigranteek hezkuntza proiektuetan. Aldi berean, ikastetxeak informazio iturri egoki bat dira immigranteen jarrerak ezagutzeko eta gizarteratze eta integrazio prozesuetan nolako laguntza eskaintzen duten atzemateko.

Erabilitako *metodologia* banakako elkarrizketena izan da.

3.3. *Erakundeen eta antolamenduen ikuspegia.*

Ugari dira immigrazioarekin zuzenean nahiz zeharka lotutako esparruetan lan egiten duten gizarte eragileak. Udalek eta mankomunitateek gizarte langileen taldeak izaten dituzte, non immigrazioaren alorreko adituak eta gizarte hezitzaileak baitaude, immigranteak ere inplikatuta dauden gaiak zuzenean lantzen dituztenak.

*Metodologia:* Banakako nahiz taldekako elkarrizketak.

Halaber, beste antolamendu batzuk ere badaude nerabe immigranteekin lan egiten dutenak: SEI, AGORA eta, nagusiki, *parrokiak.*

*Metodologia:* banakako elkarrizketa ardaztuak. Parrokien kasuan, galdetegia posta elektronikoz bidali zitzaien.

3.4. *Gazteriari buruzko azterlanak*

Azken urte hauetan, azterlan ugari egin dira Nafarroako gazteriari buruz. Horietako batzuk orokorrak dira eta Nafarroa osoari buruzkoak; beste batzuk, berriz, udal bati buruzkoak dira (Tutera eta Lizarra).

Ikerlarien taldeak azterlan horiek analizatu eta ikerketarekin lotuta emaitza garrantzitsuenak bildu ditu.

3.5. *Kontrasteko azterlana*

Analisi kualitatiboaren ardatza izan da hezkuntza esparru beretan elkarrekin bizi diren ikasle nafar eta atzerritarren jarrerak ezagutzea. Analizatu nahi izan dugu ea immigranterik ez dagoen ikastetxeetako ikasleak antzeko jarrerekin sozializatzen diren. Hau da, atzerritarren onarpena aldatzen ote da ikasleak soilik bertako ikasleak joaten direneko ikastetxean ikasten badu? Immigranteen aurreko balizko aurreiritziak simetrikoak al dira?

Aplikatu dugun *metodologia* azterlan kuantitatiboko metodologia bera da.

# LEHENENGO ZATIA AZTERLAN

# KUANTITATIBOA

# DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZAN ESKOLATUTAKO IMMIGRANTEAK NAFARROAKO GIZARTEAN INTEGRATZEA

## 1. *Metodologia*

### 1.1. *Hautaturiko lagina.*

Azterlanaren izenburuan adierazi bezala, azterlan kuantitatiboak 14 eta 17 urte arteko ikasleak hartu ditu ardatz. 14 eta 16 urte arteko ikasleak DBHn daude, eta gainerakoak, berriz, batxilergoan.

Hezkuntza Zuzendaritza Nagusiak ikastetxe bakoitzeko ikasle immigranteen ehunekoaren beri eman zion ikerketa-taldeari. Emandako zerrendaren arabera, ikasle immigranteen dentsitate handiena zuten ikastetxeak hautatu ziren, betiere Nafarroako herrietan banaketa proportzionala izan zedin begiratuz.

### 1.2. *Elkarrizketak egin direneko ikastetxeen lagina eta banaketa geografikoa*

16 ikastetxeko lagina hautatu dugu, Nafarroako lurraldean modu proportzionalean banatuak. Aldi berean, kontuan hartu da hautatutako ikastetxeak adierazgarriak izatea ikasle immigranteen ehunekoari dagokionez.

Horren ondoriozko lagin erreala hauxe izan da:

17 ikastetxe hautatu dira: 6 itunduak eta gainerakoak publikoak.

698 ikasle inkestatu dira; horietatik 176 (% 25,2) atzerritarrak dira.

| Udalerria | Ikastet | Ikastet xe | Ikasle etorkinak, % | Inkestatutak o ikasleak |
|---|---|---|---|---|
| Iruña | La Compasión | Itundua | 20,35 | 61 |
| Iruña | Calasanz | Itundua | 17,70 | 26 |
| Iruña | Plaza de la Cruz | Publikoa | 25,89 | 49 |
| Iruña | Padre Moret | Publikoa | 29,45 | 23 |
| Iruña | Julio Caro Baroja | Publikoa | 39,28 | 43 |
| Iruña | Santa Catalina | Itundua | 23,11 | 29 |
| Azkoien | Ribera del Arga BHIa | Publikoa | 18,51 | 40 |
| San Adrián | Ega BHI | Publikoa | 11,70 | 23 |
| Cintruénigo | La Paz BHIa | Publikoa | 35,70 | 35 |
| Tafalla | Santxo III BHIa | Publikoa | 16,59 | 40 |
| Lizarra | Tierra Estella BHIa | Publikoa | 23,90 | 45 |
| Lizarra | Ntra. Sra. Del Puy de Estella | Itundua | 19,00 | 40 |
| Tutera | Benjamín de Tudela BHIa | Publikoa | 15,62 | 49 |
| Tutera | CE Anunciata | Itundua | 24,79 | 42 |
| Tutera | Valle del Ebro BHIa | Publikoa | 18,60 | 47 |
| Castejón | Dos de Mayo HLHIP | Publikoa | 46,90 | 11 |
| Berriozar | Berriozar DBHIa | Publikoa | 42,02 | 36 |
| | | | *Guztira* | **639** |

Laburbilduz, honakoak izan dira inkestatutako ikastetxe eta ikasleen kopuruak:

| | Publikoak | Itunduak |
|---|---|---|
| 17 ikastetxe | 12 (% 70,58) | 5 (% 29,41) |
| 639 ikasle | 441 (% 69,0) | 198 (% 30,0) |

## 1.3. *Inkestak zein herritan egin diren*

| | Maiztasuna |
|---|---|
| Cintruénigo | 35 |
| Lizarra | 85 |
| Azkoien | 40 |
| San Adrián | 23 |
| Tafalla | 40 |
| Castejón | 11 |
| Tutera | 138 |
| Iruña | 231 |
| Berriozar | 36 |
| **Guztira** | **639** |



2. *Aldagai independenteen analisia*

P 1. *Immigranteen laginaren banaketa sexuarena arabera*

Desberdintasun batzuk atzematen dira sexuari dagokionez, batez ere hispanoamerikarren kasuan, non nabarmenagoa baita gizonezkoen eta emakumezkoen arteko aldea. 79 emakumezko eta 64 gizonezko. Magrebtarren kasuan, ikasleen kopurua txikia bada ere, gizonezkoen eta emakumezkoen arteko aldea ere garrantzitsua da.

| | | Jatorria | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| | | Espainia | Hispanoamerikarra | Ekialdeko Europa | Magrebtarrak |
| | Gizonezkoa | 253 (% 55.8) | 64 (% 44.7) | 13 (% 44.8) | 9 (% 64.2) |
| | Emakumezkoa | 200 (% 44.1) | 79 (% 55.2) | 16 (% 55.1) | 5 (% 35.7) |
| Guztira | | 453 | 143 | 29 | 14 |




Elkarrizketatuen sexuari eta jatorriari erreparatuz gero, honako datuak lortzen ditugu:




P 1.1. *Laginaren banaketa sexuaren arabera*

Laginak sexuaren arabera duen banaketak erakusten du inkestatutako immigrante gehienak hispanoamerikarrak direla, eta horietatik % 44,7 gizonezkoak direla eta % 55,2, berriz, emakumezkoak.

Europa Ekialdeko jatorrian dutenen kasuan, % 44,8 gizonezkoak dira eta % 55,2 emakumezkoak. Guztiz kontrakoa gertatzen da magrebtarren kasuan; izan ere, % 64,3 gizonezkoak dira eta % 35,7, berriz, emakumezkoak.



P 2. *Adinen eta nazionalitateen araberako banaketa*

13 eta 16 urte arteko ikasleak 525 dira (% 82.1). 17 urte dituztenak % 12,5 dira. Gainerakoek, % 5,4, 18 eta 19 urte bitarte dauzkate.

Deigarri egiten da 18 eta 19 urte bitarteko ikasle batzuk agertzea. Ikasturteren bat errepikatu duten ikasleak edo curriculum-egokitzapena dela-eta edo gaztelaniaz ez jakiteagatik sorturiko arazoengatik atzeraturik doazenak.




Aintzat hartu diren 186 ikasle atzerritarretatik 135 (% 72,59) 13 eta 16 urte artekoak dira eta 51, berriz (% 27,41) 17 eta 19 urte artekoak.

| | | | Jatorria | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | Hispanoamerikarrak | Europa Ekialdekoak | Magrebtarrak | Guztira |
| Adina | 13 | Kontaketa | 6 | 0 | 0 | 6 |
| | | Adinaren barrenean, % | % 20,0 | % 0 | % 0 | |
| | | Jatorriaren barrenean, % | % 4,2 | % 0 | % 0 | |
| | 14 | Kontaketa | 22 | 2 | 2 | 26 |
| | | Adinaren barrenean, % | % 16,5 | % 1,5 | % 1,5 | |
| | | Jatorriaren barrenean, % | % 15,4 | % 6,9 | % 14,3 | |
| | 15 | Kontaketa | 40 | 5 | 7 | 52 |
| | | Adinaren barrenean, % | % 20,3 | % 2,5 | % 3,6 | |
| | | Jatorriaren barrenean, % | % 28,0 | % 17,2 | % 50,0 | |
| | 16 | Kontaketa | 40 | 11 | 0 | 51 |
| | | Adinaren barrenean, % | % 24,2 | % 6,7 | % 0 | |
| | | Jatorriaren barrenean, % | % 28 | % 37,9 | % 0 | |
| | 17 | Kontaketa | 23 | 5 | 2 | 30 |
| | | Adinaren barrenean, % | % 29,1 | % 6,3 | % 2,5 | |
| | | Jatorriaren barrenean, % | % 16,1 | % 17,2 | % 14,3 | |
| | 18 | Kontaketa | 10 | 5 | 2 | 17 |
| | | Adinaren barrenean, % | % 34,5 | % 17,2 | % 6,9 | |
| | | Jatorriaren barrenean, % | % 7,0 | % 17,2 | % 14,3 | |
| | 19 | Kontaketa | 2 | 1 | 1 | 4 |
| | | Adinaren barrenean, % | % 33,3 | % 16,7 | % 16,7 | |
| | | Jatorriaren barrenean, % | % 1,4 | % 3,4 | % 7,1 | |




P 2.1 *Ikasleek zenbat urte dituzten eta zer ikasmailatan dauden*

Ondoko taula interesgarria da azaltzeko azterlan kualitatiboan ikasketaburu batzuek egindako oharrak azaltzeko; izan ere, ikasketaburu horiek adierazten dute immigranteak adinez dagokiena baino beheragoko ikasmaila batean jartze hutsa, dela hezkuntza-maila baxuarengatik dela hizkuntza ez jakiteagatik, arazoak sor diezazkiokeela ikasleari, bere adinekoak ez diren ikaskideekin egon behar duelako.

Lortutako datuek erakusten dute arazoak nafarrengan eta immigranteengan duela eragina, baina immigranteen kasuan nabarmenagoa dela. Adibidez, DBHko 3. maila ikasten duten 14 urteko ikasleen kasuan, 97 nafar daude 14 urte izan eta DBHko 1., 2., 3. eta 4. mailan daudenak, eta nafar guztien % 21,4 egiten dute (107). 16 urteko hispanoamerikarrak 50 dira, eta horietatik % 52,0 DBHko 4. mailan daude eta % 40, berriz, DBHko 2. eta 3. mailan; hau da, adinez dagokiena baino ikasmaila bat edo bi ikasmaila beherago daude. Batxilergoko lehenengo mailan ikasten duten 16 urteko ikasleen kasuan, espainiarrek % 42,1 egiten dute. Adin bereko hispanoamerikarrak, berriz, % 8 dira, eta haien % 22,0 DBHko 2. mailan ari dira.

| Adina | Ikasmaila | Espainia | Hispanoamerikarrak | Europa Ekialdea | Magrebtarrak |
|---|---|---|---|---|---|
| 13 urte | DBHko 1. | 5 | - | - | - |
| | DBHko 2. | 18 | 6 | - | - |
| | DBHko 3. | 1 | - | - | - |
| 14 urte | DBHko 1. | 3 | 2 | - | 1 |
| | DBHko 2. | 4 | 5 | - | 1 |
| | DBHko 3. | 97 | 15 | 2 | - |
| | DBHko 4. | 3 | - | - | - |
| 15 urte | DBHko 2. | 3 | 2 | - | 6 |
| | DBHko 3. | 52 | 25 | 4 | 1 |
| | DBHko 4. | 90 | 13 | 1 | - |
| 16 urte | DBHko 2. | - | 11 | - | |
| | DBHko 3. | 17 | 9 | 3 | - |
| | DBHko 4. | 48 | 26 | 3 | - |
| | BATX. 1. | 48 | 4 | 5 | - |
| | BATX. 2. | 1 | - | - | - |
| 17 urte | DBHko 2. | - | 2 | 1 | - |
| | DBHko 3. | 1 | 3 | - | - |
| | DBHko 4. | 13 | 9 | 3 | 2 |
| | BATX. 1. | 20 | 8 | - | - |
| | BATX. 2. | 15 | 1 | 1 | - |
| 18 urte | DBHko 2. | - | 1 | 1 | - |
| | DBHko 4. | 1 | 4 | - | - |
| | BATX. 1. | 2 | 4 | 2 | - |
| | BATX. 2. | 9 | 1 | 2 | - |
| 19 urte | BATX. 1. | - | - | 1 | 1 |

P 3.1. *Jatorria*

Hurrengo taulan ikus daiteken bezala, azterlanean 20 herrialdetako ikasle atzerritarrak ageri dira. Kolektibo batzuek lagin bezala duten balio deusezarengatik eta batzuetan “immigranteak” bainoago “atzerritarrak” izateagatik, ez dira azterlanean kontuan izan.

Esanahi handiagoko balioak lortzeko, galdera askoren erantzunak honako kolektiboen arabera bildu dira: espainiarrak/nafarrak; hispanoamerikarrak; Europa Ekialdea; magrebtarrak eta Saharaz hegoaldekoak.

**Non jaio**

| | Maiztasuna | Ehunekoa |
|---|---|---|
| Espainia | 453 | 70,9 |
| Ekuador | 86 | 13,5 |
| Peru | 3 | ,5 |
| Kolonbia | 25 | 3,9 |
| Maroko | 13 | 2,0 |
| Brasil | 4 | ,6 |
| Mexiko. | 1 | ,2 |
| Dominikar Errepublika | 10 | 1,6 |
| Errumania | 5 | ,8 |
| Moldavia | 2 | ,3 |
| Errusia | 2 | ,3 |
| Bulgaria | 14 | 2,2 |
| Txile | 1 | ,2 |
| Bolivia | 6 | ,9 |
| Venezuela | 3 | ,5 |
| Polonia | 5 | ,8 |
| Argentina | 3 | ,5 |
| Aljeria | 1 | ,2 |
| Lituania | 1 | ,2 |
| Kuba | 1 | ,2 |
| Guztira | 639 | 100,0 |

P 3.2. *Espainian bizitzen emandako denbora*

Ikasleen ia erdia (% 43,0) 1 eta 6 urte bitarte daramatza Espainian bizitzen.

| **Urteak** | | |
|---|---|---|
| | Maiztasuna | Ehuneko |
| 04-6 | 35 | 20,2 |
| 07-8 | 52 | 30,1 |
| 09-11 | 43 | 24,9 |
| dic-14 | 3 | 1,7 |
| 15-16 | 1 | 0,6 |
| Guztira | 173 | 100 |

P 3.3. *Inkestatutako ikasleen ikasmailen araberako banaketa*

Elkarrizketatutako ikasleak DBHko 3. mailakoak eta 4. mailakoak dira. Azterlan kualitatiboan adierazi bezala, ikasle immigrante batzuek ikasketak derrigorrezko irakaskuntza amaitu aurretik ere uzten dute.



**Ikasmaila* Jatorria kontingentzia-taula**

| | | Jatorria | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | | Espainia | Hispanoamerika | Europa Ekialdea | Magreb | |
| DBHko 1. maila | Kontaketa | 8 | 2 | 0 | 1 | 11 |
| | Ikasmailaren barrenean, % | % 72,7 | % 18,2 | % 0 | % 9,1 | % 100,0 |
| | Jatorriaren barrenean, % | % 1,8 | % 1,4 | % 0 | % 7,1 | % 1,7 |
| DBHko 2. maila | Kontaketa | 25 | 19 | 2 | 9 | 55 |
| | Ikasmailaren barrenean, % | % 45,5 | % 34,5 | % 3,6 | % 16,4 | % 100,0 |
| | Jatorriaren barrenean, % | % 5,5 | % 13,3 | % 6,9 | % 64,3 | % 8,6 |
| DBHko 3. maila | Kontaketa | 168 | 52 | 9 | 1 | 230 |
| | Ikasmailaren barrenean, % | % 73,0 | % 22,6 | % 3,9 | % ,4 | % 100,0 |
| | Jatorriaren barrenean, % | % 37,1 | % 36,4 | % 31,0 | % 7,1 | % 36,0 |
| DBHko 4. Maila | Kontaketa | 155 | 52 | 7 | 2 | 216 |
| | Ikasmailaren barrenean, % | % 71,8 | % 24,1 | % 3,2 | % ,9 | % 100,0 |
| | Jatorriaren barrenean, % | % 34,2 | % 36,4 | % 24,1 | % 14,3 | % 33,8 |
| Batxilergoko 1. maila | Kontaketa | 72 | 16 | 7 | 0 | 95 |
| | Ikasmailaren barrenean, % | % 75,8 | % 16,8 | % 7,4 | % ,0 | % 100,0 |
| | Jatorriaren barrenean, % | % 15,9 | % 11,2 | % 24,1 | % ,0 | % 14,9 |
| Batxilergoko 2. maila | Kontaketa | 25 | 2 | 4 | 1 | 32 |
| | Ikasmailaren barrenean, % | % 78,1 | % 6,3 | % 12,5 | % 3,1 | % 100,0 |
| | Jatorriaren barrenean, % | % 5,5 | % 1,4 | % 13,8 | % 7,1 | % 5,0 |




P 4. *Gurasoak non jaio diren.* P 4.1.

*Aitaren jatorria.*

Gurasoen ehuneko handiena Ekuadortik heldu da; ondoren, distantzia handiz, Kolonbia, Maroko eta Bulgaria datoz.

P 4.2. *Amaren jatorria.*

Amen kasuan, goraxeago dago Espainiatik kanpoan jaiotakoen kopurua. Horren azalpena da ama batzuk hona etorri eta beren seme-alabekin biltzen direla.

**Zure gurasoak non jaio**

| | Aita | | Ama | |
|---|---|---|---|---|
| | Maiztasuna | Ehunekoa | Maiztasuna | Ehunekoa |
| Espainia | 442 | 69,2 | 434 | 67.9 |
| Ekuador | 85 | 13,3 | 86 | 13,5 |
| Peru | 3 | ,5 | 4 | ,6 |
| Kolonbia | 21 | 3,3 | 24 | 3,8 |
| Maroko | 18 | 2,8 | 16 | 2,5 |
| Bulgaria | 15 | 2,3 | 15 | 2,3 |
| Dominikar Errepublika | 7 | 1,1 | 8 | 1,3 |
| Errumania | 5 | ,8 | 5 | ,8 |
| Bolivia | 5 | ,8 | 6 | 0,9 |
| Brasil | 4 | ,6 | 4 | ,6 |
| Mexiko | 1 | ,2 | 1 | ,2 |
| Moldavia | 2 | ,3 | 2 | ,3 |
| Alemania | 2 | ,3 | 2 | ,3 |
| Venezuela | 3 | ,5 | 2 | ,3 |
| Haiti | 1 | ,2 | 0 | 0 |
| Polonia | 4 | ,6 | 6 | ,9 |
| Argentina | 5 | ,8 | 3 | ,5 |
| Portugal | 5 | ,8 | 4 | ,6 |
| Uruguai | 1 | ,2 | 1 | ,2 |
| Frantzia | 4 | ,6 | 7 | 1,1 |
| Suitza | 1 | ,2 | 0 | 0 |
| Ghana | 1 | ,2 | 1 | ,2 |
| Lituania | 1 | ,2 | 1 | ,2 |
| Amerikako Estatu Batuak | 1 | ,2 | 0 | 0 |
| Kuba | 1 | ,2 | 3 | ,5 |
| Aljeria | 1 | ,2 | 1 | ,2 |
| Txile | 0 | 0 | 1 | ,2 |
| Nikaragua | 0 | 0 | 1 | ,2 |
| Errusia | 0 | 0 | 1 | ,2 |

**Zure gurasoak non jaio**

| | Aita | | Ama | |
|---|---|---|---|---|
| | Maiztasuna | Ehunekoa | Maiztasuna | Ehunekoa |
| Espainia | 442 | 69,2 | 434 | 67.9 |
| Ekuador | 85 | 13,3 | 86 | 13,5 |
| Peru | 3 | ,5 | 4 | ,6 |
| Kolonbia | 21 | 3,3 | 24 | 3,8 |
| Maroko | 18 | 2,8 | 16 | 2,5 |
| Bulgaria | 15 | 2,3 | 15 | 2,3 |
| Dominikar Errepublika | 7 | 1,1 | 8 | 1,3 |
| Errumania | 5 | ,8 | 5 | ,8 |
| Bolivia | 5 | ,8 | 6 | 0,9 |
| Brasil | 4 | ,6 | 4 | ,6 |
| Mexiko | 1 | ,2 | 1 | ,2 |
| Moldavia | 2 | ,3 | 2 | ,3 |
| Alemania | 2 | ,3 | 2 | ,3 |
| Venezuela | 3 | ,5 | 2 | ,3 |
| Haiti | 1 | ,2 | 0 | 0 |
| Polonia | 4 | ,6 | 6 | ,9 |
| Argentina | 5 | ,8 | 3 | ,5 |
| Portugal | 5 | ,8 | 4 | ,6 |
| Uruguai | 1 | ,2 | 1 | ,2 |
| Frantzia | 4 | ,6 | 7 | 1,1 |
| Suitza | 1 | ,2 | 0 | 0 |
| Ghana | 1 | ,2 | 1 | ,2 |
| Lituania | 1 | ,2 | 1 | ,2 |
| EEBB | 1 | ,2 | 0 | 0 |
| Kuba | 1 | ,2 | 3 | ,5 |
| Aljeria | 1 | ,2 | 1 | ,2 |
| Txile | 0 | 0 | 1 | ,2 |
| Nikaragua | 0 | 0 | 1 | ,2 |
| Errusia | 0 | 0 | 1 | ,2 |
| Guztir | 639 | 100,0 | 639 | 100,0 |

P 5. *Inkestatutako ikasleak zenbat anai-arreba dituen*

P 5.1. *Anai-arreben kopurua*

**Anai-arreben kopurua**

| | | Maiztasuna | Ehuneko baliodunа |
|---|---|---|---|
| | 0 | 2 | ,3 |
| | 1 | 76 | 12,0 |
| | 2 | 376 | 59,2 |
| | 3 | 114 | 18,0 |
| | 4 | 35 | 5,5 |
| | 5 | 16 | 2,5 |
| | 6 | 6 | ,9 |
| | 10 | 8 | 1,3 |
| | 7 | 2 | ,3 |
| | Guztira | 635 | 100,0 |
| Galdutakoak | Sistema | 4 | |
| | | 639 | |

Ondorengo taulak erakusten du immigranteen zein kolektibok dauzkan anai-arreba gehien.




| | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 |
|---|---|---|---|---|---|
| Espainia | 13,4 | 67,2 | 14,2 | 2,2 | 1 |
| Hispanoamerika | 5,7 | 32,2 | 33,3 | 20,7 | 6,9 |
| Europa Ekialdea | 20 | 60 | 16 | 0 | 4 |
| Magreb | 0 | 33,3 | 66,7 | 0 | 0 |

Horrenbestez, Espainiako familien kopurua bi anai-arrebatakoa da, gehien bat (% 67,2); hispanoamerikarrek, berriz, % 65,5 anai-arreba dituzte; horri gehitu behar zaio naziotasun bereko inkestatuen % 20,7k (bostetik bat) lau anai-arreba dituela. Ekialdetik heldu diren familiek Espainiakoen atzerako ugalketa-jokabideak dituzte, eta magrebtarretatik % 66,7 dira hiru anai-arreba dituztenak.

P 6 *Anai-arreba zein tokitan dagoen*

Galdera horrek garrantzi txikia dauka azterlanerako.

**Zein toki betetzen duzun**

| | | Maiztasuna | Ehunekoa | Ehuneko balioduna |
|---|---|---|---|---|
| Baliodunak | 1 | 323 | 50,5 | 51,4 |
| | 2 | 236 | 36,9 | 37,6 |
| | 3 | 48 | 7,5 | 7,6 |
| | 4 | 10 | 1,6 | 1,6 |
| | 5 | 7 | 1,1 | 1,1 |
| | 6 | 2 | ,3 | ,3 |
| | 7 | 1 | ,2 | ,2 |
| | 9 | 1 | ,2 | ,2 |
| | Guztira | 628 | 98,3 | 100,0 |
| Galdutakoak | Sistema | 11 | 1,7 | |
| Total | | 639 | 100,0 | |

P 7. *Ikasleen erlijioa.*

Espero izatekoa zen bezala, eta ikusita espainiarrek eta latinoamerikarrek inkestetan zein garrantzi duten, erlijio kristaua da gehien praktikatzen dena(% 76,4). % 17,3k dio ez duela inongo erlijiorik.




Immigrante sinestunen kokapena aztertuko dugu ondoren.

Inkestatuen jatorriari erreparatuz gero, nafarren % 78,9 kristautzat jotzen dute beren burua eta % 19,6k dio ez duela inolako erlijiorik. Hispanoamerikarren kasuan, sinestunen kopuruak bost puntu egiten du gora eta % 85,3ra iristen da. Proportzioan sinestun gehien magrebtarren artean daude (% 92,9).




| | Kristaua | Ortodoxoa | Musulmana | Batere ez | Besterik |
|---|---|---|---|---|---|
| Espainia | 78,9 | 0 | 1,1 | 19,6 | 0,4 |
| Hispanoamerika | 85,3 | 0,7 | 1,4 | 11,9 | 0,7 |
| Europa Ekialdea | 31 | 37,9 | 10,3 | 17,2 | 3,4 |
| Magreb | 0 | 7,1 | 92,2 | 0 | 0 |

P 8. *Inkestatuta norekin bizi den*

Magrebtarrak dira familiaren eredu tradizionalari hobekien egokitzen zaizkionak. Inkestatuen % 85,7 gurasoekin bizi da eta % 14,3, berriz, gurasoekin eta beste familiarteko batzuekin.

Hispanoamerikarren kasuan, maiz gertatzen da familia barreiaturik egotea. Erdia baino gehixeago (% 55,2) gurasoekin bizi da eta % 27,3, berriz, aitarekin edo amarekin. Europa Ekialdeko inkestatuen % 69,0 gurasoekin bizi da. % 13,8, berriz, aitarekin edo amarekin.




| | Nire gurasoekin | Nire aitarekin/amarekin bakarrik | Beste familiarteko batzuekin | Nire gurasoekin eta beste familiarteko batzuekin | aita/amarekin eta beste familiarteko batzuekin |
|---|---|---|---|---|---|
| Espainia | 77,3 | 9,5 | 0,9 | 7,1 | 5,3 |
| Hispanoamerika | 55,2 | 27,3 | 0,7 | 7 | 9,8 |
| Europa Ekialdea | 69 | 13,8 | 0 | 6,9 | 10,3 |
| Magreb | 85,7 | 0 | 0 | 14,3 | 0 |

P 9. *Familiak zein tratu ematen dizula sentitzen duzu.*

Ia ikasle guztiek familiek oso ongi edo ongi tratatzen dituztela diote. Aldagai hori ez da oso garrantzitsua datuak aztertzeko.

**Nola tratatzen zaituzten zeure familian**

| | | Jatorria | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| | | Espainia | Hispanoamerika | Europa Ekialdea | Magreb |
| Oso ongi | Kontaketa | 345 | 88 | 16 | 11 |
| | Jatorriaren barrenean, % | % 76,2 | % 61,5 | % 55,2 | % 78,6 |
| Ongi | Kontaketa | 103 | 51 | 13 | 3 |
| | Jatorriaren barrenean, % | % 22,7 | % 35,7 | % 44,8 | % 21,4 |
| Gaizki | Kontaketa | 5 | 4 | 0 | 0 |
| | Jatorriaren barrenean, % | % 1,1 | % 2,8 | % ,0 | % ,0 |

P 10. *Ikasleak zein naziotasun duen*




P 11. *Non gustatuko litzaizukeen bizitzea*

Hispanoamerikarren % 45,1i baizik ez litzaieke gustatuko helduak direnean Espainian bizitzea. Lautik bati Espainiaz eta bereaz beste herrialde batean gustatzea gustatuko litzaioke.

Ekialdeko ikasleen kasuan, % 58,6ri Espainian bizitzea gustatuko litzaioke eta % 31,0ri, berriz, bere herrialdera itzultzea gustatuko litzaioke. Horrenbestez, inkestatuek identifikazio txikia dute Espainiarekin.




| | Espainian | Nire gurasoen herrialdean | Ipar America | Frantzia | Ingalaterra | Beste lekuetan |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Hispanoamerika | 45,1 | 30,3 | 10,6 | 0,7 | 0,7 | 12,7 |
| Europa Ekialdea | 58,6 | 31 | 0 | 0 | 0 | 10,3 |
| Magreb | 30,8 | 30,8 | 0 | 7,7 | 0 | 30,8 |

P 11.1 *Zenbat urte daraman Espainian bizitzen eta identifikazio nazionala*

Espainiarekiko identifikazioa lotuta dago ikasleak herrialde honetan bizitzen daraman denborarekin. Esate baterako, Espainian urtebete eta 3 urte bitarte bizitzen daramatenen % 87,2k eta 4 eta 6 urte bitarte bizitzen daramatenen % 80,0k "jaio ziren herrialdekoak" direla jotzen dute.

Espainian sei urte baino gehiago bizitzen eman dutenen artean, beren burua jaio ziren herrialdekotzat jotzen dutenak % 65,4 dira eta gora egiten du beren burua espainiartzat jotzen dutenen kopuruak; izan ere, Espainian 7 edo 8 urte bizitzen daramatenen kasuan % 26,9raino igotzen da, eta 9 urte baino gehiago Espainian eman dutenen artean, berriz, ehuneko % 32,6raino iristen da.

*Ikasten diharduten ikastetxeari eta ikaskide eta irakasleekiko harremanei buruz*

P 12. *Ikasleak ikastetxeari buruz duen pertzepzioa*

Ikastetxea esperientzia pertsona anitzen esparru bat da ikasleentzat. Irakasle desberdinekin hezten dira, taldekako lanak egiten dituzte ikasgeletan, aisiarako tokietan elkarrekin egoten dira, jolas eta jardueretan parte hartzen dute. Azken batez, immigranteek eguneko ordu ugari pasatzen dituzte etengabeko elkarreraginetan, eta

elkarreragin horiek beraiekin ekar dezakete harrera egiten dien gizartearekin identifikatzea edo desberdin sentitzea, erreserbarekin onartuak edo are errefusatuak ere. Puntu horretan sakontzeko, honako galdera egin dugu: *Zer da ikasten diharduzun ikastetxetik gehien atsegin zaizuna?*

Erantzunak ikasle guztienak dira, espainiarrak barne direla. Taulak islatzen duen bezala, irakasleak ez dira faktore erakargarria ikasleentzat. Honakoak dira gehien gustatzen zaizkienak: “nire ikaskideak” (% 54) eta “giroa, oro har” (% 31). “Irakasleak” aukera % 7k markatu du.




Analisia taldeak bereiziz eginez gero, honakoak atzeman daitezke:

Ikasleek ez dituzte irakasleak bereziki preziatzen, etorkinak izan nahiz ez izan. Immigrante hispanoamerikarren artean emakumeek duten pisua faktore bat izan daiteke kolektibo horrek irakasleak direla-eta erakuste duen aintzatespen handiagoa azaltzen laguntzeko.

Ikaskideak oso garrantzitsuak dira kolektibo guztientzat. Hala eta guztiz ere, hispanoamerikarrak, proportzio handi batean, ez daude ikaskideak bereziki atsegingarriak zaizkienen artean. % 40,1ek baizik ez dio ikaskideak direla gehien atsegin zaizkienak; beste kolektibo batzuetan, berriz, ehuneko horiek handiagoak dira. Hau da, hasteko, haiekiko urruntze afektibo bat dago. Europa Ekialdekoak dira ikastetxeko ikaskideak gehien baloratzen dituztenak; ondotik, espainiarrak eta magrebtarrak datoz.

**Kontingentzia taula. Zer da ikasten duzun ikastetxetik gehien atsegin zaizuna * Jatorria**

| | | Jatorria | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| | | Espainia | Hispanoamerikarrak | Europa Ekialdea | Magrebtarrak |
| Irakasleak | Kontaketa | 21 | 22 | 1 | 1 |
| | Jatorriaren barrenean, % | % 4,7 | % 15,5 | % 3,4 | % 7,1 |
| Ikaskideak | Kontaketa | 258 | 57 | 19 | 7 |
| | Jatorriaren barrenean, % | % 57,2 | % 40,1 | % 65,5 | % 50,0 |
| Giroa, oro har | Kontaketa | 134 | 47 | 8 | 6 |
| | Jatorriaren barrenean, % | % 29,7 | % 33,1 | % 27,6 | % 42,9 |
| Instalazioak | Kontaketa | 3 | 4 | 0 | 0 |
| | Jatorriaren barrenean, % | % 7 | % 2,8 | % 0 | % 0 |
| Etxetik hurbil egotea | Kontaketa | 30 | 11 | 1 | 0 |
| | Jatorriaren barrenean, % | % 6,7 | % 7,7 | % 3,4 | % 0 |
| Besterik | Kontaketa | 5 | 1 | 0 | 0 |
| | Jatorriaren barrenean, % | % 1,1 | % 7 | % 0 | % 0 |

Ondorengo irudian puntu garrantzitsuenak bildu ditugu (*Zer da ikasten diharduzun ikastetxetik gehien atsegin zaizuna)*



P 13. *Immigranteen lagunak ikastetxean*

Zein ikaskiderekin izaten dituzte harreman gehien ikasleek.




Hurrengo irudian, analisia inkestatuen jatorriaren arabera sortutako talde desberdinetan zentratuta dago.

Hurrengo taulan honakoak dira nabarmendu beharreko alderdiak:

1. Ikasle nafarren % 77,1ek nafarrekin edo Espainiako ikaskideekin izaten dituzte harremanak.
2. Hispanoamerikarren kasuan, % 28,0k nafarrekin izaten dituzte harremanak eta % 47,6k, berriz, guztiekin. % 24,5ek beren herrialdeko edo beste herrialde batzuetako ikaskideekin izaten dituzte harremanak.
3. Europa Ekialdeko ikasleek harreman onak dituzte nafarrekin (% 41,4) edo jatorri desberdinetako adiskideak dituzte ikastetxean (% 48,3).
4. Magrebtarrek joera dute ikastetxean beren herrialdeko ikaskideekin harremanak izateko (% 35,7) edo, bestela, beste edozein herrialdetako ikaskideekin.

Horrenbestez, ez dirudi nafarrak oso irekita daudenik atzerriko herrialdeetako ikaskideekin egoteko; bai daude irekita, ordea, immigraziotik heldu diren ikaskideak.

Ikastetxean honakoekin izaten dituzu harremanak




P 14. *Eskola-esparruaz kanpoko adiskideak.*

Honakoak dira emaitza orokorrak, nahiz eta ez ditugun taldeen arteko aldeak jaso



Ondoren azaltzen dugun kontingentzia-taulan, emaitzek honakoak islatzen dituzte:

1. Eskola-ordutegiaz kanpo handiago egiten da nafarren eta immigranteen arteko aldea. Nafarren % 85,4k harremanak izaten dituzte ikaskide nafarrekin edo beste autonomia erkidego batzuetakoekin. %12,8k baizik ez du harremanik atzerritarrekin ere, eta % 1,3k dio gehienak atzerritarrak direla.

Horrenbestez, neurri batean edo bestean, gazteen bi mundu paralelo eta ez-konbergente eraikitzen ari dira. Nafarrak iragazgaitzago bihurtzen dira immigranteak beren taldeetan edukitzeari begira.

2. Eskola-ordutegiaz kanpo, hispanoamerikarrek beren herrialdeko jendearekin izaten dituzte harremanak, edo beste herrialdeetako jendearekin, hain zuzen % 53,9an. Soilik % 16,1ek du harremana nafarrekin.

3. Europa Ekialdeko ikasleen % 41,4 nafarrak gehiengo diren taldeetan integratzen dira, eta % 24,1, berriz, nafarrek eta atzerritarrek osaturiko adiskide taldeetan.

Ikastetxetik kanpo honakoekin izaten dituzu harremanak




| | Gehienak nafarrak | Gehienak nire herrialdekoak | Gehienak beste herrialde batzuetakoak | Nafarrak eta atzerritarrak | Inorekin ez |
|---|---|---|---|---|---|
| Espainia | 71,3 | 14,1 | 1,3 | 12,8 | 0,4 |
| Hispanoamerika | 16,1 | 36,4 | 17,5 | 28,7 | 1,4 |
| Europa Ekialdea | 41,1 | 13,8 | 17,2 | 24,1 | 3,4 |
| Magreb | 21,4 | 35,7 | 0 | 42,9 | 0 |

Aztertu ditugun ikastetxeetako *herriei* buruzko analisia eginez gero, ikusiko dugu ez dagoela alde nabarmenik herri txikiak edo handiak izatearen arabera.

**Kontingentzia-taula: Udala * Eskola-ordutegiaz kanpo harremanak izaten dituzun adiskide taldea**

| | Eskola ordutegiaz kanpo harremanak izaten dituzten adiskide taldea | | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| | Gehienak nafarrak | Gehienak nire herrialdekoak | Gehienak beste herrialde batzuetakoak | Nafarrak eta atzerritarrak | Inorekin ez |
| Cintruénigo | % 54,3 | %22,9 | %8,6 | 11,4 | %2,9 |
| Lizarra | %62,4 | %17,6 | %2,4 | 16,5 | %1,2 |
| Azkoien | %65,0 | %17,5 | %5,0% | 10,0 | %2,5 |
| San Adrián | %56,5 | %26,1 | %,0 | 17,4 | %,0 |
| Tafalla | %77,5 | %5,0 | %,0 | 17,5 | %,0 |
| Castejón | %18,2 | %45,5 | %,0 | 27,3 | %9,1 |
| Tutera | %60,1 | %23,2 | %,7 | 15,9 | %,0 |
| Iruña | %51,9 | %17,7 | %10,4 | 19,5 | %,4 |
| Berriozar | %38,9 | %25,0 | %11,1 | 25,0 | %,0 |

Tafallako kasuan, ikasle nafarrekin harremanak dituzten ikasle atzerritarren ehuneko handia azal daiteke Gazteriaren Etxearengatik, bertara nerabe atzerritar ugari joaten baitira, azterlan kualitatibotik ondorioztatzen denez.

Sexuaren ikuspegitik, emaitzetan ez dago gizonezkoen eta emakumezkoen arteko alde nabarmenik.



*Nazionalitatea* eta *sexua* aldagaiei erreparatuz gero, honakoak dira emaitzak:

**Kontingentzia-taula: Eskola-ordutegiaz kanpo harremanak izaten dituzun adiskide taldea * Jatorria * Sexua**

| Sexua | | Jatorria | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| | | Espainia | Hispanoamerika | Europa Ekialdea | Magreb |
| Gizonezkoa | Gehienak nafarrak | % 71,1 | % 17,2 | % 23,1 | % 33,3 |
| | Gehienak nire herrialdekoak | % 13,4 | % 39,1 | % 15,4 | % 22,2 |
| | Gehienak beste herrialde batzuetakoak | % ,4 | % 12,5 | % 30,8 | % ,0 |
| | Nafarrak eta atzerritarrak | % 14,6 | % 31,3 | % 23,1 | % 44,4 |
| Emakumezkoa | Gehienak nafarrak | % 71,5 | % 15,2 | % 56,3 | % ,0 |
| | Gehienak nire herrialdekoak | % 15,0 | % 34,2 | % 12,5 | % 60,0 |
| | Gehienak beste herrialde batzuetakoak | % 2,5 | % 21,5 | % 6,3 | % ,0 |
| | Nafarrak eta atzerritarrak | % 10,5 | % 26,6 | % 25,0 | % 40,0 |

Bi gizonezko hispanoamerikarrek (% 17,2), bai emakume hispanoamerikarrek (% 15,2) harreman gutxi izaten dituzte soilik ikasle nafarrekin. Ekialdeko ikasleak irekiagoak dira harremanetarako. Magrebtarrek ez diote erantzun honi erantzun.

P 14.1. *Espainian bizitzen emandako urteak eta eskola-ordutegiaz kanpoko harremanak*

Ikasleek zenbat eta denbora gutxiago eraman Espainian bizitzen, orduan eta handiagoak dira eskola-ordutegiaz kanpoko adiskideak beren herrialdekoak direla adierazten dutenen ehunekoak. Nahiz eta ikasle batek 7 eta 8 urte bitarte eraman Espainian bizitzen, soilik nafarrekin harremanak izaten dituztenen ehunekoak txikiak dira. Soilik 9 urte baino gehiago eramanez gero ikusten da % 27,9k adiskide gehienak nafarrak dituela. Talde hori da beren jatorrizko herrialdeko adiskideekin harreman gutxien dituena (% 23,3).

Nafarrekin eta atzerritarrekin harremanak dituztenen ehunekoek gora egiten dute inkestatuek Nafarroan denbora gehiago bizitzen daramaten neurrian. Nafarroan 6 urte baino gutxiago eman dituztenek ia ez dute harremanik nafarrekin. Bederatzi eta hamaika urte bitarte eman dituztenen % 27,9k ordea, adiskide gehienak nafarrak dauzka. Interesgarria da ikustea nola egonaldia bederatzi urtetik gorakoa den kasuetan, jatorrizko herrialdeko adiskideekiko harremanak erdiraino jaisten diren, eta, aldi berean, harremanen horizontea gainerako kolektiboetara ere zabaltzen dela.

| | | Eskola-ordutegiaz kanpo harremanak izaten dituzun adiskide taldea | | | | | Guztira |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | Gehienak nafarrak | Gehienak nire herrialdekoak | Gehienak beste herrialde batzuetakoak | Nafarrak eta atzerritarrak | Inorekin ez | |
| 1-3 | Kontaketa | 6 | 17 | 9 | 7 | 0 | 39 |
| | Urteen barreneko % | % 15,4 | % 43,6 | % 23,1 | % 17,9 | % ,0 | % 100,0 |
| 4-6 | Kontaketa | 4 | 14 | 8 | 7 | 2 | 35 |
| | Urteen barreneko % | % 11,4 | % 40,0 | % 22,9 | % 20,0 | % 5,7 | % 100,0 |
| 7-8 | Kontaketa | 10 | 16 | 5 | 20 | 1 | 52 |
| | Urteen barreneko % | % 19,2 | % 30,8 | % 9,6 | % 38,5 | % 1,9 | % 100,0 |
| 9-11 | Kontaketa | 12 | 10 | 4 | 17 | 0 | 43 |
| | Urteen barreneko % | % 27,9 | % 23,3 | % 9,3 | % 39,5 | % ,0 | % 100,0 |

P 15. *Nola sentitzen den ikaslea ikasten ari den ikastetxean*

Ikasle nafarrak eta immigranteak ongi sentitzen dira ikasten diharduten ikastetxean. Hobekien pasatzen dutela baieztatzen duten ikasleak magrebtarrak dira. Ondotik espainiarrak eta gero Europa Ekialdetik heldu diren ikasleak datoz. Ikasle horien % 96,5 oso ongi edo ongi pasatzen dute ikastetxean. Hala eta guztiz ere, hispanoamerikarren % 11,3k dio “batzuetan gaizki pasatzen dutela”.

**Kontingentzia-taula: Nola sentitzen zara ikasten diharduzun ikastetxean * Jatorria**

| | | Jatorria | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| | | Espainia | Hispanoamerika | Europa Ekialdea | Magreb |
| Oso ongi | % honen barnean: Nola sentitzen zara ikasten diharduzun ikastetxean | % 75,8 | % 19,2 | % 3,5 | % 1,5 |
| | % honen barnean: Jatorria | % 33,3 | % 26,8 | % 24,1 | % 21,4 |
| Normal ongi | % honen barnean: Nola sentitzen zara ikasten diharduzun ikastetxean | % 69,5 | % 22,3 | % 5,4 | % 2,8 |
| | % honen barnean: Jatorria | | % 61,3 | % 72,4 | % 78,6 |
| Batzuetan gaizki pasatzen dut | % honen barnean: Nola sentitzen zara ikasten diharduzun ikastetxean | % 52,8 | % 44,4 | % 2,8 | % ,0 |
| | % honen barnean: Jatorria | % 4,2 | % 11,3 | % 3,4 | % ,0 |
| Oso gaizki, ez zait gustatzen | % honen barnean: Nola sentitzen zara ikasten diharduzun ikastetxean | % 91,7 | % 8,3 | % ,0 | % ,0 |
| | % honen barnean: Jatorria | % 2,4 | % ,7 | % ,0 | % ,0 |

**Kontingentzia-taula: Nola sentitzen zaren ikasten diharduzun ikastetxean * Sexua**

| | | Jatorria | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| | | Espainia | Hispanoamerika | Europa Ekiald | Magreb |
| Oso ongi | % honen barnean: Nola sentitzen zara ikasten diharduzun ikastetxean | % 83,3 | % 11,5 | % 4,2 | % 1,0 |
| | % honen barnean: Jatorria | % 31,9 | % 17,5 | % 20,8 | % 11,1 |
| Normal, ongi | % honen barnean: Nola sentitzen zara ikasten diharduzun ikastetxean | % 71,8 | % 20,4 | % 4,2 | % 3,7 |
| | % honen barnean: Jatorria | % 61,8 | % 69,8 | % 69,2 | % 88,9 |
| Batzuetan gaizki pasatzen dut | % honen barnean: Nola sentitzen zara ikasten diharduzun ikastetxean | % 58,8 | % 41,2 | % ,0 | % ,0 |
| | % honen barnean: Jatorria | % 4,0 | % 11,1 | % ,0 | % ,0 |
| Oso gaizki, ez gustatzen | % honen barnean: Nola zait sentitzen zara ikasten diharduzun ikastetxean | % 85,7 | % 14,3 | % ,0 | % ,0 |
| | % honen barnean: Jatorria | % 2,4 | % 1,6 | % ,0 | % ,0 |
| Oso ongi | % honen barnean: Nola sentitzen zara ikasten diharduzun ikastetxean | % 68,6 | % 26,5 | % 2,9 | % 2,0 |
| | % honen barnean: Jatorria | % 35,0 | % 34,2 | % 18,8 | % 40,0 |
| Normal ongi | % honen barnean: Nola sentitzen zara ikasten diharduzun ikastetxean | % 66,7 | % 24,7 | % 6,9 | % 1,7 |
| | % honen barnean: Jatorria | % 58,0 | % 54,4 | % 75,0 | % 60,0 |
| Batzuetan gaizki pasatzen dut | % honen barnean: Nola sentitzen zara ikasten diharduzun ikastetxean | % 47,4 | % 47,4 | % 5,3 | % ,0 |
| | % honen barnean: Jatorria | % 4,5 | % 11,4 | % 6,3 | % ,0 |
| Oso gaizki, ez gustatzen | % honen barnean: Nola zait sentitzen zara ikasten diharduzun ikastetxean | % 100,0 | % ,0 | % ,0 | % ,0 |
| | % honen barnean: Jatorria | % 2,5 | % ,0 | % ,0 | % ,0 |

Ikastetxera etortzean beldurra sentitu al duzu?




Inkestan aurreikusi da xehetasun batzuk ematea ikasleek ikastetxera joaterakoan izan ditzaketen sentimendu negatiboei buruz. Emaitzak onak dira.

Soilik hispanoamerikarren kolektiboan atzematen da ia lau ikasletatik batek beldurra izan duela noizbait ikastetxera joaterakoan.

Hispanoamerikarren kasuan, beldurraren iturria aztertu da, eta honakoa izan da emaitza.

Hispanoamerikarrek beldurra dute, batez ere, ikaskide batzuengatik (% 44,0) eta irakasle batzuengatik (% 28,0).

**Kontingentzia-taula: Beldurra sentitu duzu ikastetxera etortzean * Jatorria * Sexua**

| Sexua | | | Jatorria | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | Espainia | Hispanoamerikarrak | Europa Ekialdea | Magrebtarrak |
| Gizonezkoa | Sekula ez | % honen barnean: Jatorria | % 96,4 | % 81,3 | % 100,0 | % 88,9 |
| | Behin edo behin | % honen barnean: Jatorria | % 3,6 | % 18,8 | % ,0 | % 11,1 |
| Emakumezkoa | Sekula ez | % honen barnean: Jatorria | % 89,9 | % 72,2 | % 81,3 | % 80,0 |
| | Behin edo behin | % honen barnean: Jatorria | % 9,5 | % 27,8 | % 18,8 | % 20,0 |

**Kontingentzia-taula: Beldurra sentitu duzu ikastetxera etortzean * Jatorria * Sexua**

| Sexua | | | Jatorria | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | Espainia | Hispanoamerikarrak | Europa Ekialdea | Magrebtarrak |
| Gizonezkoa | Sekula ez | % honen barnean: Jatorria | % 96,4 | % 81,3 | % 100,0 | % 88,9 |
| | Behin edo behin | % honen barnean: Jatorria | % 3,6 | % 18,8 | % ,0 | % 11,1 |
| Emakumezkoa | Sekula ez | % honen barnean: Jatorria | % 89,9 | % 72,2 | % 81,3 | % 80,0 |
| | Behin edo behin | % honen barnean: Jatorria | % 9,5 | % 27,8 | % 18,8 | % 20,0 |
| | Behin edo behin | % honen barnean: Jatorria | % ,5 | % ,0 | % ,0 | % ,0 |

**Kontingentzia-taula: Beldurra sentitu duzu ikastexera etortzean * Jatorria**

| | | Jatorria | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| | | Espainia | Hispanoamerikarrak | Europa Ekialdea | Magrebtarrak |
| Sekula ez | Kontaketa | 420 | 109 | 26 | 12 |
| | % honen barnean: Beldurra sentitu al duzu ikastetxera etortzean? | % 74,1 | % 19,2 | % 4,6 | % 2,1 |
| | % honen barnean: Jatorria | % 93,5 | % 76,2 | % 89,7 | % 85,7 |
| | % honen barnean: Guztira | % 66,1 | % 17,2 | % 4,1 | % 1,9 |
| Behin edo behin | Kontaketa | 28 | 34 | 3 | 2 |
| | % honen barnean: Beldurra sentitu al duzu ikastetxera etortzean? | % 41,8 | % 50,7 | % 4,5 | % 3,0 |
| | % honen barnean: Jatorria | % 6,2 | % 23,8 | % 10,3 | % 14,3 |
| | % honen barnean: Guztira | % 4,4 | % 5,4 | % ,5 | % ,3 |
| Ia egunero | Kontaketa | 1 | 0 | 0 | 0 |
| | % honen barnean: Beldurra sentitu al duzu ikastetxera etortzean? | % 100,0 | % ,0 | % ,0 | % ,0 |
| | % honen barnean: Jatorria | % ,2 | % ,0 | % ,0 | % ,0 |
| | % honen barnean: Guztira | % ,2 | % ,0 | % ,0 | % ,0 |

P 17. *Ikastetxera joateko beldurraren jatorria*

Beldurraren arrazoia gisa askotakoa da nafarren kasuan, baina ikusten da nolabaiteko kontzentrazioa dagoela irakasle edo ikaskide batzuekiko beldurrean. Antzeko zerbait gertatzen da inkestatu diren hispanoamerikarrekin. Europa Ekialdeko herrialdeetatik heldu direnek ikaskideei diete beldurra eta, magrebtarrek, berriz, irakasleengan jartzen dute beldurraren jatorria.




P 18. Datuak ez dira esanguratsuak.

P 19. *Ikasten diharduen ikastetxeko ikaskideekiko harremana*

P 13an eta P 14an, ikasleei galdetu zaie adiskideen taldea abiapuntu hartuta gertatzen diren harreman pertsonalenei eta intimoenei buruz. Zein diren talde horiek osatzen dituzten lagunak. Ondorengo galderetan, inkestatuek gainerako lagunekin dauzkaten harremanak, onak nahiz txarrak, aztertzen dira. Horrenbestez, ez da 13. eta 14. galderetakoa bezain maila sakona.

Ikasle immigranteek beren ikaskideekin izaten dituzten harremanak taldeetako integrazioaren eta, horien bitartez, gizarteko integrazioaren adierazle bat dira. Ondoren aztertuko ditugun aldagai batzuk hartu dira aintzat. Erantzunek islatzen dute ikastetxeetan harreman-giro on bat badagoela.

Ikastetxeko ikaskideekiko harremana.




Desberdintasun argiak daude espainiarren eta gainerako kolektiboen artean. Espainiarrek familiako betebehar gutxiago dituzte, nahiz eta noizean behin familiartekoren bat zaindu behar duten. Gainerako kolektiboetan, familia zaintzen dutela dioten inkestatuen kopurua txikia bada ere, ehunekoari erreparatuta espainiarrak baino gutxiago dira.

**Kontingentzia-taula: Zer egiten duzu asteburuan? Nire familiako norbait zaintzen dut * Jatorria**

| | | Jatorria | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| | | Espainia | Hispanoamerika | Europa Ekialdea | Magreb |
| Guztiak | Kontaketa | 4 | 3 | 0 | 0 |
| | % honen barnean: Jatorria | % 1,0 | % 2,4 | % ,0 | % ,0 |
| Ia guztiak | Kontaketa | 16 | 10 | 2 | 0 |
| | % honen barnean: Jatorria | % 4,1 | % 7,9 | % 8,7 | % ,0 |
| Batzuk | Kontaketa | 121 | 37 | 5 | 2 |
| | % honen barnean: Jatorria | % 31,1 | % 29,1 | % 21,7 | % 15,4 |
| Inoiz ez | Kontaketa | 248 | 77 | 16 | 11 |
| | % honen barnean: Jatorria | % 63,8 | % 60,6 | % 69,6 | % 84,6 |

P 36.3. *Etxeko lanak egiten dituzte*

Espainiarrak dira asteburuetan etxeko lan gutxien egiten dituztenak.

**Zer egiten duzu asteburuan? Etxeko lanak * Jatorria**

| | | Jatorria | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| | | Espainia | Hispanoamerika | Europa Ekialdea | Magreb |
| Guztiak | Kontaketa | 50 | 30 | 1 | 3 |
| | % honen barnean: Jatorria | % 12,0 | % 22,4 | % 4,2 | % 23,1 |
| Ia guztiak | Kontaketa | 94 | 41 | 9 | 3 |
| | % honen barnean: Jatorria | % 22,5 | % 30,6 | % 37,5 | % 23,1 |
| Batzuk | Kontaketa | 192 | 44 | 8 | 3 |
| | % honen barnean: Jatorria | % 45,9 | % 32,8 | % 33,3 | % 23,1 |
| Inoiz ez | Kontaketa | 82 | 19 | 6 | 4 |
| | % honen barnean: Jatorria | % 19,6 | % 14,2 | % 25,0 | % 30,8 |

P 36.4. *Etxean, lagunekin*

Kasu honetan kontuan hartzen bada asteburua lagunen etxean “inoiz” pasatzen ez dutenen kopurua, emaitza berriz ere espainiarren aldekoa da, zeren eta % 18k esaten baitu “inoiz” ez dituela pasatzen lagunen etxean. Asteburua etxean lagunekin inoiz pasatzen ez duten atzerritarren kopurua % 35 da hispanoamerikarren eta magrebtarren kasuan. Europa Ekialdeko herrialdeetako kasuan, lautik batek ez du hori egiten.

**Kontingentzia-taula: Zer egiten duzu asteburuan? Etxean, lagunekin * Jatorria**

| | | Jatorria | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| | | Espainia | Hispanoamerika | Europa Ekialdea | Magreb |
| Guztiak | Kontaketa | 41 | 13 | 4 | 1 |
| | % honen barnean: Jatorria | % 10,0 | % 10,2 | % 14,8 | % 7,1 |
| Ia guztiak | Kontaketa | 61 | 16 | 5 | 0 |
| | % honen barnean: Jatorria | % 14,8 | % 12,5 | % 18,5 | % ,0 |
| Batzuk | Kontaketa | 235 | 54 | 11 | 8 |
| | % honen barnean: Jatorria | % 57,2 | % 42,2 | % 40,7 | % 57,1 |
| Inoiz ez | Kontaketa | 74 | 45 | 7 | 5 |
| | % honen barnean: Jatorria | % 18,0 | % 35,2 | % 25,9 | % 35,7 |

P 36.5 *Joko aretoak*

Ez du ematen joko-aretoetara joatea ohiko jarduera bat denik inkestatuentzat, zeren eta “inoiz” joko areto batera joaten ez direnen ehunekoak ia kasu guztietan % 50tik gorakoak baitira. Erantzunetan, kontuan hartu beharra dago elkarrizketa egindako gehienak 14 eta 16 urte bitartekoak direla eta, agian, horiek ez direla jarduera horren hain zaleak.

**Zer egiten duzu asteburuan? Joko aretoak * Jatorria**

| | | Jatorria | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| | | Espainia | Hispanoamerika | Europa Ekialdea | Magreb |
| Guztiak | Kontaketa | 26 | 2 | 1 | 0 |
| | % honen barnean: Jatorria | | | | |
| Ia guztiak | Kontaketa | 48 | 9 | 4 | 2 |
| | % honen barnean: Jatorria | % 11,8 | % 7,1 | % 17,4 | % 14,3 |
| Batzuk | Kontaketa | 111 | 39 | 6 | 3 |
| | % honen barnean: Jatorria | % 27,3 | % 30,7 | % 26,1 | % 21,4 |
| Inoiz ez | Kontaketa | 222 | 77 | 12 | 9 |
| | % honen barnean: Jatorria | % 54,5 | % 60,6 | % 52,2 | % 64,3 |

P 36.6. *Kalean, parkean egon*

Irudipena izan ohi dugu immigranteek asteburuak kalean edo aire librean ematen dituztela. Kontrakoa dio inkestak. Nafarrak dira (% 75,2) etxetik kanpo, kalean, aisialdia gehien pasatzen dutenak.

**Zer egiten duzu asteburuan? Kalean, parkean egon * Jatorria**

| | | Jatorria | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| | | Espainia | Hispanoamerika | Europa Ekialdea | Magreb |
| Guztiak | Kontaketa | 185 | 27 | 4 | 4 |
| | % honen barnean: Jatorria | % 42,4 | % 20,8 | % 14,8 | % 30,8 |
| Ia guztiak | Kontaketa | 143 | 43 | 10 | 2 |
| | % honen barnean: Jatorria | % 32,8 | % 33,1 | % 37,0 | % 15,4 |
| Batzuk | Kontaketa | 71 | 42 | 8 | 1 |
| | % honen barnean: Jatorria | % 16,3 | % 32,3 | % 29,6 | % 7,7 |
| Inoiz ez | Kontaketa | 37 | 18 | 5 | 6 |
| | % honen barnean: Jatorria | % 8,5 | % 13,8 | % 18,5 | % 46,2 |
| | Guztizkoaren % | % 6,1 | % 3,0 | % ,8 | % 1,0 |

P 36.7. *Diskotekak*

Ez du ematen diskoteketara joatea elkarrizketatutako ikasleen adinetako berezko jarduera denik. Handia da inoiz ere diskoteka batera joaten ez direnen ehunekoa, batez ere magrebtarren kasuan (% 84,6).

**Kontingentzia-taula: Zer egiten duzu asteburuan? Diskotekak * Jatorria**

| | | Jatorria | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| | | Espainia | Hispanoamerika | Europa Ekialdea | Magreb |
| Guztiak | Kontaketa | 27 | 15 | 3 | 0 |
| | % honen barnean: Jatorria | % 6,5 | % 11,1 | % 10,7 | % ,0 |
| Ia guztiak | Kontaketa | 71 | 15 | 5 | 1 |
| | % honen barnean: Jatorria | % 17,2 | % 11,1 | % 17,9 | % 7,7 |
| Batzuk | Kontaketa | 172 | 58 | 14 | 1 |
| | % honen barnean: Jatorria | % 41,6 | % 43,0 | % 50,0 | % 7,7 |
| Inoiz ez | Kontaketa | 143 | 47 | 6 | 11 |
| | % honen barnean: Jatorria | % 34,6 | % 34,8 | % 21,4 | % 84,6 |

P 36.8. *Tabernak*

Nafarrena da asteburuetan tabernetara gehien joaten direnen kolektiboa (% 39,9). Ondoren, Europa Ekialdekoena dator.

Azterlan kualitatiboaren arabera jakin dugu kolektibo gehienak joan ohi diren tabernak beren jatorrizko herrialdeko musika eta edariak eskaintzen dituztenak direla, nahiz eta gaueko ordu jakin batetik aurrera, gazteak irekita dagoen edozein tabernatara joaten diren.

**Kontingentzia-taula: Zer egiten duzu asteburuan? Tabernak * Jatorria**

| | | Jatorria | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| | | Espainia | Hispanoamerika | Europa Ekialdea | Magreb |
| Guztiak | Kontaketa | 58 | 8 | 1 | 0 |
| | % honen barnean: Jatorria | % 13,6 | % 6,1 | % 3,8 | % ,0 |
| Ia guztiak | Kontaketa | 108 | 11 | 5 | 0 |
| | % honen barnean: Jatorria | % 25,3 | % 8,3 | % 19,2 | % ,0 |
| Batzuk | Kontaketa | 160 | 44 | 13 | 4 |
| | % honen barnean: Jatorria | % 37,5 | % 33,3 | % 50,0 | % 30,8 |
| Inoiz ez | Kontaketa | 101 | 69 | 7 | 9 |
| | % honen barnean: Jatorria | % 23,7 | % 52,3 | % 26,9 | % 69,2 |

P 36.9. *Aparteko lana*

Ez dirudi jarduera hori garrantzizkoa denik aztertutako inongo kolektibotan ere. “Inoiz” aparteko lana ez dutela egiten baieztatzen dutenen ehunekoak % 64,8 baino gehiago da hispanoamerikarren kasuan, eta gainerako kolektiboetan handixeagoa da.

**Kontingentzia-taula: Zer egiten duzu asteburuan? Aparteko lana * Jatorria**

| | | Jatorria | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| | | Espainia | Hispanoamerika | Europa Ekialdea | Magreb |
| Guztiak | Kontaketa | 11 | 9 | 2 | 0 |
| | % honen barnean: Jatorria | % 2,8 | % 7,0 | % 7,7 | % ,0 |
| Ia guztiak | Kontaketa | 13 | 6 | 1 | 2 |
| | % honen barnean: Jatorria | % 3,3 | % 4,7 | % 3,8 | % 15,4 |
| Batzuk | Kontaketa | 101 | 30 | 3 | 1 |
| | % honen barnean: Jatorria | % 25,8 | % 23,4 | % 11,5 | % 7,7 |
| Inoiz ez | Kontaketa | 267 | 83 | 20 | 10 |
| | % honen barnean: Jatorria | % 68,1 | % 64,8 | % 76,9 | % 76,9 |

P 37. *Immigranteen kirola*

Edozein jatorritako elkarrizketatuen ehuneko handi batek ez du kirolik egiten (% 38,0).

Kirolen bat egiten al duzu?




Nazionalitateen arabera, nafarrak dira kirol jardueretan gehien parte hartzen dutenak (% 67,9). Gainerako kolektiboetan antzeko ehunekoak ageri dira, baina diferentzia txiki bat badago hispanoamerikarren alde.

**Kontingentzia taula: Kirolen bat egiten al duzu? * Jatorria**

| | | Jatorria | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| | | Espainia | Hispanoamerika | Europa Ekialdea | Magreb |
| Bai | Kontaketa | 301 | 69 | 12 | 6 |
| | % honen barnean: Jatorria | % 67,0 | % 49,3 | % 44,4 | % 42,9 |
| Ez | Kontaketa | 148 | 71 | 15 | 8 |
| | % honen barnean: Jatorria | % 33,0 | % 50,7 | % 55,6 | % 57,1 |

P 38. *Elkarrizketatuek kirola egiten astean zenbat ordu ematen dituzten*

Taularen edukia laburbilduz gero, elkarrizketatuen % 51,1ek ordubete eta lau ordu bitarte ematen dituzte kirola egiten. Gainerakoek lau ordu baino gehiago ematen dituzte.

**Astean zenbat ordu**

| | | Maiztasuna | Ehunekoa | Baliodunen ehunekoa | Ikasleen ehunekoa |
|---|---|---|---|---|---|
| Baliodunak | Bat edo bi | 64 | 10,0 | 16,7 | 16,7 |
| | bi edo hiru | 63 | 9,9 | 16,4 | 33,1 |
| | hiru edo lau | 60 | 9,4 | 15,6 | 48,7 |
| | lau edo bost | 66 | 10,3 | 17,2 | 65,9 |
| | Bost baino gehiako | 131 | 20,5 | 34,1 | 100,0 |
| | Guztira | 384 | 60,1 | 100,0 | |
| Galdutakoak | Sistema | 255 | 39,9 | | |
| Guztira | | 639 | 100,0 | | |

P 39. *Kirola egitea naziotasunaren arabera*

Kirola egiterakoan, naziotasuna faktore determinantea da. Elkarrizketatuen ia erdiak (% 47,3) naziotasun bereko lagunekin egiten dute kirola eta beste % 34,6k gehiena bere naziotasuneko lagunekin egiten dute. Guztira, % 81,9k egiten du kirola bere naziotasuneko lagunekin.

Honakoak dira kolektiboen
araberako erantzunak:
Espainia: 335
Hispanoamerikarrak: 61
Europa Ekialdea: 12
Magrebtarrak: 8

| | | Maiztasuna | Baliodunen ehunekoa |
|---|---|---|---|
| Baliodunak | Nire naziotasuneko lagunekin | 64 | 16,7 |
| | Gejien bat nire naziontasunekoekin | 63 | 16,4 |
| | Nire naziotasuneko gutxirekin | 60 | 15,6 |
| | Beste naziotasun batekoekin | 66 | 17,2 |
| | Bakarrik | 131 | 34,1 |
| | Guztira | 384 | 100,0 |
| Galdutakoak | Sistema | 255 | |
| Guztira | | 639 | |

P 39.1. *Kirola egitea naziotasunaren arabera*

Emaitzen analisi sakonago bat eginez, ikusten da nafarren % ia 100ek nafarrekin egiten duela kirola, nahiz eta beste naziotasun batzuetako gazteek ere parte hartu. Immigranteak jarrera irekiagoa dute kirola beste naziotasun bateko kideekin egiteko.

**Kontingentzia taula: Norekin egiten duzu kirola? * Jatorria**

| | | Jatorria | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| | | Espainia | Hispanoamerika | Europa Ekialdea | Magreb |
| Nire naziotasuneko lagunekin | Kontaketa | 163 | 18 | 2 | 0 |
| | % honen barnean: Jatorria | % 54,7 | % 25,7 | % 18,2 | % ,0 |
| Gejien bat nire naziontasunekoekin | Kontaketa | 123 | 9 | 0 | 2 |
| | % honen barnean: Jatorria | % 41,3 | % 12,9 | % ,0 | % 25,0 |
| Nire naziotasuneko gutxirekin | Kontaketa | 7 | 16 | 1 | 2 |
| | % honen barnean: Jatorria | % 2,3 | % 22,9 | % 9,1 | % 25,0 |
| Beste naziotasun batekoekin | Kontaketa | 4 | 27 | 8 | 3 |
| | % honen barnean: Jatorria | % 1,3 | % 38,6 | % 72,7 | % 37,5 |
| Bakarrik | Kontaketa | 1 | 0 | 0 | 1 |
| | % honen barnean: Jatorria | % ,3 | % ,0 | % ,0 | % 12,5 |

# BIGARREN ZATIA

# AZTERLAN

# KUALITATIBOA

## GIZARTEA ETA NERABE IMMIGRANTEEN INTEGRAZIOA

### 1. IKASTETXEEN IKUSPEGIA

1. *Sarrera*

Ikastetxeen eginkizuna familiaren eta gizartearen eginkizunen subsidiarioa da. Hala eta guztiz ere, gazteengan eragin determinanteena duten erakundeetako bat dira. Ikastetxeak gizartea orokorrean denaren erreplika txikiak dira eta haien egitekoa ez da soilik ezagutzak eta lan intelektualeko ohiturak transmititzea, baizik eta, baita ere diziplinako, errespetuko, lankidetzako, laneko eta tolerantziako jokabideak barneratzeko prozesuak sustatzea. Ikastetxeetan gizarteari, historiari eta bizikidetasunari buruzko balorazioak egiten dira. Nerabeek gizarteratzeko lehenengo esperientzia eta aukera izaten dute. Besterik da helburu hori guztiz lortzen den ala ez.

Horretarako, ikastetxeek ikastetxeko proiektu bat izaten dute, zeina, azken batean, hezkuntza proiektu bat baita. Ikastetxeetako langileak ez dira soilik irakasleak: orientatzaileak ere badaude, zeinek, izenak dioen bezala, gazteak beren ikasteko aukeren aurrean eta gure gizartean pertsonalki garatzeko aukeren aurrean jartzen baitihardute lanean. Gizarte-langileen eta -laguntzaileen kanpoko laguntza ere izaten dituzte ikastetxeek; izan ere, azken horien egitekoa da ikastetxearen, familien eta gizarteak pertsonei eskaintzen dizkien baliabideen lotura izatea.

Horrenbestez, gure azterlanerako funtsezkoa zen ezagutzea ikastetxeek nolako esperientzia daukaten ikasle etorkinekin eta zein erantzuna akademiko eta hezkuntzakoa ematen dioten fenomeno honi.

2. *Metodologia*

2.1. *Deskribapena eta edukia.* Atal honetan aplikatu dugun metodologia elkarrizketa fokalizatuena izan da. Harremanetan jarri gara inkestak aplikatu diren ikastetxe guztietako zuzendari edo ikasketaburuekin, elkarrizketa fokalizatu bat edukitzeko. Honakoak izan dira elkarrizketa horren puntu garrantzitsuenak.

- Ikasle immigrante berriei aplikatzen zaizkien harrera programak.
- Ikasmaila eta maila esleitzea.
- Ikasle atzerritarrak ikasketetarako nolako interesa duen.

- Nola atzematen duten ikasle atzerritarrek bertakoek haiei buruz duten ikusmoldea.

- Nola atzematen dituzten nafarrek ikaskide immigranteak.

- Ikasle immigranteak eta diziplina ikastetxeetan.

- Familia immigranteek ikastetxeetan parte hartzea.

- Ikasle immigranteen presentziak ikastetxeetako errendimenduan daukan eragina.

2.2. *Laginaren osaera.* Elkarrizketak inkestak aplikatu diren ikastetxe beretan egin dira.

| Herria | Ikastetxea | Nolako ikastetxea den | Ikasle immigranteen % |
|---|---|---|---|
| Iruña | La Compasión | Itundua | 20,35 |
| Iruña | Calasanz | Itundua | 17,7 |
| Iruña | Plaza de la Cruz | Publikoa | 25,89 |
| Iruña | Padre Moret | Publikoa | 29,45 |
| Iruña | Julio Caro Baroja | Publikoa | 39,28 |
| Azkoien | "Ribera del Arga" BHIa | Publikoa | 18,51 |
| San Adrián | "Ega" BHIa | Publikoa | 11,7 |
| Cintruénigo | “La Paz” BHIa | Publikoa | 35,7 |
| Tafalla | Sancho Tercero BHIa | Publikoa | 16,59 |
| Lizarra | “Tierra Estella” BHIa | Publikoa | 23,9 |
| Lizarra | Lizarrako “Ntra. Sra. Del Puy” | Itundua | 19,0 |
| Tutera | "Benjamín de Tudela" BHIa | Publikoa | 15,62 |
| Tutera | Anunciata ikastetxea | Itundua | 24,79 |
| Tutera | "Valle del Ebro" BHIa | Publikoa | 18,60 |
| Berriozar | “Berriozar” BHIa | Publikoa | 42,02 |

3. *Ikasle immigranteei ikastetxeetan harrera egiteko programak.*

Ikastetxe guztietan bi programa aplikatzen dira. Lehenengoa ikasleak ikastetxearekin lehenengo hartu-emana duen unean aplikatzen da. Bigarrenak, berriz, ikasle berriari maila eta ikasgela jakin bat esleitzeko prozesua biltzen du.

3.1. *Immigranteen harrera programa.*

Garrantzitsua da ikasleak ikastetxearekin duen lehenengo kontaktua zaintzea. Pertsona atsegingarri baten moduan hartzea eta ikastetxean ongi egonen den konfiantza adieraztea, ikastetxea nolakoa den, nolakoak izan behar duten harremanek, zein baliabide dauden ikastetxean: horiek guztiek, askotan, antolamendu berrian harrera egiten zaion ikaslearen ibilbidea markatuko dute. Hori garrantzitsuagoa da beste herrialde batzuetatik, beste kultura batzuetatik, ikasleen arteko eta ikasleen eta irakasleen arteko bestelako harreman mota batzuetatik, beste irakaskuntza eredu batzuetatik eta, oso maiz, beste hizkuntza batetik heldu diren ikasleen kasuan.

Bisitatu ditugun ikastetxe guztiek harrera-programak dauzkate, bi arrazoirengatik: lehenengoa, bertako ikasleen kasuan ere, ikasleak beste herrialde batzuetatik heldu direlako askotan, eta ingurune arrotzean sentitzen direlako, non bakarrik ezagutzen dituzten herri beretik heldu diren ikaskideak. Bigarrena, gertatu ohi delako behin ikasturtea hasi ondoren ikasturtean zehar ikasle immigranteak sartzen joaten direla, gureaz oso desberdinak diren kultura eta hizkuntzak dituztenak.

Ikastetxeek ikasleei harrera egiteko bi eredu bereizten dituzte. Lehenengo eredua ikasturtearen hasieran ikastetxean matrikulatutako ikasle guztiei harrera egiteari dagokiona da. Ikasleak ikasgeletan banatzen dira. Agur egiten zaie eta behar duten informazio guztia ematen zaie: ikasketak, ikastetxeko baliabideak, ikasgelak, laborategiak, liburutegia, gimnasioa, aisiarako lekuak eta diziplina-arauak. Tierra Estella BHIan, tutoretza-plan bat diseinatu dute ikasleen integrazioa errazteko.

Harrerako bigaren eredua “berandu” sartu diren ikasleei aplikatzen zaiena da; hau da, behin ikasturtea hasi ondoren ikastetxean sartzen direnei aplikatzekoa. Hasteko, eredu hori baliagarria da erregelamenduzko epeez kanpo ikastetxean sartzen diren ikasle guztientzat. Ikasle guztiei aplikatzen zaien protokolo bat da. Baina gertatzen da berandu sartzen diren horiek gehienetan immigranteak direla, ikasturtean zehar ttanttaka bezala sartzen joaten direnak.

Aplikatzen den protokoloan, esleitzen zaien ikasmaila kontuan hartzeaz gainera, beherako ikusiko dugun bezala, ahaleginak egiten dira ikaslearen ingurunea ezagutzeko, familiarekin izaten den elkarrizketa baten bitartez (Benjamín de Tudela). Aldi berean, bilatzen da ikasleak ikastetxea eta bere ikaskideak ezagut ditzan. Valle del Ebro BHIan, esate baterako, "ikasle bat bilatzen du, sartu berria den ikaslea pixka batean gida dezan gutxienez ere lehenengo egunetan, hartu-emanak izaten has dadin, ikastetxea ezagutzen joan dadin, oso handia baita, eta aurki dezan norekin elkar daitekeen, non dauzkan heziketa fisikoko gelak eta abar". Anunciata ikastetxean, aurreikusita daukate ikaskide batek ikasle berriari lagun egiten joatea eta ikastetxe guztiari eta irakasleei aurkeztea.

Ribera del Arga institutuan, zenbait urtez geratu zen immigrante ugari sartzen zirela ikasturtean zehar. Kasu horretan, institutu horrek berariazko neurri batzuk hartu zituen ikasle atzerritarrei arrera egiteko.

Harrera-neurrien artean, ikastetxe batzuek hizkuntza-murgilketako programa aplikatu beharra izaten dute (Ribera del Arga BHIa, San Adrián BHIA, Lizarrako Nuestra Sra. del Puy ikastetxea, Benjamín de Tudela BHIa). San Adrián BHIa hizkuntza-murgilketako programa datza astean 16 eta 30 ordu bitarteko gaztelania-eskolak ematean hizkuntzarekin arazoak dauzkaten ikasleei. Benjamín de Tudela BHIan, berriz, bi errefortzu daude gaztelania ikasgaian, hizkuntza ezagutzeari buruzko bi mailari dagozkionak. Tuterako Valle del Ebro BHIan bi talde daude astean hiru egunez gaztelania ikasten dutenak eta astean bi egunez erreferentziako taldearekin ikasgelara joaten direnak. Zenbait kasutan, ikasleak iristen dira gaztelaniaz ezer ere ez dakitela. Ikasle horiek hezkuntza-curriculum ofizialean hasi aurretik, eskolak hartzen dituzte, hizkuntzaren oinarrizko ezagutza bat izan dezaten eta eskolak normaltasunez jarraitu ahal ditzaten.

Gurasoek beren seme-alaben hezkuntzan parte har dezaten eta etxeko lanetan lagun diezaieten hizkuntzak zer garrantzi duen ezagututa, Cintruénigoko La Paz BHIan helduei gaztelaniazko eskolak ematen dizkiete.

3.2. *Maila eta ikasgela esleitzea.*

Ikastetxe ia guztiek aplikatzen duten harrera-protokoloan, urtean zehar ikastetxe batera sartzen diren ikasleen prestakuntza mailari buruzko ebaluazio bat jasotzen da, hain zuzen ere haiei ikasmaila jakin bat eman ahal izateko. Ikastetxeetan kasu bakoitzaz arduratzen den batzorde bat egoten da. Ikasketaburua edo orientatzailea izan ohi dira batzorde horiek zuzentzen dituztenak. Orientazio saileko arduradunak, Ribera de Arga BHIan gertatzen den bezala, mailari buruzko proba bat egien du eta horren bitartez

zehazten du ikaslea zein ikasmailatan jarri behar den. Horrela, ikasturte horretan zehar, irakasleek jarraipena egin ahal dute, baldin eta maila zuzena bada edo goragoko maila bat eman behar bazaio. Zenbait kasutan (Benjamín de Tudela), eskolatze batzordeak atzerritarrei, printzipioz, dagokien adinaz behetiko maila bat esleitzen die. Julio Caro Baroja BHIak ikasle immigranteei, ikasturtea hasita sartzen direnean, harrera egiteko berariazko plan bat dauka. Plan horretan, gizarte-langileak, orientazio sailak eta zuzendaritza taldeak hartzen dute parte. “Astebetez ikaslea ebaluatzen da, harentzako toki bat bilatzeko”.

Ikastetxeek ikasleak sartzen diren mailari buruzko bereizketa argia egiten dute: Europa Ekialdeko herrialdetatik heldu diren ikasleek (ijitoen etnia errumaniarretik heldu direnek izan ezik) prestakuntza ona dute matematikan eta zientzietan. Horrelako kasuetan, hizkuntza izaten da arazoa. Hispanoamerikatik heldu diren ikasleek, batzuetan, prestakuntza-maila oso ona azaltzen duten ziurtagiriak ekartzen dituzte, baina egiaz maila horiek ez datoz bat Espainiako mailekin, zeren eta curriculumak desberdinak baitira eta jatorriko herrialdeko hezkuntza sisteman ematen diren ikasgaiek ez baitute gurean daukaten toki edo garrantzi bera.

Ikastetxe batzuek adierazten dute ezen Hezkuntza Departamentuak iradokitzen diela hobe dela ikasle horiek beheragoko maila batean jartzea, nahiz eta maiz gertatzen den “ikasturte bat beherago jarrita ere, ez dituztela ikasgaiak gainditzen, eta, horren ondorioz, errepikatzen gelditu behar izaten dute eta dagokien maila baino bi urte beherago geratzen dira. Naturalagoa da dagokien ikasturtetik hurbilago integratzea eta gero gradu ertain bat egitea, edo lanbide hastapeneko programen bat edo bestelako prestakuntza motaren bat.

Bestalde, ikasleak derrigorrezkoa ez den irakaskuntza-mailaren batean matrikulatu nahi duenean, Hezkuntza Ministerioaren goi-ikuskaritza da ikasleak aurkezten duen dokumentazioa homologatu behar duena eta ikasleak zein mailatan matrikulatu behar duen adierazi behar duena.

3.3. *Aniztasunaren erantzutea.*

Ikastetxe guztiek neurriak hartzen dituzte konponbidea emateko ikasle immigranteek gainerakoen aldean dauzkaten desberdintasunen ondoriozko arazoei. Mailaz beherago dauden ikasleak elkartzen dira eta ahaleginak egiten dira haiei laguntzeko, oinarrizko ezagutza batzuetara irits daitezen. Arazo zehatz horri konponbidea ematen zaio irakasleekin eta talde txikietan arreta berezia jasoko duten taldeak osatuz.

Immigranteen kasuan, aniztasunaren arazoak ezagutzen defizitean du eragina, baina arlo hertsiki akademikoaz edo hizkuntzaren ezagutzaz harantzago doan arazo bat da. Aniztasun kulturala konplexuagoa da eta lantzen zailagoa, zeren eta sustrai kulturalak baitauzka. Kasu honetan, harrerako kulturan sozializatzeko prozesuaren aurkako erresistentziak oso handiak izan daitezke. Immigranteen isolamenduak, aurrerago aztertuko dugunak, batzuetan (magrebtarrak, txinatarrak) esan nahi izanen du ez dutela nahi harrerako kulturak haiek xurgatzea.

Dibertsifikazioa askoz ere sakonagoa da sustrai kulturalak dituenean, haietan kolektiboek oso jarrera desberdinak baitituzte harrerako kulturan sozializatzeari dagokionez.

Akulturaziorako edo sozializaziorako erresistentzia dela-eta honako xehetasunak aipatu behar dira: ijitoen etniako ikasleak ez dira oso iragazkorrak eta gehiengoaren kulturarekiko isolamenduari eusten diote.

Kultura hispanoamerikarretako ikasleek ez dute gure balioak eta sinesmenak sozializatzeko eta barneratzeko erresistentziarik, nahiz eta kostatzen zaien zenbait osagai kultural abandonatzea; esate baterako, gizonezkoak emakumezkoak baino balio handiagoa izatea (“matxismoa”), lana, puntualitatea eta abar.

Ikasle musulmanek ez dituzte oinarrizko balio batzuk onartu nahi –esate baterako, gizonezkoaren eta emakumezkoaren arteko berdintasuna– , eta beren familian, taldean edo erlijioan bilatzen dute babesa, gure kulturatik gordetzeko.

4. *Ikasle atzerritarrek ikasketak direla-eta daukaten interesa*

Garrantzitsua da ezagutzea zein itxaropen dauzkaten ikasleek hezkuntza sisteman sartzen direnean.

Ikasle batzuek adierazten dute talde edo etnia jakin batzuetatik heldu diren ikasleek interesik ez dutela ezta eskolatzeko ere. Eskolatuta daude nahitaezkoa delako eta gurasoei isunen bat jarri ahal dietelako, edo, ijitoen kasuan gertatzen den bezala, horrela gizarte zerbitzu batzuetarako sarbidea badaukatelako.

Kasu gehienetan, ikasleek titulazio bat lortu nahi duten ahal bezain laster lanean hasi eta familiari lagundu ahal izateko. Askok lanbide heziketa hautatzen dute, lan egiteko aukera gehiago eta hobeak eskaintzen dizkielako.

Oro har, genero desberdintasunik ez dagoela esaten da.

4.1 *Ikasketak berak nola baloratzen dituzten.*

Orokorrean, ikasle atzerritarrek ez diote beren buruari planteatzen unibertsitatean ikasten jarraitzeko aukera. Ikasketak amaitu eta lanean eta dirua irabazten hasi nahi dute. Hori dela eta, lanbide heziketa motaren bat nahiago izaten dute. Cintruénigoko BHIan konturatu dira neska gehienak hamalau urte betetzen dituztenean desagertzen direla, beren anai-arrebak zaintzen edo familiako lanak egiten hasten direlako.

Baina arazoa ez dago ikaslearengan, baizik eta familiako giroan. Lehenbizi, hispanoamerikarren kasuan maiz gertatzen den bezala, familia desantolatu asko dago. Ama batzuk bakarrik daude beren seme-alabak zaintzeko. Seme-alabak adin batera iristen direnean, ordea, ez diete kasurik egiten (“gizontxo bat balitz bezala da...”). Familia immigranteen arazoa bizirautea denean, beren bizitza hobetzeko bitarteko ekonomikoak lortzea, pilaturik ez bizitzeko etxebizitzaren bat alokatzea, beren etxetara dirua bidaltzea, seme-alaben ikasketen auzia bigarren mailakoa da eta aurreikusi ere ez dute egiten unibertsitatera joatea, esate baterako. “Familien lanak gogorrak dira. Amek ordu askotan egiten dute lan. Batzuetan gurasoak astean ordu gutxi batzuetan baizik ez dituzte ikusten”. Beste lekukotasun bat: “Gau eta egun egiten dute lan; seme-alabengatiko interesa daukate; hona beren bizitza sozial eta ekonomikoa hobetzera, arlo guztietan hobetzera etorri dira, eta aurkitu dute egoera guztiz kontrakoa dela, seme-alabekin ezin burutu dabiltzala, eta mutilak badira okerrago. Gizonezkoa gainetik

dagoela jotzen da... amak hona iritsi eta negarrez hasten dira, bizi duten egoera izugarria dela eta". Hau da, gurasoek hezkuntza maila apala izateari, unibertsitate-prestakuntzarako interesik ez izateari, familiaren gabezi ekonomikoak gehitu behar zaizkie; izan ere, egoera horretatik ateratzea da garrantzitsuena. Alabaina, arazo hori, institutu batzuek dioten bezala, Espainiako kultura apaleko eta diru-sarrera gutxiko familietan ere gertatzen den arren, askoz ere maizago gertatzen da eta orokorragoa da immigranteen familietan.

Ikastetxe batzuek, ikasteko baliabiderik ez duten ikasleei edo beren familien laguntza jasotzerik ez duten ikasleei laguntzeko, arratsaldeko ikasgelak sortu dituzte, ordutegi ofizialetatik kanpo. Esate baterako, Tuterako Sancho III el Fuerte BHIak duela zenbait urte "eskolaz kanpoko laguntza programa bat dauka. Arratsaldez etortzen dira ikastera. Haiek zaintzen dituen irakasle bat daukate, eta dauzkaten zalantza guztiak kontsultatu ahal dizkiote". Antzeko zerbait egiten dute Berriozarko BHIan.

4.2 *Ikasleen artean gailentzen diren balioak.*

Honako balio motak bereizten ditugu:

*Harremanetarako balioak: ikasleen artean eta ikasleen eta irakasleen artean.* Ikasleen arteko harremanak onak dira, nahiz eta atzerritarrek joera duten taldeak beren herrikideekin osatzeko. Institututuren batetik esaten digute gauza bera gertatzen dela herri desberdinetatik heldu diren ikasle nazionalekin, herrien arteko haserre edo ika-mikak daudenean. Cortesko edo Cabanillasko ikasleek beren herriko ikasleekin elkartzeko joera dute.

Ikastetxeetako irakasleekin harremanetan bi fenomeno atzeman dira: lehenengoa, ikasle hegoamerikarrak hasieran errespetu handia eduki eta erakusten dutela irakasleekiko, zuka hitz eginez (lizentziatu jauna, irakasle jauna), baina denbora pasa ahala bertakoen hizkera bera erabiltzen hasten dira. Ikasleekin hika hasten dira.

Atzeman den beste fenomenoa irakasleekiko harremanei dagokiena da. Arabiarrek ez dute ongi onartzen emakumearen papera. Irakasleak errespetatzen dituzte, "baina emakumeak direnean gehixeago kostatzen zaie". Beste ikastetxe batetik hauxe esan digute: "ikasle horiek desberdin

jokatzen dute irakasleak gizonezkoak direnean eta emakumezkoak direnean, eta irakasle emakumezko batzuek arazo handiak izaten dituzte haiekin diziplinari eusteko, emakumezkoak direlako, eta haien kulturan ikasitako erreberentziazko errespetua eskatzen dute.

*Ikasleen bizitza eta jokabidea orientatzen dituzten balio pertsonalak.*

Ikastetxe ugaritako baieztapenak aintzat hartuz gero, badirudi Europa Ekialdeko ikasleak “normalean oso langileak direla, oso inplikatua daude lanean, eguneroko ikasketetan”. “Europa Ekialdekoak heldutasun harrigarria duten gizon-emakumeak dira, serioak, helduak”. Ikasle hispanoamerikarrak puntualitaterako, diziplinarako eta lan antolaturako joera okerragoak dauzkatela aipatzen da. Kosta egiten zaie arauak onartzea. “Hispanoamerikarrak traketsagoak dira, diziplina gutxiagokoak. Haien gainean egon beharra dago liburuak ekarrarazteko, diziplina-arauak betearazteko, etxeko lanak eginarazteko. Kosta egiten zaie ardurak hartzea”.

Marokoarrak ikasketetarako interesa gutxiago dutela eta gatazka gehiago sortzen dituztela jotzen da. Ikastetxeren batean esaten da ikasteko interes gutxien duten eta gatazka gehiago sortzen dituzten mutilak marokoarrak direla. “Gehien bat, gatazkatsuak dira”. Badirudi “egotera etortzen direla ikastetxera”. Ikastetxeak liburua emateko zain daude. Batzuetan, liburuak lortzen dituzte ikastetxeak gizarte-zerbitzuari igortzen dion txosten bati esker; baina liburuк ez badute, “ikasgelara joan, besoak gurutzatu eta besterik ez”.

## 5. *Ikasleak ikastetxeetan integratzea.*

### 5.1. *Ikastetxeen planteamendua.*

Beste ezer baino lehen, nabarmendu beharra dago ikastetxeek zorroztasunez eusten diotela arau bati: ikastetxeetan guztiak berdinak dira. Horrenbestez, ez da inongo bereizketarik egiten naziotasunen arabera, taldeak eta ikasgelak osatzeko garaian. Integrazioa erraztu ere egiten dute, nazionalitateen araberako lantaldeak sortzeko joera hautsiz. Ikastetxeren batean (Ribera del Arga BHIa), “jarraibide batzuk badaude

irakasleak taldeak planifikatu eta modu jakin batera erabil ditzan; ez dakit xedea integratzea den, taldeen xedea lan egitea baita. Zuzendaritzatik bultzatzen dugu irakaslea izan dadila lantaldeak planifikatzen dituena.

Ikaslearen integrazioan zailtasun ugari topatzen dira, haien egoera pertsonaletik eta ikastetxearen beraren egoeratik ere sortzen direnak. Ikasturtean zehar ikastetxera sartzen diren ikasleak bestelako hezkuntza sistema bat daukaten herrialdeetatik heldu dira, eta lehendik zeuzkaten sare sozialak eta adiskideen sareak hautsi behar izan dituzte. Espainiako giroa ez da beti haiek integratzearen oso aldekoa. Aipagarria da ikastetxe batek jarritako adibidea: “14 urterekin iristen dira hona, oso adin zaila dutela, eta zortzi edo bederatzi urte daramatzate gurasoekin bizi gabe; aita edo ama, pertsona arrotz bat, daukate beraiekin, eta oso adin zailean daude”.

5.2. *Nola atzematen duten ikasle atzerritarrek bertakoek haiei buruz duten ikusmoldea.*

Askotan interesgarriagoa da ezagutzea ea ikasle atzerritarrek beren burua ikasle diferentetzat, arroztzat daukaten edo ez dituztela onartzen jotzen duten, errefusaren eta xenofobiaren egitate soziala baino. Oso kasu berezietan, gertatu da ikasle batzuek sentitu dutela irakasleek ez dituztela ongi tratatzen, nahiz eta egoera hori atzerritarra izateaz beste egoera bati zor ahal zaion. Beste batzuetan, litekeena da ikasleak, bere burua defendatzeko, esatea “errieta egiten didazu marokoarra naizelako” edo “hispanoamerikarra naizelako” eta abar. Bestetan gertatzen da immigranteak ikusten duela bertakoak ez duela harekin elkartu nahi.

“Ikasle desberdinaren” pertzepzioa atseden-orduetan sumatzen da, nazionalitate bakoitzeko ikasleak taldeak eginez bereizi ohi direlako. Egia da herrietako ikasleen taldeek ere beren burua islatzeko joera daukatela, baina bestelako arrazoi batzuengatik. Atzerritarrek beren burua desberdintzat jotzen dute larruaren kolorearengatik eta hitz egiteko moduarengatik, eta askok “uste dute guk errefusatzen ditugula; guk, berriz, uste dugu haiek ez dutela integratu nahi”. Ezin da esan talde guztiz itxiak daudenik. Izan ere, taldeen arteko trukeak gertatzen dira, batez ere jokoetarako ekipoak antolatu nahi direnean. Baina bereizketarako joera argia da.

*5.3. Nola atzematen dituzten bertako ikasleek beren ikaskide atzerritarrak.*

Ikastetxeek, orokorrean, ez dute adierazten bertako ikasleek atzerritarrekiko ezinikusia ageri dutenik. Baina bai adierazten dute bi jarrera badaudela: bata ezaxolarena da. Lehen zerbait exotikotzat ikusten zituzten; orain, berriz, ezaxola erakusten dute. Beste batzuek onartzen dute "halako arrazakeria bat badagoela, ez oso maila handikoa, baina baietz, halako arrazakeria bat egon badagoela". Batzuetan borroka batzuk ere gertatzen dira.

Era guztietako xenofobiak gainditzeko aipatzen diren ekimenen artean, honakoak nabarmentzen dira: Bakearen aldeko jardunaldi bat ospatu dute kulturen integrazioaren gaia hartuta (Valle del Ebro BHIa). Tierra Estella BHIan, orain dela 10 urte, astebete ospatzen dute kultura jakin bat gai gisa hartuta. Asteari amaiera emateko, "kulturen bazkaria" egiten da, non elikagai bat hautatzen baita menurako. Nazionalitate bakoitzekoek platera beren kulturari dagokion gisara prestatzen dute.

5.4. *Ikastetxeen iritzia.*

Ikastetxe batzuek adierazten dute immigranteen talde itxi samarrak egotea eta haiek nazionalitateen araberakoak izatea ez dela soilik ikastetxean gertatzen den zerbait. Ikasleak berak dira integratu nahi ez dutenak, zeren eta ikastetxeko taldeak funtzionalak eta ezegonkorrak baitira, xede oso jakin baterako sortzen baitira. Benetako taldeak, non taldekideek antzeko sentimenduak, balioak, bizimoduak, dibertsioa eta abar konpartitzen dituzten, ikastetxetik kanpo dauzkate. "Maiz gertatzen dena da gainerakoekin egotea haiek errefusatzen dutela, haiek direla integratu nahi ez dutenak, eta, gainera, helduengan eta familiengan ere horixe ikusten da". Asteburuetan taldeek toki jakin batean hitzordua izaten dute, eta elkarrekin egoten dira. Horrela, haien arteko, nazionalitate berekoen arteko harremanak sendoagoak dira.

Ikusten da, halaber, taldeak hain zuzen ere nerabezaroan hasten direla osatzen. Ikastetxeak bat datoz esaterakoan atzerriko ikasleak lehenengo hezkuntzan daudenean integrazio osoago bat lortzen dutela, baina derrigorrezko bigarren hezkuntzara zuzenean heldutakoek soilik beren nazionalitateko neska-mutilekin izaten dituzten harremanak, eta oso talde berezituak sortzen dira. Horietako askok, gainera, ez dute parte hartzen eskola-orduez kanpoko jardueretan; esate baterako txangoetan. Eta ez da arazo ekonomikoen

kontua, zeren eta ikastetxeek horrelako kasuetarako finantziazio neurri bereziak aurreikusita baitituzte.

Arriskutsuagoa da ikastetxeren batean atzemandako kontu bat, zeren eta pandillak edo bandak badaudela adierazi baita; familia nazionalen araberako taldeak osatzeaz oso bestelako kontu bat, alegia. Batzuetan gertatzen da gazteek pandillak osatzen dituztela, eta haietan indarkeriarekin lotu samar dauden ohiturak izaten dituztela. “Hamabost urtetara iristen direnean, gerrikoekin elkarri jotzean oinarrituriko errituak dauzkate”. Taldeen arteko borrokak izaten dituzte eta gertatutakoak grabatzen dituzte. Pandilla baten nortasuna markatzeko bereizgarriak erabiltzen dituzte.

6. *Diziplina arazoak.*

Orokorrean, ikastetxeek agertzera ematen dute atzerritarren eta bertakoen arteko desberdintasunik ez dagoela diziplina ezeko ekintzei dagokienez. Ikastetxeetako diziplina ezaren arazoa ez zaio immigrazioari lotzen, beste faktore komun batzuei baizik. Ikasleak aldatu dira; gizartea aldatu da. Ikastetxeen aurkako nolabaiteko errefusa gerta daitekeen eremuetako bat diziplinarena eta ikastetxeko arauekiko errespetuarena da. Inongo ikastetxek ez du adierazi gai horrekin arazo larriak izan dituenik. Badirudi araudi zorrotzekin babestu direla, ongi finkaturiko arauekin, eta horiek zorroztasunez aplikatzen direla, desbideratzeak eragozteko. Diziplina ezerako joera ikuspuntu batzuetatik argiago dago magrebtarren kasuan, beren ohiturei eta tradizioei gehiago heltzen baitiete. Batzuetan gaztelaniaz hitz egiteari ere ezezkoa eman izan diote, eta itzultzaile batengana jo behar izan da.

Atal honetan, janzkera ere aipatu beharra dago, kontuan izanda, betiere, ez dela soilik immigranteengan eragina duen zerbait (beloaren kasuan izan ezik), baizik eta ikasle guztiengan eragina duela.  Ikastetxe batzuetan eta ikuspegi desberdinetatik sortu da: “erakusteko joerako” janzkera (ikastetxe batzuetan “probokatzailea” deitu izan dute); gazte mugimenduekin identifikatzeko janzkera, eta erlijio-loturaren bat duen janzkera (beloa).

“Erakusteko joerako” janzkerari dagokionez, ikastetxe batzuek adierazi dute kezka dutela neska hegoamerikarrek eguberrian janzten diren moduarengatik eta ikastetxe barruko adiskideekiko harremanetan erakusten duten lotsagabekeriarengatik. Ikasle hispanoamerikarren gai kultural bat da, immigranteen elkarteetan ere atzematen

dena. Neskak, nerabezarotik aurrera (14-15 urte), kultura batzuetan “ezkongaiak” dira. Janzkerarekin gizonezkoen arreta erakarri nahi izaten dute[1].

Testuinguru horretan, ikastetxeren batean, honakoa ohartarazi dute: Oharra: Neskek, batez ere hegoamerikarrek, mutilentzat erakargarriago eta menpekoago erakustea, beren herrialdeko “matxismo kulturalari” dagokion gisan, eragin negatiboa izan du generoko berdintasunari buruzko programetan. Neska nafarrek mutilekiko menpekotasun handiagoko rola onartzen ari dira, batez ere atzerritarrekiko harremanetan.

Taldeak identifikatzeko janzkeraren alorrean, ikastetxeak zorrotzak dira (Benjamín de Tudela izan ezik) gorrak, zapiak, eskumuturrekoak eta praka eroriak erabiltzeari ezezkoa ematean, modako zenbait kolektiborekin identifikatzen baitira.

Hirugarren gaia *beloaren erabilerarena* da. Arau komunik ez dagoenez, ikastetxeek beren konponbidea bilatu dute. Plaza de la Cruz BHIan kasu bakarra izan dute, beloa eramaten zuen Aljeriako neska batena, eta ikastetxeak debekatu egin zion: “lehenengo unetik, ez dugu pasatzen utzi, eta horrekin ez dago aurrekaririk. Ez ere ez du eramaten”. Padre Moret BHIan, gurasoen baimena eskatzen dute. Pío Caro Baroja BHIan, ikastetxeak debekatua du ikastetxera beloarekin, gorrekin eta abarrekin joatea. Arazo larriak izan zituzten neska batzuekin, “arauak ez errespetatzeagatik etxera bidali baikenituen”, eta beren gurasoekin. Azkenean, gaia aparkatu egin dute, zeren eta, bestalde, bestelako bereizgarriak zeramatzaten ikasleek ez baitute kexarik aurkeztu eta Hezkuntza Departamentuak esan baitu kasu horretan gailendu behar dena hezkuntza dela, eta ez besterik. Benjamín de Tudela BHIan beloa eramaten duten neska arabiarren talde handi bat dago, eta ez da arazorik sortu; ez da debekatu, ezta ere, “prakak ipurditik behera eramatea”. Guztiei “erabateko askatasuna ematen zaie janzteko”.

Ikastetxeren batetik esan izan digute neska musulman batzuek nahiago dutela ikastetxeak zorrotzak izatea beloa ez onartzearen kontuan, zeren horixe nahi baitute eta

[1] Elkarteei buruzko azterlanaren 4. puntuan, hauxe esaten da: “Neskak asko joan ohi dira kirol kantxetara. Ligatzera doaz eta han dauzkaten aukerak aztertzen dituzte, eta beren burua erakusten dute. Askoz goiztiarragoak dira. Ekuadorren bizi direla iruditzen zaie... Haurdun geratu diren neska asko samar daude, ez dira asko, baina esan nahi dizut toki batean, herri batean, 16 eta 18 urte bitarteko lau badaude, jada datu garrantzitsua dela.”

gurasoei obeditzeko eramen behar izaten baitute beloa.

7. *Familia immigranteek ikastetxeetan parte hartzea.*

Oro har, ikastetxeek ematen duten irudipena da immigranteen familiek ia ez dutela parte hartzen gurasoen elkarteetan, eskola kontseiluetan, ikasmailetako bileretan.

Besterik da tutoreen deialdietara joaten ote diren seme-alaben gaiak aztertzeko. Erantzuna da alderdi horretan ez dagoela ezberdintasun handirik bertakoen eta immigranteen artean. Hala eta guztiz ere, xehetasun batzuk agertu behar ditugu aipatu berri dugun kolektiboa dela eta.

Hegoamerikarren kasuan, gurasoen tutoreen deiari erantzuten diote, eta tutorearengana joan ere egiten dira arazoren batekin topatzen direnean. Hala eta guztiz ere, ama askok zailtasunak izaten dituzte tutoretzetara joateko, lana dela eta.

Aita marokoarrak, oro har, “desagertuta bezala” daude, oso zaila da haiekin telefonoz hitz egitea eta ez dira tutoreen deialdietara joaten. Ikastetxeren batean aipatzen da jaso izanaren agiria dakarren gutuna bidali behar izaten zaiela, deialdia jaso dutela ziurtatzeko.

Europa Ekialdeko herrialdeetako gurasoek Nafarroako gurasoen antzeko jokabideak izaten dituzte.

8. *Immigranteek ikastetxean duten presentziaren eragina.*

8.1. *Ordena eta diziplina.*

Irudipen orokor bat badago, zeinaren arabera immigranteek, oro har, eragin negatiboa izan duten ikastetxeetako bizitzan eta diziplinan, nahiz eta eragin hori maila akademikoan handiagoa izan den.

Ezer baino lehen ohartarazi behar da ikastetxe batzuek diotenaren arabera, immigrazioa alde batera utzita, lan egiteko izpiritua, diziplinak, errespetuak, ikasteko interesak eta abarrek behera egin dutela, oro har, ikasleen artean. “Gizarteak gero eta okerragoak dira”, esan ohi da. Batzuetan, hezkuntza-erreformei egozten zaie errua. “Derrigorrezko bigarren hezkuntza 16 urtera artekoa izateak diziplina arazoak eragin

ditu ikasi nahi ez duten ikasleen artean".

Irakasle askorengan eragina duen motibazio falta arlo guztietako erlaxazio handiagoko giro orokorrari zor zaio. Irakasleak benetako arazoei aurre egin behar izaten die ikasgelan ordenari eusteko.

Horrenbestez, ikastetxeetako diziplinari dagokionez, errua ezin zaio immigrazioari bota. Inongo ikastetxek ez die immigranteei espedienterik zabaldu behar izan huts-egite oso larriengatik. Guztiak bat datoz esaterakoan immigranteen jokabidea bertakoen jokabidearen oso antzekoa dela.

8.2. *Bertakoen matrikulak behera egitea.*

Ikastetxe batzuek adierazi dute ikasleen kopuruak behera egin duela, nahiz eta ez dagoen argi kasu guztietan egitate hori soilik immigranteen presentziari zor zaiola. Beste faktore batzuk badaude. Hala eta guztiz ere, ikastetxeren batek, Padre Moret ikastetxeak esate baterako, aitortzen du lehen seme-alabak ikastetxe horretara eramaten zituzten familia batzuek jada ez dituztela haurrak bertara eramaten. Kasu batzuetan seme-alabak ikastetxetik atera ere egin dituzte. Horrenbestez, gurasoek seme-alabak immigranteen presentzia hain handia ez den ikastetxeetara eramateko aukera daukaten herri edo inguruneetan, hiri nagusietan esate baterako, horixe egiten dute. Horrenbestez, ikastetxe batzuetan gertatzen den ikasle immigranteen kontzentrazioa geldiezinezko fenomenoa da, batez ere haiek bizi diren inguruneko ikastetxeetan.

8.3. *Ikastetxeetako errendimendua.*

Errendimenduaren gaiari dagokionez, era askotako jarrerak daude. Ikastetxe batzuetan ukatu egiten dute errendimendu-mailak eta edukien mailak behera egin dutenik. Iruñeko La Compasión ikastetxe itunduan oso-oso argiak dira: "Egia esateko, errendimenduak ez du behera egin, matrikulek ere ez, eta ez dugu diziplina arazorik izan".

Baina, oro har, ez da hori elkarrizketak aztertuta atera daitekeen ondorioa. Orokorrean, ikastetxeek adierazten dute errendimenduak behera egin duela eta, gainera, logikoa dela horrela gertatu izana, zeren eta ikastetxeak ikasleen egoera errealaren

arabera egokitu behar izan baitira. Laguntza behar duten atzerritarren kopuru handi bat baldin badago –batzuk matrikulatuta daude irakaskuntza derrigorrezkoa delako–, unibertsitatera joateko asmorik ez duena eta, horrenbestez, ikasteko motibazio txikia duena, mailek behera egiten dute. Berriozarko BHIan aitortzen da ikasleen errendimenduak eta irakaskuntza-mailek behera egin dutela zerbait. Plaza de la Cruz BHIan azpimarratzen dute errendimenduak behera egin duela. Behera egite hori, halere, normaltzat jotzen dute, zeren eta ikasleak prestakuntza txikiagoarekin iristen baitira eta, horrenbestez, irakaslea egokitu eta maila beheratzen baitu. Eta hori horrelaxe gertatzen da ikasleek laguntzako irakasleak dauzkaten arren, dibertsitateari arreta emateko eta ikastetxeak daukan maila ez galtzeko. Julio Caro Baroja BHIan 23 herrialdetako ikasleak daude. Institutu horretan ere uste dute errendimenduak behera egin duela, arrazoi oso erraz batengatik: immigranteei "kosta egiten zaie lan egitea". Valle del Ebro BHIan baieztatzen dute errendimenduak behera egin duela "kanpotik etortzen diren ikasleek eskolatze nahiko eskasa daukatelako kasu askotan". Anunciata ikastetxe itunduan ere azpimarratzen dute gaiak polikiago azaldu behar direla eta denbora gehiago eman behar dela gai bakoitzarekin. Halaber, Lizarrako Nuestra Señora del Puy ikastetxean errendimenduak behera egin duela diote: "ikasle immigranteek ikastetxeko batez besteko emaitzak beherantz bultzatzen dituzte".

9. *Ondorioak. Harrera-programei buruzko ebaluazioa.*

1. *Harrera-programak.* Harrera programak ongi diseinatuta hasierako talka-unerako, hain zuzen ere ikaslea lehenbiziko aldiz Nafarroako ikastetxe batean sartzen den lehenengo unerako. Hala eta guztiz ere, zenbait gauza ohartarazi behar dira:

Programetan ez da epe laburreko integrazio jarduerarik aurreikusten. Hau da, jarraipen bat egitea jakiteko ikaslea ikastetxean integratu den ala ez eta zer zailtasun aurkitzen ari den. Ikastetxeek nahiago dute immigranteei arreta berezirik ez eskaini, nahiago dute haiek ez tratatu une jakin batean laguntzaren bat behar izan dezakeen beste edozein ikasle tratatuko luketen moduaz beste modu batera. Horrenbestez, ez dute immigranteei buruzko berariazko neurririk diseinaturik, nahiz eta berez kolektibo horiek ikastetxean ongi bereizita egon. Azpimarratzen dute "hemengo eta kanpoko edozein ikasleri harrera egiteko ekintzak" orokorrak direla.

Harreraren unetik aurrera, uste dute ikaslearen integrazioa modu naturalean gertatzen den prozesu bat dela. Baina ez da horrela. "Lehenengo bi egunak izugarri

onak dira, berritasunarengatik, baina horiek pasatzen direnean ez dago jarraitasunik. Beren jatorrizko herrialdetik heldu berriak diren neska-mutilak dira, eta dolu handi bat pasatzen ari dira, horren barnean ezezaguna zaienaren beldurra eta harremanak izateko beldurra daudela; ez dituzten kodeak ezagutzen, ez dituzte txisteak ezagutzen... Neska-mutil batzuk jolas-orduetan ikasgelan geratzen dira, edo komunean entzerratzen dira, bakardadeagatik edo inorekin ez hitz egitearen, inork haiei arreta ez egitearen sentimendua daukatelako".

2. *"Dolua" gainditzea.* Gomendagarria litzateke ikastetxeko proiektuak aurreikusita edukitzea, mailak esleitzeko eta defizita gainditzeko plan akademiko bat baino gehiago, banakako arretarako plan bat, ikasle immigranteek "dolu-aldia" gainditu ahal izan dezaten. Beren herrialdetik joan dira, beren familiartekoak, adiskideak, dibertsiok, balioak utzi dituzte, eta adiskiderik ez duten eta ia familiarik ere ez duten herrialde batera iritsi dira: hirian barreiatutako jendea dira. Oso garai zaila da, zeinari, agian, ikastetxeek baizik ezin diote konponbidea eman.

3. *Frustrazioari aurrea hartu.* Ikastetxeek egiaztatzen dute ikasle immigrante askok frustrazio handia dutela, eta frustrazio horrek gizartearekiko jokabide oldarkorrak erakar ditzakeela. Ikasle atzerritar askok ikusten dute nola bizi diren hemen bertakoak diren beren ikaskideak, nola dirua daukaten, etxebizitza duina duten –haiek, berriz, askotan, etxebizitza partekatua dute–, familia egituratuta daukaten –ikasle immigranteen kasuan, askotan, aitak abandonatu egin zituen–, lan duinagoak dauzkaten, lanaldi erregularragoarekin. Horri dagokionez, eskolak frustrazio handiko erreakzioak sorraraz diezaieke, eta gorroto-sentimenduak, haiek parte-hartzerik ez duten ongizatearen gizarte horrengatik.

4. *Integrazioaren aurkako erresistentziak.* Kolektibo batzuek, esate baterako marokoarrek, integrazioaren aurkako jarrera erakusten dute, eta erresistentzia argiak ere erakusten dituzte: horixe atzematen da irakasle emakumezkoak errefusatzeko eta beloa eramateko joeran. Integratzeko zailtasun ugari dituzte: uste dute hezkuntzaren bidez haiek kulturalki asimilatu nahi direla eta beren sinesmenak, ohiturak eta tradizioak abandona ditzaten bilatzen dela. Ez dute ikasteko interes berezirik. Orokorrean oso zorrotzak dira beren eskakizunetan. Biktimistak dira. Aita marokoarrak ez dira ikastetxera joateko deia egiten dietenean. Edo ia gaztelaniarik ez dakiten amak joaten

dira. Badakigu, era berean, ikastetxe batzuek baieztatutakoaren arabera, beren adinaren arabera legozkiekeen ikasmailaz beheragoko beste ikasmaila batean matrikulatuta

dauden ikasleek gutxiagotasun argiko egoera horren aurkako errefusa erakusten dutela. Eta horrek aurre egin beharko litzaiokeen arazo psikologiko bat suposatzen du.

5. *Kontraste kulturalen eraginak.* Neska hispanoamerikar nerabeek barne-gatazkako egoera larriak paira ditzakete, eta haien ondorioz Espainian sozialki onartzen ez diren jokabideak izan ditzakete; esate baterako, mutilen batekin ihes egitea, nahi gabeko haurdunaldiak, mutil zaharragoekin bizi diren herritik urrun dauden dibertsio-tokietara joatea. Elkarrizketak aztertuz ondorioztatzen den bezala, neska nerabe hispanoamerikarrek, beren adinean, berehalako proiektu lauso bat dute, ezkondu eta seme-alabak edukitzekoa. Familia bat osatzeko adinean daude. Hori dela eta, harritu egiten dira bertako emakumeek seme-alabak hogeita hamar urterekin dauzkatenean. Horrenbestez, hamabost urterekin "ezkongai" daude, eta beren gustuko mutil baten bila ibiltzeko jokabideak mendetasun handiagoa eragiten die. Era berean, beren herrialdeetan, adin horietan emakumeek familia-ardura batzuk berenganatzen dituzte; esate baterako, anai-arreba adingabeak edo zaharrak zaintzea. Elkarrizketaren batean, adierazi izan da hamabost urterekin neskek ikastetxera joateari uzten diotela, zeren eta etxeko arduradunak izatearen papera hartzen baitute.

Planteamendu horrek talka egiten du nabarmen Espainiako neska nerabeen kulturarekin: beren planetan ez dago familia-ardurak berenganatzea; ez dute ezkontzean pentsatzen; mutilekiko autonomia gehiago daukate; ez dute seme-alabarik edukitzea pentsatzen; harreman sexual irekiak dauzkate, eta haurdun ez geratzeko bitartekoak ezagutzen dituzte.

6. *Berdintasun programetarako arriskua.* Neskak, batez ere hegoamerikarrak, mutilentzat erakargarriago erakustea eta haiekiko mendetasun handiagoa edukitzea, beren herrialdeetako "matxismo kulturalaren" esparruan, eragin negatiboa izan du generoko berdintasuneko programetan. Neska nafarrak mutilekiko mendetasun handiagoko rola ari dira berenganatzen, batez ere atzerritarrekin harremanak dituztenean.

## 2. ANTOLAKUNDEEN ETA ERAKUNDEEN IKUSPEGIA

1. *Sarrera*

Erakunde eta antolakunde batzuk badaude immigranteekin zuzenean lan egiten dutenak. Horiek, izan ere, immigrante nerabeekin lotutako arazoei buruzko beren ezagupenak eta esperientzia erakutsi ahal digute. Gizarte langileei, gizarte hezitzaileei, gazteriaren arloko teknikariei, immigranteei laguntzeko elkarteei, immigranteen elkarteei buruz ari gara

Informazioa lortzeko elkarrizketa pertsonalak erabili dira, honako gaiei buruzkoak:

1) *Etxebizitza eta ingurunea.* Gazteen bizitza soziala neurri handi batean etxebizitzan eta etxebizitzaren ingurunean, auzoan, garatzen da. Ikastetxeak egun jakin batzuetarako erreferentzia bat da. Etxebizitza eta auzoa bizikidetasun tarte luzeetarako eta esperientzia pertsonaletarako eremuak dira. Hortxe sortzen dira, oro har, talde egonkorrak, nahiz eta gaur egun gazteak hirietan nahikoa barreiatuta egon.

2) *Aisiarako eta aisialdirako tokiak.* Harreman sozialetarako esparru murriztuak dira, halaber. Bi motatakoak dira: *bertakoak eta bertakoez gaindikoak.* Bertakoak hirian edo auzoan daude, eta immigranteak egunero joaten dira haietara. Bertakoez gaindikoak herritik edo hiritik kanpokoak dira. Gazteak, immigranteak izan nahiz ez izan, asteburuetan biltzen dira haietan, aisiako jardueretan aritzeko. Askotan, eremu edo tokiei buruz hitz egiten da; beste batzuetan tabernez, diskotekez edo lokal jakin batzuei buruz.

Garrantzitsua da jakitea ea aisiaren eta aisialdiaren bidez bertako gazteen eta gazte immigranteen arteko desberdintasunak berretzen diren; ea hain integrazioa eragozten duten hesiak atzematen diren.

3) *Gazteen bandak.* Gazteen bandarena kontzeptu soziologiko bat da, sarrerako errituak, balio eta sentimendu komun batzuk, beste banda batzuekiko bereizgarri argiak dauzkan talde bateko kidea izatea inplikatzen duena.

4) *Parrokiak* integraziorako gune gisa. Erlijioaren praktika bera eta parrokien inguruan antolatzen diren beste jarduera batzuk –katekesia, esate baterako– integrazioa errazteko baliabide garrantzitsuak dira.

2. *Lortutako lagina*

Immigranteekin lan egiten duten antolakunde eta erakundeak eta elkarrizketatu ditugun pertsonak ondorengo taulan ageri direnak dira:

| *Herria* | *Antolakundea/Erakundea* | *Espezialitatea* |
|---|---|---|
| Iruñeko Zabalgunea | Auzo Unitatea | Gizarte langilea |
| Berriozar | Gizarte Etxea eta Gazte Etxea | Gazteriaren arloko teknikaria |
| Berriozar | Udalen arteko programa | 2 gizarte langile<br><br>2 gizarte hezitzaile |
| Tafalla | Udala | Familia hezitzaile bat |
| Lizarra | Oinarrizko gizarte zerbitzua | Gizarte hezitzailea |
| Cintruénigo | Immigranteei harrera egin eta haiek integratzeko programa | Gizarte langilea |
| Fitero | Immigranteen integrazioa | Programako teknikaria |
| Iruña | SEI elkartea | Esku-hartzearen arloko teknikaria |

Esku hartzeko beste zerbitzu batzuk badaude; esate baterako, EAJA, Agora (bandetan sartutako nerabeekin egiten du lan), Familiaren Zuzendaritza Nagusiaren menpeko Familia Orientabidea, zeinetara bideratzen baitira gazteak edo beren seme-alabekin edo familia biltzeko arazoak dauzkaten familiak. Familian kokaturiko egoerak eta gatazkak islatzen dituzte, baina ez diete bizikidetasuneko arazo orokorrei erantzuten. “Alternativas” elkarteak, zeiena artearen eta kultura artekotasunaren arloko elkartea baita, nerabeekiko proiektuak diseinatzen ditu, eta erreportajeak egiten ditu, internet bidezko irratia, nerabe immigrantean integratzeko jarduerak.

Halaber, talde prebentiboak ere badaude; hau da, udalarekin hitzarmen bat izan eta lan guztiz soziala eta kalekoa egiten duten profesionalen taldeak. Iruñean auzoetan badaude, baina zabalgunean ez. Alabaina, talde horiek gehiago orientatu ohi dira arazoren bat izan dezaketen gazteei arreta ematera, immigranteak izan nahiz ez izan. Ez daude berariaz immigranteei orientatuta, baizik eta populazio osoari.

*3. Etxebizitza eta bizitokien ingurunea.*

Non bizi dira immigranteak? Immigranteek beren egoera ekonomikoaren araberako etxebizitzetan bizi dira. Horretan ez dira familia espainiarretatik desberdinak. Hauxe da, beraz, desberdintasuna: pobrezia, laneko ezegonkortasuna, ezkutuko lana, lortzen dituzten okupazioak eta aurrezteko eta beren familiei dirua bidaltzeko beharra bera direla eta, etxebizitza merkeagoetan bizi dira, maiz hiri eremu andeatuenetan. Hori dela eta, adibidez, eskailera-buru berean, gerta daiteke "5. A etxebizitzan Iruñeko familia bat bizitzea eta 5. B etxebizitzan, berriz, immigranteen familia bat; baina baldintzak ez dira berak: litekeena da Iruñeko familiak etxebizitza berea izatea edo antzinako alokairu bat ordaintzea, esate baterako, eta ondoko etxebizitzan immigranteak 800 euroko edo gehiagoko alokairua ordaintzea, eta hiru familia batera bizi behar izatea" etxebizitzarengatik gutxiago ordaindu ahal izateko.

Immigranteak ez dira auzo edo kale jakin batzuetan metatzen. Immigranteek hiri eremu andeatuago bat hartu duten kasu bakarra Fiterokoa da. Baina azalpen bat badago horretarako. Fiteron, kontzentrazio industrialik ez dagoenez, etxebizitzak askoz ere merkeagoak dira inguruko herrietan baino. Hori dela eta, bertakoek uzten dituzten etxebizitza asko, etxebizitza berriago eta osasungarriagoetara edo bizigarritasun baldintza hobeak dituzten etxebizitzetara joateko, immigranteek hartu dituzte. Cintruenigon, immigranteak herrian barna banatzen dira, baina alokairu merkeko eremu batean immigranteen familia batzuk bildu dira.

Iruñean, immigranteen nolabaiteko kontzentrazioa gertatu da Lezkairun, Bigarren Zabalgunean –esate baterako Tafallako zeharkalean– edo auzo batzuetan. Iruña inguruko zenbait udaletan ere immigrante ugari dago; esate baterako Berriozarren.

Lizarrako eta Tafallako kasuan, elkarrizketatutako pertsonak bat datoz baieztatzerakoan immigranteak han-hemenka bizi direla, eta ez daudela eremu jakin batean metatuta.

Arazoa ez da, beraz, metaturik egotea, baizik eta etxebizitza batean immigranteei alokatutako etxebizitzak daudenean bizikidetasuna zailxeago bihurtzen dela. Eta hori ez da soilik eremu andeatuetako arazo bat, zeren eta etxebizitza gutxi-asko modernoen esparruetan ere gertatzen baita. Bizilagunak kexu izan ohi dira immigranteek zarata handia egiten dutelako, musika altu jartzen dutelako, arropa balkoietan xukatu gabe hedatzen dutelako eta bizilagunen arteko bizikidetasuna zailtzen

dutelako. Hori dela eta, etxebizitzak alokatzeko garaian, jendeak zailtasunak jartzen dizkie, zeren eta gero bizilagunekin arazoak izaten baitituzte.

Jende-pilaketa bestelako arazo bat da. Lehenbizi, jende-pilaketaren kontzeptua mugatu zehaztu beharra dago. Oro har, halakotzat ulertzen da gela berean pertsona bat baino gehiago bizi izatea. Oro har, immigranteen familiak ugariagoak izaten dira bertakoak baino, eta, gainera, ez dira familia nuklearrak, familia zabalak baizik. Hau da, gerta daiteke etxebizitza berean gurasoak, seme-alabak, aitona-amonak eta hurbileko senideren bat batera bizitzea. Pertsona gehiegi egotearen sentsazioa ematen du horrek. Jende-pilaketa maizago gertatu ohi da iritsi berriak izan eta babeslekurik ez duten immigranteen kasuan; halakoetan, izan ere, kalitate gutxiagoko etxebizitzetan pilatu ohi dira eta baldintza okerragoetan bizi ohi dira. Berriozarren, esate baterako, Zortziko, Lakoartea eta San Agustin inguruak aipatu ohi dira. Baina kasu horietan guztietan ez dira nerabeak ageri izaten.

Besterik da bikote bati edo pertsona bati gela bat alokatzen dioten familien kasua. Elkarrizketatutako pertsonen lekukotasunen arabera, maiz gertatzen da alokairu garesti bat ordaintzen duen familia batek gela bat alokatzea; gehienetan, bikoteei alokatu ohi zaizkie horrelakoak. Elkarrizketetan ere, etxebizitza partekatuei buruz hitz egiten da: “azkenean, hamar edo hamabi pertsona bizi dira pisu berean, batzuetan gazte nerabeak ere tartean direla”.

Gizarte langileek etxebizitzaren egoerari buruzko txosten bat egin behar izaten dute familia batera biltzea eskatzen denean, baina ez dute jende-pilaketaren kasurik topatzen, nahiz eta ongi dakiten halakoak egon badaudela. Gizarte langileek ere informazioa ematen dute immigranteak gizarteratzeko alokairuko etxebizitzen kasuetan.

Laburbilduz, jende-pilaketara iritsi gabe ere, etxebizitza batzuk badaude non gela bakoitzean bikote bat eta batzuetan haur txiki bat ere bizi baitira, betiere etxebizitzako toki komunak konpartituz. Baina sekula ere ez dira “ohe beroen” edo antzekoen kasuak aipatzen. Horrenbestez, egoera horretan egon daitezkeen nerabeenak kasu isolatuak dira, gehien bat.

Immigranteen nolabaiteko errefusaren bat gertatzen ote da bloke edo auzo berean bizitzeagatik? Elkarrizketatu ditugunetatik batek baino gehiagok dio immigranteekiko errefusa sor eta ezkutuko bat badagoela, eta krisiaren ondorioz errefusa hori areagotu ere egin dela, zeren eta pentsatzen baita immigranteek betetzen

dituztela bertakoei legozkiekeen lanpostuak. Baina, oro har, baieztatzen dute bertakoak eta immigranteak mundu paraleloetan bizi direla. “Elkarri begiratzen diote nolabaiteko goganbeharrarekin”. Ez diote elkarri aurka egiten, eta segregaziorik ere ez dago: bi mundu dira, besterik gabe.

Aurreko puntuetan eginiko azterketatik ondorio garrantzitsu batzuk atera daitezke aztertu nahi dugun xederako.

1. Etxebizitzak nerabeengan, immigranteak izan nahiz ez izan, izan dezakeen eragin psikologikoa handia izan daiteke gazteak bere etxebizitza eta bere auzoa ikasten dihardueen ikastetxeko ikaskideenekin alderatzen dituenean.

2. Immigranteekiko errefusa sor bat badago, zeren eta horiek gutxi deseatutako bizilaguntzat jotzen batira.

3. Immigrante musulmanen kasuan, kolektiboen pilaketa ezkongabeak direnean gerta daiteke.  Baina familia eratuen kasuetan edo emakumeak daudeneko kasuetan, etxebizitzetan familia-unitate bakarra egoten da. Printzipioz, emakumea estalirik egon beharra dauka familiatik kanpoko gizonezkoak daudenean. Hori eta familiari buruzko sinesmen sendoak direla eta, ez da haien artean jende-pilaketarik edo bigarren alokairurik gertatzen.

4. *Bandak eta aisialdiaren erabilera*

Bandaren kontzeptu soziologikoak honako esanahia dauka: gazteen talde antolatuak, egitura hierarkiko ez-formalekin, sartzeko errituekin eta gizartetik bereizteko jantzi eta ekintzekin (esate baterako, musika, janzkera eta beren presentzia eta, batzuetan, beren helburuak, adierazteko ekintzak).

Ikuspuntu horretatik, ez dago jasota Nafarroan ezaugarri horiek dituzten immigranteen banda sozialki ikusgarririk dagoenik, nahiz eta “Latins” deitutakoen erreplika lauso batzuk ageri izaten diren, erreferentziako banden ezaugarri jakin batzuekin. Halakoek, tarteka, arazo batzuk sortu izan dituzte. Banden existentziaren adierazgarririk argiena da argi eta garbi halakotzat jotzen diren jarduerak egiaztatzea. Elkarrizketatuetatik gutxi dira gogoan dutenak banda gatazkatsuen existentzia. Gehien bat, horiei buruz ·”hitz egiten entzun dute”. Iruñean, immigranteen pandillek sorturiko gatazka bat gertatu zen behin Donibane auzoan. Badirudi gaur egun sarrera-erritu gogorrak –esate baterako, “astinaldi bat jasatea”– dituen bandaren bat badagoela.

Lizarran, udaltzaingoaren informazioen arabera, ez dago jasota ezertxo ere gertatu denik... “pintadarik ere ez da ageri”. Halere, Gazteriari buruzko Azterlanean (2009), elkarrizketatu batek “Perdición Urbana” izeneko banda latino bati buruz hitz egin zigun. Autobus geltoki zaharraren inguruan ibiltzen da. Tafallan, immigranteen talderen batek pintada batzuk egin zituen. Cintruenigon, bertakoen talde baten eta immigranteen talde baten arteko gatazka bat izan zen, hormetan agertu ziren pintada batzuen ondorioz. Gatazka ebatzi egin zen. “Gizarte zerbitzuek pintadak egin zituzten bi taldeetako kideen familiei hots egin zien”. Haiekin akordio batera iritsi zen: erkidegoaren aldeko lan batzuk egitea, pintadak ezabatuz.

Horrenbestez, ez dago banda oso ikusgarririk. Elkarrizketatuek diote askoz ikusgarriagoa dela nerabe immigranteak alde batetik joatean eta bertakoak beste alde batetik. Talde misto gutxi daude.

5. *Dibertitzeko tokiak.*

Zein tokitan egoten dira immigranteak aisialdian? Printzipioz ohartarazi beharra dago immigranteek kolektiboek jarrera desberdinak dituztela aisialdia etxean edo etxetik kanpo pasatzeari dagokionez. Esate baterako, badirudi magrebtarrek joera txikiagoa dutela eremu irekietan (plaza, taberna edo kaleetan) taldeetan agertzeko. “Magrebtarrei dagokienez, ezin da oso ongi jakin gazteak eta nerabeak non garatzen diren: familia-bizitza handia egiten dute eta bisita asko egiten dizkiete lehengusu-lehengusinei eta familiartekoei. Gazteak ez dira taberna edo kafetegietara joaten, etxekoagoak dira (immigranteak hartu eta integratzeko programako teknika).

Erreferentziako lau eremu daude, non gazteak elkartzen baitira beren aisia eta aisialdia igarotzeko:

1. Alokatutako etxabe edo “gelak” (Cintruénigo). Gazteak maiz joaten diren tokiak bai hirian bai herrietan, eta ia bertako gazteek baino ez dituzte erabiltzen. Gainera, gero eta ugariagoak dira. Hori dela eta, udal batzuek, gurasoek eskatuta, beren buruari planteatu diote kontrolik gabeko etxabeetako jaien arriskuak moteltzeko gazteentzako zentroak sortzeko beharra. Horixe da, esate baterako, Cintruenigoren kasua.

13-14 urte dituztenetik, nerabeak etxabeen bila hasten dira. Kuota bat ordaindu beharra dago, eta, orokorrean, immigranteek ezin dute halakorik ordaindu. Antzina pisuetan izaten ziren goatekeetatik heldu dira, zeren eta familiek asteburuetan beren saletan

neska-mutilen taldeen presentzia jasateko prest ez baitzeuden, beren musika, zarata, jateko, helduentzako harreman harrigarri eta abarrekoekin. Nolabaiteko pandilla batzuetan oinarrituta sortzen dira. Esate baterako: herrietako jaietarako sortzen diren “peñak”, musika-gustu komunak dauzkaten taldeak, familia-sareak, ikastetxeetan elkar ezagututako gazteak eta abar. Lokal horietan aisialdia kontsumitzeko modua faktore askoren araberakoa da. Baina ez da hori ikerketa honetako gaia.

2. Eremu irekiak, batez ere gazte immigranteek erabiltzen dituztenak. Ez dute kuota bat ordaindu beharreko kiroldegi edo zentroetara sartzeko modurik. Iruñean, Gurutze plaza da aipatzen den tokietako bat. Berriozarren, Eguzki plaza eta San Agustin. Lizarran, Los Llanos; Tafallan, plaza (bulgariarrak toki batean, latindarrak beste batzuetan); Cintruenigon, kirol pistak. Kirola sarrera libreko eremuetan egiten dute: udalek erabiltzeko moduan jartzen dituzten ikastetxeetako kirol pistak eta patioak eta beste eremu ireki batzuk, non immigranteek beren lehiaketak antolatzen dituzten.

3. Gaztentzako zentroak edo gizarte etxeak. Jardueren bi ardatzen inguruan antolatutako zentroak dira: a) jarduera irekiak, batez ere jolasak (mahai-futbola, mahai-jokoak, ziber-aretoa eta abar; b) programatutako jarduerak: ikastaroak, dantzak, aerobic, sabel-dantza, dantza erregionalak, makillajea, pintura, manikura, txangoak. Gazteen intereseko gaiei buruzko hitzaldiak, gatazken konponbidea eta abar. Lehenbizikoetan guztiek hartzen dute parte. Antolatutako jarduerak gizonezkoen eta emakumezkoen jardueren estereotipoaren arabera egin ohi dira.

Gazteentzako etxeak immigranteak joan ohi diren toki bat dira. Cintruenigoko Gazte Klubaren kasuan, berriz, aipatzen da immigranteak ez direla bertara joaten. Gero eta irekiagoak daude kanpoko pertsonentzat. Immigranteek baliabideak gehiago erabiltzen dituzte, edo ezagutzen hasi direlako edo beldurrak eta zalantzak galdu dituztelako (Lizarra). Tafallan gauza bera gertatzen da. Gazteentzako etxeei dagokionez, nabarmena da mutilek gehiago parte hartzen dutela haietan. Neska marokoarrak ia azaldu ere ez dira egiten.

Immigranteen presentzia alde batera utzita, Berriozarko zentroan arazoak izan dira, eta momentuz itxita dago. Tafallako zentroa, berriz, gune bizi bat da. Bertara gazte immigranteak maiz joaten dira, eta jardueretan bertakoekin batera hartzen dute parte. Hala eta guztiz ere, nolabaiteko joera dago taldeek, beren naziotasunaren arabera, beren gustuekin bat datozen jarduerak egiteko eta jarduera horietan haiek bakarrik parte hartzeko. Berdin gertatzen da hegoamerikarren artean ere, errazago integratzen baitira.

Aipatzen da, esate baterako, bulgariarren kasua: “hemen denbora asko daramaten arren, beren hizkuntzan hitz egiten jarraitzen dute; orduan, zailagoa da beste pertsona batzuekin nahastea”.

4. Familien etxeak, non, batez ere, gazte musulmanak elkartzen baitira.

5. Tabernak. Tabernak gazteentzako topagune paraleloak dira. Nazionalitate bakoitzeko nerabeak maiz beren taberna batean elkartzen dira. Honakoak dira horretarako bi arrazoiak: lehenbizi, nolabaiteko urruntze bat gertatzen da nazionalitateen artean: haien artean diferentzia ugari daude eta tabernetan jartzen duten musika ere desberdina da. Hegoamerikarra taberna latinoetara joaten da, non dantza eta salsa gisako musika jartzen duten. Hala eta guztiz ere, ez dirudi hori distantzia sozialaren edo talde nazional batzuen eta besteen arteko axolagabekeriaren ikuspuntutik interpretatu behar denik, baizik eta egitate kultural baten gisara. Norbera gehien gustatzen zaio tokira joaten da. Cintruenigon gazteentzako taberna bat ireki zuten. Hain zuzen ere, haiengatik kezka zuten gurasoen ekimenez sortu zen. Baina immigranteak ez dira joaten.

6. Familietako jaiak: urtebetetzeak eta bestelako ospakizunak. Eremu horretan, urruntzerik handiena gertatzen da. Gazte immigranteak ez dituzte gonbidatzen bertakoen jai familiarretara. Litekeena da hori zor izatea jaietako taldeak jada aurreko urteetatik ezarrita egoteari. Baina immigranteak ez onartzeari buruzko hipotesia egiazkoa izateko aukera handiak daude.

7. Azkenik, berez espazioei buruz hitz egiterik ez badago ere, auzoetako elkarteek eta beste elkarte batzuek –esate baterako, parrokiek, aisialdiko kultur zerbitzuek, gizarte hezitzaileek eta ikastetxeek berek– aukera puntual batzuk eskaintzen dituzte aisiako eta aisialdiko jarduera ugari egiteko, eta hain zuzen ere gazte guztiek haietan parte hartzeko aukera daukate. Normalean ez dira soilik immigranteei zuzendutakoak izaten.

Immigranteen jokabide kolektiboetan, egitate bat badago zeinak immigranteak bertakoetatik bereizten baitira: neskek taldeetan jokatzen duten papera. Neska hispanoamerikarren kasuan, heldutasun kultural goiztiarra daukatenez eta helduak edo anai-arreba txikiak zaintzeko rol familiarrak berenganatzen dituztenez, presentzia txikia dute aisialdiko eremuetan. Baina daukaten presentzia ere pasiboagoa da, nazionalitate horietako immigranteek bereizgarri duten “matxismo” kulturalaren ondorioz. Nahiago izaten dute kasuko jardueran parte hartzen ari diren beren mutilei begiratu eta txalo egin beraiek zuzenean hartan parte hartu baino.

6. *Aisialdian egiten dituzten jarduerak.*

Mutilek futbola eta neskek saskibaloia eta eskubaloia. Jarduera horietan bertakoak eta immigranteak integraturik egotea errazago suertatzen da, zeren eta talde onak osatzeko elkarren premia baitute. “Orain zenbait urte, latinoen taldeak zeuden, baina gaur egun nahastuta daude” (Lizarra). “Breaka” (pirueten jokoak) Tafallan zabaltzen ari dira, esate baterako; gauza bera gertatzen ari da boladan jarri diren beste jarduera sasi-kirolezko batzuekin (“baranden gainean salto egin, bankuen gainean salto egin...”). Udalek, halaber, ikastetxeen arteko kirol txapelketak antolatzen dituzte, eta immigranteek haietan parte hartzen dute.

Aisiako eta aisialdiko jarduerek arrisku larri batzuk dauzkate neskentzat. Neskek, 15-16 urte dituztenean, kulturalki prestatuta daude ezkontzeko eta familia bat izateko. Beren jatorrizko herrialdeetan normala da hori. Baina kultura horrek talka egiten du gure herrialdeko kulturarekin. Hala eta guztiz ere, nerabeek, institutuek eta gizarte hezitzaileek dioten bezala, 15 urterekin, familia osatzeko eta ezkontidea bilatzeko joera naturalaren arabera jokatzen dute. Neska horiek gazte bat topatzen dutenean, beren kulturakoa izan nahiz ez izan, gazte “helduen” aisia-aukerak eskaintzen dizkiena, motoan edo kotxean joanez aisialdiko eta aisiako aukera zabalagoak dituzten beste herrialde batzuetara, arriskuak areagotu egiten dira.

## 3. IMMIGRANTEEN ELKARTEEN IKUSPEGIA

1. *Sarrera.*

Immigranteen elkarteak iturri on bat dira nerabeen integrazioa ezagutzeko, zeren eta zuzenean baitaude harremanetan beren nazionalitateko immigranteen kolektiboarekin, beren kideek parte hartzen duten jarduerak antolatzen baitituzte —jarduera horiek, batzuetan, gazteei zuzendutakoak dira— eta arazoak hurbiletik bizi baitituzte.

Immigranteen elkarte ugari daude. Litekeena da herri batean herrialde bereko elkarte bat baino gehiago egotea. Jarduera batzuk egiteko laguntzak eta dirulaguntzak lortzeko eratu ohi dira. Horregatik, batzuetan, elkarte beren arteko lehiak egoten dira. Zail gertatu zaigu elkarteekin harremanetan jartzea, edo helbideak eta egoitzak askotan aldatzen dituztelako, edo telefonoak beti itzalita daudelako, edo maiz elkartea zuzentzen duten pertsonal aldatzen direlako, edo, azkenik, elkarte batzuk desagertzen eta beste batzuk sortzen direlako. Elkarteetako lehendakariek askotan ordutegi oso irregularrekin egiten dute lan, eta denborarik ere ez dute izaten beren elkarteari ordu batzuk dedikatzeko.

Ikerketa honetarako, honako elkarteekin jarri garra harremanetan:

| Izena | Herria | Nazionalitatea |
|---|---|---|
| Casa Latina elkartea | Cintruénigo | Askotarikoa |
| Contigo Perú elkartea | Iruña | Perutarra |
| Inti Raymi elkartea | Azkoien | Ekuador |
| Asociación de Ecuatorianos | Iruña | Ekuador |
| Immigranteen Elkarteen Koordinadora | Nafarroako erdialdea | |

2. *Immigranteek elkarteetan parte hartzea.*

Elkarte guztiek aitortzen dute immigranteek parte-hartze oso eskasa dutela jardueretan. Lehenbizi, ez direlako kide egiten, zeren eta kuota txiki bat ordaindu behar baita eta kosta egiten baitzaie diru hori jartzea haientzat errentagarritasun txikia duen jarduera baterako. Antolatutako ekintzetan, elkarteko kideen beraien presentzia

ere txikia izaten da. Gehiago hartzen dute parte festa jakin batzuk antolatzen direnean edo seme-alaben bat intereseko ikastaroren batean matrikulatu denean.

Hain zuzen ere haur txikienak dira gehien parte hartzen dutenak; esate baterako, ikastetxean proposaturiko jarduerak egiteko eskola osagarrietan edo laguntzako eskoletan.

Guztiek baieztatzen dute nerabeen parte-hartzea ia deuseza dela, zeren eta zentroek aukerarik ere ez baitute haientzako eskaintza erakargarri bat egiteko. Immigranteen arazoak alde batera utzita, bai elkarteek, bai langileek eta gizarte hezitzaileek diote herrietan nerabeak aspertu egiten direla, zeren eta dibertitzeko baliabiderik ez baitute. Maiz, beste herri batzuetara edo Iruña edo Tutera bezalako hirietara joatea hautatzen dute.

Azkoienen, elkarteek immigranteentzako gela bat daukate Udaleko kultur etxean; hartan elkartu ahal dira ikasteko edo lanak egiteko, bai eta, kasua bada, prestakuntza irekiko ikastaroak egiteko: dantzak, informatika ikastaroak eta abar.

3. *Nerabe immigranteen integrazioa elkarteen ikuspegitik.*

Elkarteek hiru integrazio mota bereizten dituzte: txikitan heldu diren immigranteena, hemengo bizitza sozialean egokitu diren nerabeena eta, azkenik, familia batera bitzeko prozesuen ondorioz iritsi eta dolu-etapa batean daudenena.

Lehenengo kasuan, ez da arazorik atzemateen.

Gure gizartean bizi eta hartan egokituta dauden nerabeen kasuan, integrazioa gurasoen integrazioaren simetrikoa da. Hau da, gizartearen barruan bizi dira, baina bere bizitzaren zati bat gizartearen aldean modu paraleloan garatzen dute.

Hirugarren kasuan, arazoak larriak dira, eta ez zaie beren konplexutasun osoan heltzen. Egia da ikastetxeek ikasturtean zehar hezkuntza sisteman sartzen diren nerabeentzako harrera programak dauzkatela. Baina, lehenengo une hori iraganda, nerabeari kalte handi samarra egin diezaiokeen hutsune bat dago. Ikus dezagun zergatik:

Lehenengo, beste herrialde batetik heldu den nerabeak nolabaiteko konplexuarekin etorri ohi da. Espainiara bizimodu baten bila joan ziren gurasoen semea den nerabea bere herrian geratu da, eta atzematen du bere gurasoek joan behar izan zutela pobreak zirelako eta lana beren lurretik kanpo bilatu beharrean aurkitzen

zirelako. Egoera hori, elkarrizketaren batean ikusten denaren arabera, apalkuntza baten moduan bizi ohi da.

Bigarrenik, nerabeak Espainiara iristen direnean, beren jatorrizko herrialdetik irteteagatik gainditu beharreko doluaz gainera, hemen beste apalkuntza modu batzuk pairatu behar izaten dituzte. Gurasoak, orokorrean, errenta baxueneko gizarte taldeetakoak dira, eta, batzuetan, immigrantearen izaera ikusarazten duten etxebizitzetan bizi dira.

4. *Nerabeak non elkartzen diren.*

Beste ezer baino lehenago, adierazi beharra dago berez nerabe direnak ez direla hainbeste eta gizartean oso barreiatuta daudela, ez baitira eremu jakin batean bizitzen.

Azkoienen, esate baterako, lanbide heziketako eskolako kirol pistan biltzen dira, udalak familien eskura jarri baitu. Bertan, batez ere, Ekuadorko immigranteak elkartzen dira. Ez dira soilik nerabeak elkartzen, familia osoak baizik. Lehiaketak egiten dituzte, jai eta bazkariak antolatzen dituzte.

Immigranteen kolektiboen jarduerak, nerabeenak barne direla, udalek lagatako eremu irekietan egiten dira, oro har. Jokoak garrantzi handia dauka. Batzuetan, joko nazionala da, “ecuaboley” deitzen dutena, esate baterako. Beraien arteko txapelketak antolatzen dituzte.

Immigranteen kolektibo desberdinen arteko harremanak areagotzea ekarri duen jarduera bat “Kukuso Igandea” deitzen dutena da, “kukuso merkatua” alegia (Cintruénigo), non immigranteek, batez ere trukearen sistemaren bidez, produktuak saltzen eta erosten dituzten. “Neska abokatu bat ere etortzen da, boluntario, eta kalean eserita erantzuten die jendearen kontsultei”.

Jarduera-multzo horretaz gainera, batez ere asteburuetan, tabernak eta diskotekak badaude. “Eskualdean diskoteka latino batzuk badaude, zeinetara espainiar ugari ere joaten baitira, neska latinoak oso ederrak direlako.” Horrelako diskoteketan arazoak sortzen dira, zeren eta 15 eta 16 urteko nerabeetatik hasi eta 40 urteko gizonetaraino joaten baitira. Maiz horrelako giroetan izan ohi diren borrokak gertatzen dira.

Immigranteek egiten dituzten jarduera guztiak ez dituzte bertakoetatik bereizita egiten. Bereziki, zenbait taberna eta diskoteka lightetan –alkoholik zerbitzatzen ez denetan–, zibernetika zentroetan eta abarretan ere elkartzen dira.

Oro har, immigrante hispanoamerikarrei kalez kale joatea eta beren herrikideekin kalean elkartzea.

“Arabiarrak integratzen nekezagoak dira... toki batean elkartu eta, esate baterako, arabiera eskolak ematen dituzte, hemen bizi diren haurrentzat”.

Nesken aisiako eta aisialdiko estiloen kasuan, elkarteetakoak beste behatzaile batzuekin bat datoz esaterakoan neskak pasiboagoak direla eta kiroletan gutxiago parte hartzen dutela. Elkarrizketatu batek gauza garrantzitsu bat ohartarazi digu: “Neskak asko joan ohi dira kirol kantxetara. Ligatzera doaz eta han dauzkaten aukerak aztertzen dituzte, eta beren burua erakusten dute. Askoz goiztiarragoak dira. Ekuadorren bizi direla iruditzen zaie... Haurdun geratu diren neska asko samar daude, ez dira asko, baina esan nahi dizut toki batean, herri batean, 16 eta 18 urte bitarteko lau badaude, jada datu garrantzitsua dela.”

5. *Errefusaren pertzepzioa eta benetako errefusa.*

Orokorrean, elkarteetan ez zaie iruditzen immigranteak gizartean integratzen ez direnik. Integratzen direla uste dute, batez ere ikastetxeen bitartez eta kirol jardueren bitartez. Errealitatea hobekien definitzen duen kontzeptua da bertakoekin nolabaiteko erraztasunez “nahasten direla”; integratzearena, berriz, gai konplexuagoa da.

Hala eta guztiz ere, nolabaiteko errefusaren pertzepzioa argia da elkarrizketatu gehienentzat. Bi errefusa mota bereizten dituzte: Lehenengo errefusa heldu da immigrante gazteek beste ezaugarri etniko batzuk dauzkatelako, larru-kolore desberdina dutelako, hitz egiteko beste modu bat dutelako, janzteko eta apaintzeko beste modu bat duelako, dibertitzeko eta harremanak izateko beste modu bat dutelako.

Nerabeak pertzibitzen du, gainera, iritsi den gizarte hau ez dela berak espero zezakeen gizarte abegikorra. Izan ere, bazterturik sentitzen da larruaren kolorearengatik, janzkerarengatik, bere burua adierazteko moduengatik. Daukan prestakuntza-maila ere ez da egokia bere adineko ikaskideekin batera aritzeko. Beti ikasmaila bat beherago jartzen dute. Hezkuntza sistema ere desberdina da. Hemen garrantzi handiagoa ematen zaie puntualitatea, diziplina eta garbitasuna bezalako alderdiei.

Elkarrizketatu gehienen arabera, errefusaren pertzepzioa handiagoa da mutilen kasuan nesken kasuan baino.

> Bestalde, bertakoak ere immigranteengandik bereizten dira. “Errefusa erdibana partitzen dute: immigranteek bertakoak errefusatzen dituzte, eta bertakoek immigranteak”.

6. *Nerabe immigranteen artean pandillak sortzea.*

Elkarrizketatuek, orokorrean, ez dira pandillei buruz hitz egiten, baizik eta elkarrekin ibili eta pandilla itxura duten mutilen taldeei buruz. Hala eta guztiz ere, elkarrizketatutako batzuen arabera, pandillak egon badaude, nahiz eta ez eduki beste erkidego edo hiri batzuetan eraso egiteko izan dezaketen gaitasuna. “Iruñean, pandillak egon badaude, eta orain dela lauzpabost urte existitzen direla esan dezaket”. Testigantza batzuen arabera, elkarren aurkako pandilla batzuk badaude (Latin Kings versus Gerrilleros de Cristo Rey), nahiz eta momentuz lasai samar egon.

## 4. IMMIGRANTEEN INTEGRAZIOA UDALEN IKUSPUNTUTIK

1. *Sarrera.*

Udalak informazio iturri on bat dira, batez ere jakiteko gazte immigranteek aisialdia eta aisia nola erabiltzen duten, taldeen artean zer arazo dauden, udalek zer bitarteko jartzen dituzten aisiarako eta aisialdirako eremu kontrolatu eta seguruak izan ditzaten, zer kiroletan parte hartzen duten, indarkeriazko ekintzen berri baduten edo pandilla gatazkatsurik ba ote den.

Bestalde, udal batzuek profesional bat edukitzen dute gazteen kirol jardueraren arduradun, eta ikuspegi horretatik jakin dezakete ea nerabe immigranteak udalek sustatutako kirol jarduaretan inplikatzen diren ala ez.

Bertakoek eta immigranteek kirol-jardueretan parte hartzea, bai jarduera programatuetan, bai borondatezkoetan, immigranteen kolektiboek gure gizartean lortu duten integrazio mailaren adierazgarri argia da. Eta adierazle bereziki garrantzitsua da gazte nerabeen kasuan.

2. *Lagina.*

Lagin selektibo bat da. Kontuan hartu dira haur immigrante eskolaratuen ehuneko handiena daukaten udalak, eskualdeka banatuta. Iruñeko eskualdean, informatzaileak eskuratzeko zailtasuna dela eta, Berriozar hautatu da, bertan 20 nazionalitate baino gehiago elkarrekin bizi baitira.

| Udala | Elkarrizketatutako pertsona | Erantzukizuna |
|---|---|---|
| Castejón | Lourdes Mauleón | Gazteriaren arloko ordezkaria |
| Berriozar | Susana Aldaba<br>Josu Aldaba | Gazteriaren arloko ordezkaria<br>Kirolen arloko ordezkaria |
| Cintruénigo | Lorenzo García<br>Gazteriaren etxeko etxezaina | Kirolen arloko ordezkaria |
| Lizarra | Marta Estébanez<br>José Antonio Mauleón | Gazteriaren arloko ordezkaria<br>Kirolen arloko ordezkaria |
| Azkoien | Toño Alonso | Gazteriaren arloko ordezkaria |
| San Adrián | Aurora Pérez Zurbano | Gazteriaren arloko ordezkaria |
| Tafalla | Miguel Angel<br>Pablo Bolea | Gazteriaren arloko ordezkaria<br>Kirolen arloko ordezkaria |
| Tutera | Fernando Ferrer Molina | Gazteriako zinegotzia |

3. *Gazteen aisiarako eta aisialdirako eremuak egotea.*.

Ba al dituzte gazteek eremu fisiko batzuk non elkarrekin egon eta jarduerak egin ahalko dituzten?

Honakoa da udalen erantzuna:

*Tutera:* Lestonnac Gazteriaren Etxea. Gizarte zentroa.

*Tafalla:* Gazteriaren etxe bat du 2005etik, ia egunero irekia, asteburuak barne direla.

*San Adrian:* Gazteriaren etxe bat badu, martxan hastekotan dagoena.

*Lizarra:* Gazteriaren etxe bat badu.

*Cintruénigo:* Gazteentzako zentro bat dauka.

*Berriozar:* Gazteriaren etxe bat badu, nahiz eta aldi baterako itxita dagoen, gazteen talde batekin izandako arazoaren ondorioz.

*Castejón:* Gazteriaren etxea eraikitzen ari dira.

4. *Gazteriari buruzko azterlanak*

Gazteengatiko kezka toki mailan, gazteen premiak asetzera orientatutako jardueren plangintza egin ahal izateko, egin diren azterlan ugaritan azaleratzen da. Azterlan horietan, beti ageri dira immigranteekin lotutako informazio batzuk, nahiz eta ikerketa honetan aztertu ditugun azterlan batzuen arabera, ezer berririk ez dieten gehitzen Nafarroako gazteriari buruzko azterlanetan lortutako ondorioei.

Tuterakoa eta Lizarrakoa dira gazteriari buruzko azterlanak egin dituzten udalak (azterlan horiek, izan ere, ikerketa honetan hartu ditugu kontuan).

Berriozarko Udalak ere azterlan bat egina dauka, baina ez digu ikerketa honetarako eskuratu nahi izan, zeren eta, dioenaren arabera, hartan ez baitira immigrazioarekin lotutako arazoak aztertzen. Castejongo Udalak ere gazteriari buruzko azterlan bat egin du. Haren edukia ezagutzeko, gazteentzako informazioaren arloan lan egiten duen Pedro Yanguasengana bidali gaituzte (ezin izan dugu azterlan hori kontuan izan).

5. *Udalek egiten dituzten jarduerak:*

*Tutera:* Jarduerak “Espacio Joven” programaren bitartez egiten dira. Programa hori, berriz, enpresa pribatu batek kudeatzen du. “Espacio Joven” animazio soziokulturaleko programa bat da, 12 eta 30 urte bitarteko gazteei zuzendua eta Lestonnac Gazteriaren Etxean, gizarte etxean, egiten dena. Hor gazteak eta ziberespazioa lotzen dituen jarduerak topa daitezke; teknologia berriak eskura: sareko jolasak, doan nabigatzea; arlo ludiko-sortzailea: mahai jokoak eta tailerrak; txangoak; musika; tebeoteka (mailegu-zerbitzu batekin eta komikiarekin munduarekin lotutako jarduerekin; eta ate irekiak: laguntza profesional eta irekia kezkak eta interesak bideratzeko (Europako herrialdeekiko trukeak, ekimenak, eskakizunak...

Gainera, “Activa-T” eta “Otras Noches” programak badaude.

Gazteen parte-hartzea, orokorrean, “oso txikia” da. “Gazteriaren etxera gehien bat immigranteak etortzen dira. Mutilak, batez ere. Joaten diren immigrante gehienak marokoarrak dira. “Ijitoak” ere joaten dira.

*Tafalla:* Udalak gisa askotako jarduerak antolatzen ditu (mahai-jokoak, talde-jokoak, internet, joko zibernetikoak). Jarduera batzuk aldian behin baizik ez dira egiten (antzerkia, musika eta dantzak, bradance eta abar).

Zentrora joaten direnak asko dira, immigranteak zein bertakoak. Halaber, parte-hartzea berdin handia da mutilen zein nesken artean. Parte hartzearen indize altu hori zor zaio, batez ere, Tafallako immigrante gehienak bulgariarrak izateari; izan ere, kolektibo hori bertakoekin hobekien integratzen dena da.

*Lizarra:* Gazteentzako animazio programak, ikastaroak eta tailerrak, teknologia berriak, ziberrak, informatikako tailerrak.

Gazteentzako zentroko parte-hartzea ertaina da. Gazte nafarrak gehiago joaten dira immigranteak baino. Gazte musulmanen artean, gehien joaten direnak mutilak dira.

*Cintruénigo:* Jarduerak neguan antolatzen dira batez ere. Honakoak eskaintzen dira: mahai-tenisa, mahai-futbola, karaokea, mahai-jokoak, folklorea.

Parte-hartzea: ia soilik bertakoek hartzen dute parte.

6. *Bandak edo pandillak egotea.*

Udal bakarrak ere ez du adierazi bandak edo pandillak daudenik. Udalen batean, immigranteen "koadrilak" aipatzen dira.

7. *Immigranteak elkartzen diren tabernak edo tokiak egotea.*

Udal bakarrak ere ez du aipatzen soilik immigranteak elkartzen diren tabernak daudela. Kasuren batean aipatzen da immigranteak tabernaren batera joaten baldin badira haien herriko musika jartzen dutelako dela. Baina taberna horiek ixten dituztenean, guztiak taberna irekietara joaten dira.

8. *Nerabe immigranteen delitu-ekintzak.*

Inongo udalek ez du aipatzen immigranteen indarkeriazko ekintzarik izan denik, tokiko poliziak esku hartu beharrekorik. Borroka txikiak bai izan dira, baina garrantzi handirik gabekoak. Kasuren batean –esate baterako, Tuteran–, esaten da "giroa

delikatuagoa eta gatazkatsuagoa dela, baina ez dela poliziaren esku-hartzerik izan". Cintruenigon aipatzen dute "komentatu dela labana ateratzeraino iritsi dela batzuetan, baina sustoak baizik ez direla izan".

9. *Kirol jardueren bitartezko integrazioa.*

Udal batzuek profesional batzuk badauzkate –udalaren ordezkariak– kirol jarduerak antolatzeaz arduratzen direnak. Jarduera horietan, izan ere, nerabe immigranteek parte har dezakete.

Parte-hartzea programatzen den jarduerarekin lotuta dago. Immigranteek sekula ere parte hartzen ez duten jarduera bakarrak senderismoa, naturaz gozatzeko irteerak eta txangoak dira.

*Lizarra:* Bi jarduera mota bereizten dira:

*a) Udalak aurkeztutako jarduerak.* Udalak antolaturiko lehiaketetan "nazioarteko" taldek hartzen dute parte; hau da, nazionalitate desberdinetako jokalari immigranteek osatutakoek. Joan den urtean, udalak babes ekonomikoa ematen zuen immigranteek antolatutako txapelketa baterako. Aurten ez dute eskatu udalak parte hartzea.

b) *Immigranteen taldeen artean antolatutako jarduerak.* Kirol lehiaketak antolatzen dituzte, boleibolekoak, futbol 7koak.  Gehien bat immigrante ekuatortarrek antolatzen dituzte, eta haien parte-hartzea oso altua da. Giroa sortzen dute, familiak ere bertara joaten direlako. Jokoa bi kategoriatan banatzen dute: gizonezkoak eta emakumezkoak. Immigrante marokoarrean parte-hartzeari dagokionez, gizonezkoek baizik ez dute parte hartzen.

*Tafalla:* Immigranteek gutxi parte hartzen dute bertakoekin partekatutako kirol jardueretan. Kiroleko ordezkariaren arabera: "Integrazioa jokoaren edo jolas-jardueren bitartez lortzen da. Eskariaren araberako jarduerak. Programa honako izen hau dauka: "Immigranteei abegi egin eta haiek integratzea". Haren barrenean, nerabeentzako atal bat dago, Gazteriaren Etxean zentratua; atal horretan, haiekin egiten da lan (gazteekin), jokoaren bitartez, eta jolasa immigranteak integratzeko baliatzen da".

*San Adrian:* Eskolako kirolean, neska-mutilen % 90ek hartzen du parte. Padel, frontenis eta kros txapelketak eta ginkanak egiten dira.

Immigranteen kolektiboek, beren aldetik, futboltxo txapelketak antolatzen dituzte toki irekietan. Ez dute instalaziorik behar.

*Azkoien:* Gazteek, batez ere ekuatortarrek, hiriko futbol klubetan hartzen dute parte. Aitzitik, eskolako kirolean ia ez dute egiten. Immigranteen taldeen artean antolatutako kirol jarduerei dagokienez –batez ere aretoko futbola– parte-hartzea ertaina da.

*Berriozar*. Herri horretan, herriko kirol klubetan immigranteek duten parte-hartzea ertaina da, mutilen kasuan, eta txikia emakumeen kasuan.

*“Kirol eskoletan”*, immigranteen parte-hartzea, bertakoekin alderatuta, oro har txikiagoa da. Gimnasia erritmikoan baizik ez da gertatzen antzeko parte-hartzea neska nafarren eta immigranteen artean. Immigranteek perutarren eta senegaldarren arteko futbol txapelketak antolatzen dituzte.

*Castejón.* Mutilen parte-hartzea, edozein kirol arruntetan, handia da. Neskena, berriz, txikia edo deuseza da. Garrantzi handia dute udal horretan, non marokoarrak nagusi baitira, immigranteen arteko futbol txapelketak, udalak lagatako zelaietan egiten direnak. 34 talde daude. Neskek ez dute parte hartzen.

*Cintruénigo.* Hiriko kirol-kluben parte-hartzea ertaina da; nafarren parte-hartzea, berriz handia da. Udalak antolatutako txapelketen kasuan, parte-hartzea txikia da. Alabaina, immigranteen taldeen artean antolatutako lehiaketetan (futbola, ekuaboleya), parte-hartzea handia da.

10. *Arazoak konpondu eta immigranteak integratzeko programak.*

Udal batzuek adierazi dute Gizarte Ongizate Departamentua arduratzen dela berariazko gai horietaz. Beste batzuek diote udalek azpiegiturak (gaztediaren etxeak) lagatzen dituztela bertakoak bil daitezen. Tafallako Udalen azpimarratzen dute “integrazioa jokoaren eta jolas-jardueren bitartez” gauzatzen dela. Eskariaren araberako jarduerak. Programa honako izen hau dauka: “Immigranteei abegi egin eta haiek integratzea”. Haren barrenean, nerabeentzako atal bat dago, Gazteriaren Etxean zentratua; atal horretan, haiekin egiten da lan (gazteekin), jokoaren bitartez, eta jolasa immigranteak integratzeko baliatzen da”.

Cintruenigoko Udalean aipatzen dute programa bat badutela: *“Cintruenigoko eta Fiteroko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateko immigranteei abegi egiteko eta haiek integratzeko programa”*.

Castejongo Udalean adierazten dute kulturen arteko jardunaldi batzuk antolatzen dituztela, eta oso efektiboak direla.

## 5. NERABEEN INTEGRAZIOA PARROKIEN IKUSPUNTUTIK

Immigrante ugari dauden herrietako parrokiak nerabeen behatoki egokia izan daitezke, batez ere, immigrante hegoamerikarren kasuan, apaizek familiekin harremanak izaten dituztenean edo nerabeentzako jarduerak antolatzen dituztenean.

Galde-sorta bat bidali zaie ikastetxeetan inkestan egin diren herritako parrokia guztiei. Honako herritako parrokia batzuek erantzun digute: Lizarra, Azkoien, Tafalla, Tutera, Castejón eta Cintruénigo.

Gazteekin lan egiten duten parrokoen edo apaizen erantzunak honako puntuetan laburbil daitezke:

1. Gazteak, immigranteak nahiz atzerritarrak izan, parrokiatik urruntzen dira Sendotzaren sakramentuaren aurretiko katekesi aldia amaitzen denean. Une horretatik aurrera, parrokiako jarduerak utzi ohi dituzte. Nerabezaroaren aurreko etapan ere, parte-hartzea oso txikia izaten hasia da.

2. Gazte immigranteen eta bertakoen arteko integrazioa oso trinkoa da haurtzaroan. Une horretatik aurrera, talde nazionalak eta immigranteen taldeak elkarrengandik urruntzen hasten dira pixkanaka. Honako testigantza oso esanguratsua da: “Haurtzarotik nerabezarora eta gero gaztarora pasatzen doazen neurrian, integrazio-mailak behera egiten du jarduera guztietan. Beren nazio-taldean biltzen joaten dira”.

3. Immigranteen taldeak, ixten doazen neurrian, beren tabernetara eta beren dibertsio-guneetara joaten dira. Aisiako eta aisialdiko jarduerak beraiek antolatzen dituzte. Osatzen dituzten koadrilak guztiz itxiak dira eta, gainera, nazionalitateen araberakoak dira.

4. Arabiarren taldeei buruzko berariazko komentario batzuk badaude. Hurrengo testigantzak laburbilduta jasotzen du parroko batzuen iritzia: “Musulmanekiko bizikidetasuna egon badago, baina integrazioa, berriz, ez da gertatzen. Kulturak eta harekin lotutako alderdi guztiek, bereziki familia-inguruneari dagokionez, oso zail egiten dute arabiarrak gainerakoekin integratzea... Nabarmena da nerabe eta gazte musulmanen artean ere ez dagoela

talde mistorik; sekula ez dira gizonezkoak eta emakumezkoak elkarrekin ikusten”.

5. Parrokoek ez dute atzeman gazte immigranteen pandilla arriskutsuak sortu direnik. Kasu bereziak egon daitezke, betiere.

# HIRUGARREN ZATIA

# NAFARROAKO GAZTERIARI BURUZKO AZTERLANAK

## GAZTE IMMIGRANTEAK NAFARROAKO GAZTERIARI BURUZKO AZTERLANETAN

1. *Sarrera.*

Azken urte hauetan, zenbait azterlan egin dira Nafarroako gazteriari buruz. Horietako batzuek informazioak jasotzen dituzte gazteek immigranteei buruz daukaten jarreraren inguruan. Iturri horiek interesgarritzat jo ditugu gazte nerabeak gure gizartean integratzearen arazoa ikuspegi zabalago batetik aztertzeko[2].

*2. Nafarroako gazteriari buruz eginiko azterlanak.*

*2.1 2001eko azterlana. Azterlana: Nafarroako Estrategia (Nafarroako Gobernua).*

Honakoak dira Nafarroako gazteek dauzkaten bost arazo nagusiak:

| | |
|---|---|
| Langabezia | 51,8 |
| Etxebizitza | 50,7 |
| Droga | 39,8 |
| **Immigrazioa** | **30,7** |

Inkestako beste une batzuetan gazteei galdetu zaie Nafarroak hemendik 25 urtera izanen dituen arazoei buruz. Honakoak dira erantzunak:

| | |
|---|---|
| Langabezia | 45,2 |
| Etxebizitza | 31,7 |
| Droga | 32,6 |
| **Immigrazioa** | **42,1** |

[2] Oro har, beste ikerlan batzuen artean, honako azterlana ere kontsulta daiteke: COLECTIVO IOE, (2005): “Ciudadanos o Intrusos. La opinión pública española ante los inmigrantes”, *Papeles de Economía Española*, Fundación de las Cajas de Ahorros. 104. zk., 194-209 or.

Erantzunetatik ezin da ondorioztatu gazteen artean jarrera xenofoboak daudenik, baina argi dago immigranteak Nafarroarentzako arazo gisa atzematen dituztela, eta ez aukera gisa.

2.2. *Unibertsitate Publikoak Nafarroako Gazteriari buruz 2005ean eginiko azterlana (Nafarroako Kutxak eginiko azterlana, Luis Sarriés Sanzek zuzendua).*

Honakoak dira pertsonalki gazte nafarrengan gehien eragiten duten arazoak:

| | |
|---|---|
| 1. Etxeko indarkeria | 64,4 |
| 2. Etxebizitza | 40,3 |
| 3. Lana aurkitzeko zailtasunak | 38,4 |
| 4. Nazioarteko terrorismoa | 33,3 |
| 5. ETAren terrorismoa | 28,6 |
| **6. Arrazakeria** | **27,9** |
| 7. Drogak | 27,1 |

Honakoa da immigrante berriak sartzeari buruz gazteek daukaten jarrera:

| | BAI | EZ |
|---|---|---|
| Immigranteen sarrera mugatzearen alde daude | % 67,5 | % 32,5 |

Nafarroako gazteek immigranteak beren herri edo auzoetan egoteari buruz egiten duten balorazioari dagokionez, honako datuak ageri dira:

Aintzat hartutako itemek bidea ematen dute gazteak immigranteei buruz duen profil kognitiboa definitzeko. Pertzepzio orokorrena da immigranteak erkidegoan gutxi integratuta daudela. Hau da, immigranteek joera dute biltzeko eta integratzeko jatorri, kultura, bizimodu, tradizio gastronomiko eta abar berak dituzten pertsonen erreferentziako taldeetan. Norbert Elias soziologo ezagunak zabal aztertu zuen fenomeno hori Winston Parva[3] izenekoan. Biztanle tradizionalek outsiderren moduan pertzibitzen dituzten immigranteak. Joera dago erabateko gizarteratzea bigarren belaunalditik aurrera

[3] 3 ELIAS, N.,(1965) *The Established and the outsiders. A sociological enquiry into community problems.* Sage Publications. London

gertatzeko. Horrenbestez, immigrantearen “asimilazio” eta “kulturizazio” prozesu luze bat gertatzen da. Nafarroan, oraindik ere immigranteak hartzeko fasean gaude.

Immigranteari, gizarteratze prozesuan sar dadin, sarrerako atalase moduan oinarrizko gizarte jokabide batzuk eskatzen zaizkio: bizikidetasunek arazoak ez sortzea, langile fina izatea eta osasungarritasuneko eta bizigarritasunek gutxieneko baldintza batzuetan bizitzea; hau da, jende-pilaketa saihets dezan.

Galderaren planteamendua eta lortu diren erantzunen guztizko zenbatekoak bidea eman du immigranteen profil desberdinak definitzeko, eta profil horiek estereotipo batzuk egituratzen joaten dira; haien bitartez, izan ere, kolektibo bakoitzeko kideak baloratzen ditugu:

Adierazleen multzo horren bidez gazteek immigranteak, beren bereizgarriekin, ebaluatzeko erabiltzen duten estereotipo kognitibora hurbiltzen gara.

*Gazte immigranteei buruzko ebaluazioa*

| | Hegoamerikarrak | | Europa Akildekoak | | Arabiarrak | | Saharaz hegoaldeko beltzak | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | Bai | Ez | Bai | Ez | Bai | Ez | Bai | Ez |
| 1. Langile finak dira | 64,2 | 35,8 | 65,2 | 34,8 | 36,7 | 63,3 | 82,3 | 17,7 |
| 2. Pilaturik bizi dira, balintza txarretan | 49,4 | 50,6 | 40,3 | 59,7 | 67,8 | 32,2 | 58,4 | 41,6 |
| 3. Bizikidetasun arazoak sortzen dituzte | 40,2 | 59,8 | 40,1 | 59,9 | 65,7 | 34,3 | 24,4 | 75,6 |
| 4. Ez dira herrian edo auzoan integratzen | 47,4 | 52,6 | 46,7 | 53,3 | 51,2 | 48,8 | 40,5 | 59,5 |
| 5. Ona litzateke immigrante gehiago ez etortzea | 50,1 | 49,9 | 46,9 | 53,1 | 61,8 | 38,2 | 42,3 | 57,7 |
| 6. Ona litzateke immigranteen kopurua kontrolatzea | 85,1 | 14,9 | 80,5 | 19,5 | 90,9 | 9,1 | 72,3 | 27,7 |

Saharaz hegoaldeko beltzak hobekien kontsideratzen den taldea da, zeren eta gainerakoak gainditzen baitituzte “langile finak” izatean (gainerako immigranteak nabarmen gaindituz), bizikidetasunarekin lotutako arazo gutxien sortzen dituztenak dira eta, azkenik, gainerako taldeak baino hobeki integratzen dira erkidegoetan.

Arabiarrak dira okerren ebaluatzen direnak. % 63,3k uste du ez direla langile finak; pilaturik bizi dira baldintza txarretan; bizikidetasuneko arazoak sortzen dituzte.

*Immigrazioaren fenomenoaren aurreko jarrerak*

Gazteek ez dute immigrantea pertzibitzen beraiengan eragina duen arazo baten gisara. % 11,3k baizik ez du esatean immigranteak beren auzo edo herrian egotea haiengan eragina duen arazo pertsonal bat denik. Baina bai ulertzen dute immigranteen presentzia arazo sozial bat dela. Hori dela eta, elkarrizketatutako gazteen % 67,5 "Immigranteen sarrera mugatzearen alde daude"[4]. Aldi berean, gazteek uste dute beren herriko edo auzoko pertsonek uste dutela "ona litzatekeela immigrante gehiago ez etortzea":

| Zure herriko edo auzoko pertsonek honakoa uste dute: | Hegoamerikarrak | | Europa Akildekoak | | Arabiarrak | | Saharaz hegoaldeko beltzak | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | Bai | Ez | Bai | Ez | Bai | Ez | Bai | Ez |
| Ona litzateke immigrante gehiako ez etortzea | 50,1 | 49,9 | 46,9 | 53,1 | 61,8 | 38,2 | 42,3 | 57,7 |
| Ona litzateke hainen kopurua kontrolatzea | 85,1 | 14,9 | 80,5 | 19,5 | 90,9 | 9,1 | 72,3 | 27,7 |

Taulak agertzera ematen duen bezala, arabiarrak dira gutxien nahi diren immigranteak. Gainera, inkestatutako ia guztiek (% 90,8) uste dute ona litzatekeela haien kopurua kontrolatzea.

[4] *Euskal Gazteria 2004* azterlanean, honakoa ageri da: "interesgarria da azpimarratzea euskal gazteen erdia baino gehiago (%57) immigrante atzerritarrak hartzerakoan nolabaiteko kontrolak ezartzearen aldekoa dela, sartzeko aukera emateko soilik lan kontratu bat daukatenei" (131. or.)

2.3. *Tuterako gazteei buruzko azterlana: 2006 (Sigma 2k Tuterako Udalerako eginiko azterlana)*

*Gazteek immigranteen sarrera mugatzearen aurrean daukaten jarrera*

| | % alde | % aurka |
|---|---|---|
| Tuterako Gazteria 2000 | 53,7 | 31,3 |
| Nafarroa 2004 | 45,7 | 38,7 |
| Espainia 2004 | 44,7 | 41,8 |
| **Tutera (15 eta 19 urte bitarte)** | **35,7** | **46,4** |

Horri dagokionez, gizonezkoak (%55,7) emakumezkoak (% 51,6) baino neurri horren aldekoagoak dira.

Ondoren, zenbait gai planteatzen ditugu, bertako gazteen eta gazte immigranteen artean dagoen "distantzia soziala" ikusteko.

Distantzia sozialari buruzko galde-sortak interesgarriak dira pertsonek beste talde batzuk onartzen edo errefusatzen dituzten jakiteko; oraingoan, immigranteei aplikatu zaie. Ez dute islatzen immigranteen errefusa sakonik dagoenik.

Gazteen diskurtsoan "hutsegitea" beti besteari, immigranteari egozten zaio, zeren eta esaten baitute "beraiek direla integratu nahi ez dutenak", "beste nafar bat" izan nahi ez dutenak.

Immigranteak historiarik gabeko gizabanakotzat hartzen da, une honetan onargarriak ez diren "ohitura" batzuk dituena. Immigranteek jasotzen dituzten laguntzek eta erakunde batzuetara sartzeko daukaten lehentasunak eragiten dute Tuterako gazteak beren lurretan bazterturik sentitzea. Immigranteek beren taldeak osatzea eta horietara "ez hurbiltzea" esaten ari garenaren sintoma bat dira. Immigranteekin haiek ezagutu gabe hitz egiterik ez dagoela esaten den arren, haien bizkar uzten dute balizko hurbilketaren auzia: "haiek dira hurbiltzen ez direnak", "haiek dira integratzen ez direnak", "haiek beren ghettoak sortzen dituzte".

"Halako beldur" bat dago indarkeria motaren bat sortuko ote den, esate baterako, berdinen taldeak osatzen diren establezimendu batzuetara joaten diren gazteekin (identitatearen sendotzea inplikatzen baitu horrek); izan ere, establezimendu horietan alkohola eta drogak egoten dira eta horiek oldarkortasuna eta indarkeria errazten dituzte.

Immigranteen (zenbait immigranteren) halako beldur bat dago. Esate baterako, *Latin Kings* deitutakoek beren lurraldea markatzen dute eta "erasokorrak" izan daitezke; beste immigrante batzuek "ez dakite edaten" eta beren ohituretan indarkeriak ez dauzka gure herrialdean dauzkan konnotazio negatiboak (eta zigorrak).

2.4. *Lizarrako gazteei buruzko azterlana (2009). "Item" taldeak egina.*

Lizarran dauden beste nazionalitate batzuetako gazteak, 15 eta 29 urte bitartekoak, 566 dira. Talde horrek gazteen kolektiboaren % 21 egiten du. Halere, ezin da jo kolektibo hori inolaz ere talde homogeneo bat denik bere ezaugarri sozial eta kulturaletan. Taldeen artek diferentziak gazteriaren bizitzako esparru eta testuinguru desberdinetan berresten dira gure gizartean. Gazte atzerritarren erdia baino gehiago (% 62) latinoamerikarrak dira. Gainerakoak kolektibo minoritarioagoak dira; besteak beste, magrebtarrak, batez ere marokoarrak, eta neurri txikiagoan Saharaz Hegoaldeko afrikarrak (% 2).

Gazte latinoamerikarren % 63 Ekuadortik heldu dira. Beste batzuk, berriz, Kolonbiatik (% 15,3) eta Bolibiatik (% 6,7).

Azterlanaren ondorio nagusiak honako puntuetan laburbildu ditugu:

1. Immigrazioa dibertsitate soziokulturaleko iturri bat da, eta aukera ematen du herriak, harrerako sozietate gisa, dauzkan usadioez bestelakoak dituzten kultura batzuetako pertsonekin harreman sozialak izateko. Txosten honen hasieran jada ikusi genuen bezala, Lizarran, 2009ko erroldaren arabera, 15 ea 29 urte bitarteko 566 gazte immigrante bizi dira, zeinek herriko gazteen populazioren % 20 inguru egiten baitute. Gehienak (% 62) Amerika Latinotik –batez ere, Ekuadortik (% 62)– eta Europar Batasunetik heldu dira, eta neurri txikiagoan Magrebtik (Marokotik, batez ere) eta Saharaz Hegoaldeko Afrikatik. Gainera, beste kolektibo txikiago batzuk ere badaude. Izan ere, herriko BHIan bertan, 20 nazionalitatetako gazteak daude, orain dela 10 urte pentsaezina zena.

Immigranteen taldeen aurreko jarrerei dagokienez, diskurtso-logika zehatz batzuekin lotutako jarrera desberdinak atzeman daitezke. Beren diskurtsoetan kolektibo horrekiko bazterkeriazko jarrerak islatzen dituztenen artean ere, desberdintasunak ageri dira, jarrera horren mailaren arabera:

- Sakoneko diferentziak dauzkate estatus juridikoaren arabera (“ez gara berdinak”) jatorri kulturalaren arabera (tradizioak, gizarte harremanak eta abar) eta egoera ekonomikoaren arabera. Fenotipoak, ezaugarri fisiko desberdinetan islatzen denak, aurreko kausak indartzeko balio du.
- Immigranteek bertakoek baliatzen dituzten zerbitzu eta ekipamendu berak baliatzen dituzte, eta lehia sozialerako beste iturri bat dira, dagoen oreka soziala hausten baitute.
- Haien sarrera kontrolatu eta asimilazio politikak aplikatu behar dira.

Diskurtso horien aurrean, aitorpen eta integrazio sozialarekin lotuago dagoen logika bat islatzen dutenek, beste jarrera batzuk dauzkate:

- Pertsonen kolektiboen arteko jatorri kulturalaren araberako diferentziak baino gehiago, pertsona guztiek partekatzen dituzten eskubideak atzematen ditugu.
- Truke kulturala baloratzen da, jatorri desberdinetako pertsonen arteko harremanen dibertsitate kultural handiagoa.
- Tratu berdintasunaren alde lan egin daiteke, eskubide unibertsalak eta munduko eskualde desberdinen artean dauden diferentziak oinarri hartuta.

Gai horiek aukera ematen dute jatorrizko gizarteko herritarrek immigrazioari buruz egiten dituzten diskurtsoak berariaz baloratzeko, kolektiboaren irudi estereotipatua islatzen duten “onen” eta “txarren” dikotomiak gaindituz.

Bestalde, herriko gazteen diskurtsoan, immigranteen jatorri sozial eta kulturalen arteko diferentziak islatzen dira. Neurri batean, kolektibo batzuek beren sare sozialak

herrikideekin eratzen dituzte gehiago bertakoekin baino, integraziorako eta aitorpen sozialerako bide gisa. Kolektibo bakoitzak integraziorako bere estrategiak ezartzen ditu, jatorriaren, migrazio proiektuaren, familiaren posizioaren edo harrerako gizartek harreman batzuetarako bidea izatearen arabera. Horrenbestez, jasotako informazioaren arabera, talde bakoitzak posizio desberdin bat dauka harreman sozialetarako mekanismoak sortzeko garaian:

- Gazte magrebtarren artean, gizonezkoen presentzia handiagoa da emakumezkoena baino. Gainera, emakumezkoak ikusezinagoak dira ezkonduz gero. Harremanak eta sare sozialak kasuko herrian dauden nazionalitate bereko eta jatorri soziokultural bereko pertsonekin eratzen dituzte.

- Gazte latinoamerikarren kasuan, esan beharra dago gehienak ekuatortarrak direla, eta nabarmena dela sare sozialak nazionalitate bereko gazteekin eratzeko daukaten joera.

Saharaz hegoaldeko Afrikatik heldu diren gazteen kasuan, ordea, erraztasun handiagoa dute sare sozialak, harremanak eta loturak ezartzeko kasuko herriko gazteekin.

# LAUGARREN ZATIA

# KONTRASTEKO IKASTETXEAK

## KONTRASTEKO IKASTETXEAK

1. *Sarrera.*

Nafarroako Arartekoaren erakundeari proposaturiko azterlanean aurreikusita ez bazegoen ere, ikerlarien taldeak egokitzat jo du ikustea ea immigranteen aldeko edo aurkako jarreretan desberdintasunik ba ote den immigranteak badauden ikastetxeetako ikasleen eta immigranteen presentziarik ez dagoen ikastetxeetako ikasleen artean. Laburbilduz: ikasleek immigranteekin bizikidetasuneko harremanik ez baldin badute ere, immigranteekiko jarrerak egunero immigranteekin bizi diren ikasleen jarrera berak dira.

Helburu hori lortzeko, immigranterik ez dagoen ikastetxeetako lagin bat hautatu dugu, emaitzak immigrantean dauden ikastetxeetan lortutako emaitzekin alderatu ahal izateko.

Garrantzitsua da aipatzea guztiei galdetegi bera banatu zaiela, hain zuzen ere immigranteak dauden ikastetxeetako azterlanean aplikatu zena. Analisian kontuan hartuko dira soilik batzuen eta besteen jarrerak alderatzeko garrantzitsuak diren galderak.

2. *Laginaren osaketa eta aldagai independenteak*

*Hautatutako zentroak eta ikasleen kopurua*

Hiru ikastetxe itundu eta bi institutu hautatu dira

| | Maiztasuna | Baliodunen ehunekoa |
|---|---|---|
| Tuterako San Francisco Javier ikastetxea | 52 | 23,6 |
| Iruñeko San Ignacio-Jesuitas ikastetxea | 58 | 26,4 |
| Tafallako Escuelas Pías ikastetxea | 44 | 20,0 |
| Lizarrako Politécniko BHIa | 16 | 7,3 |
| Iruñeko Navarro Villloslada BHIa | 50 | 22,7 |
| Guztira | 220 | 100,0 |

220 ikasleren lagina nahikoa adierazgarria da, bai kopuruarengatik, bai banaketa geografikoarengatik ere. Azterlan orokorrean inkestatutako ikasle espainiarrak 453 izan dira.

Laginaren banaketa geografikoari dagokionez, honakoak dira emaitzak:

| | Maiztasuna | Baliodunen ehunekoa |
|---|---|---|
| Lizarra | 16 | 7,3 |
| Tafalla | 44 | 20,0 |
| Tutera | 52 | 23,6 |
| Iruña | 108 | 49,1 |
| Guztira | 220 | 100,0 |

Lagina ikastetxe publiko eta itunduetan daukan banaketari dagokionez, berriz:

| | Maiztasuna | Baliodunen ehunekoa |
|---|---|---|
| Publikoa | 66 | 30,0 |
| Itundua | 154 | 70,0 |
| Guztira | 220 | 100,0 |

Laginaren ikasmailen araberako banaketa:

| | Maiztasuna | Baliodunen ehunekoa |
|---|---|---|
| DBHko 1.a | 58 | 26,4 |
| DBHko 2.a | 123 | 55,9 |
| DBHko 3.a | 23 | 10,5 |
| Batxilergoko 1.a | 16 | 7,3 |
| Guztira | 220 | 100,0 |

P 1. *Laginaren sexuaren eta adinaren araberako banaketa.*

a) *Sexua.*

| | Maiztasuna | Baliodunen ehunekoa |
|---|---|---|
| Gizonezkoa | 120 | 54,5 |
| Emakumezkoa | 100 | 45,5 |
| Guztira | 220 | 100,0 |

b) *Adina.*

| Adina | Maiztasuna | Baliodunen ehunekoa |
|---|---|---|
| 13 | 5 | 2,3 |
| 14 | 89 | 40,5 |
| 15 | 39 | 17,7 |
| 16 | 19 | 8,6 |
| 17 | 12 | 5,5 |
| 18 | 3 | 1,4 |
| 12 | 53 | 24,1 |
| Guztira | 220 | 100,0 |

*Zein ikasmailatan dauden:*

*a) Kontrasteko taldea.*

| | Maiztasuna | Ehunekoa |
|---|---|---|
| DBHko 1.a | 58 | 26,4 |
| DBHko 3.a | 123 | 55,9 |
| DBHko 4.a | 23 | 10,5 |
| Batxilergoko 1.a | 16 | 7,3 |
| Guztira | 220 | 100,0 |

*b) Immigranteak dituzten ikastetxeetako ikasleak*

| Adina | Maila | Espainia |
|---|---|---|
| 13 urte | DBHko 1.a | 5 |
| | DBHko 2.a | 7 |
| | DBHko 3.a | 1 |
| 14 urte | DBHko 1.a | 3 |
| | DBHko 2.a | 4 |
| | DBHko 3.a | 131 (% 87,9) |
| | DBHko 4.a | 11 |
| 15 urte | DBHko 2.a | 3 |
| | DBHko 3.a | 52 (% 28,9) |
| | DBHko 4.a | 94 (% 52,2) |
| 16 urte | DBHko 2.a | 1 |
| | DBHko 3.a | 9 |
| | DBHko 4.a | 50 (% 46,3) |
| | Batxil. 1.a | 48 |
| 17 urte | DBHko 2.a | 6 |
| | DBHko 3.a | 1 |
| | DBHko 4.a | 13 |
| | Batxil. 1.a | 20 |
| | Batxil. 2.a | 9 |
| 18 urte | DBHko 2.a | 7 |
| | DBHko 4.a | 1 |
| | Batxil. 1.a | 2 |

P 4. *Non jaio zara?*

Aztertutako ikastetxeetan atzerritarren kuota txiki bat ere bazegoen. % 86,8a Espainian jaiotakoak dira; % 5,5 Ekuadorren, eta gainerakoak (% 7,7) beste herrialde batzuetan.

| | | Maiztasuna | Baliodunen ehunekoa |
|---|---|---|---|
| Baliodunak | Espainia | 190 | 86,8 |
| | Ekuador | 12 | 5,5 |
| | Best.herrialdeak | 18 | 7,7 |
| Guztira | | 220 | |

**Non jaio zara? * Sistema**

| | | Sistema | |
|---|---|---|---|
| | | Publikoa | Itundua |
| Espainia | Kontaketa | 46 | 144 |
| | | % 70,8 | % 93,5 |
| Ekuador | Kontaketa | 9 | 3 |
| | | % 13,8 | % 1,9 |
| Peru | Kontaketa | 1 | 0 |
| | | % 1,5 | % ,0 |
| Kolonbia | Kontaketa | 1 | 2 |
| | | % 1,5 | % 1,3 |
| Brasil | Kontaketa | 1 | 1 |
| | | % 1,5 | % ,6 |
| Dominkar Errepublika | Kontaketa | 2 | 1 |
| | | % 3,1 | % ,6 |
| Errumania | Kontaketa | 0 | 1 |
| | | % ,0 | % ,6 |
| Bulgaria | Kontaketa | 3 | 0 |
| | | % 4,6 | % ,0 |
| Venezuela | Kontaketa | 1 | 0 |
| | | % 1,5 | % ,0 |
| Argentina | Kontaketa | 1 | 1 |
| | | % 1,5 | % ,6 |
| Mali | Kontaketa | 0 | 1 |
| | | % ,0 | % ,6 |

P 7. *Elkarrizketatuen erlijioa.*

Ikerketa taldeak uste du erlijioa faktore garrantzitsua izan daitekeela immigranteekin tolerantzia gehiago edo gutxiago izateko garaian.

% 86,1ek bere burua kristautzat jotzen du; % 11,1ek dio ez inongo erlijiorik ez dutela. Inkesta orokorrean lortutako emaitzekiko aldea garrantzitsua da, sinestunen ehunekoari dagokionez (7,2 puntu). Garrantzitsuagoa da, oraindik ere, inongo erlijiorik ez dutela baieztatzen dutenen aldea (8,5 puntu).

Inkesta orokorrean, non ikastetxe publikoak nagusi baitziren, % 78,9 ziren bere burua kristautzat jotzen zutenak; inongo erlijiorik ez zutenak, berriz, % 19,6 ziren.

| | | Maiztasuna | Baliodunen ehunekoa |
|---|---|---|---|
| | Kristaua | 186 | 86,1 |
| | Ortodoxoa | 1 | ,5 |
| | Musulmana | 2 | ,9 |
| | Ezer ez | 24 | 11,1 |
| | Besterik | 3 | 1,4 |
| | Guztira | 216 | 100,0 |
| Galdutakoak | Sistema | 4 | |
| Guztira | | 220 | |

Hurrengo taulak ikastetxe publiko eta ikastetxe itunduen arteko aldeak erakusten ditu. Horietan, % 97,4k kristautzat jotzen du bere burua.

**Zein da zure erlijioa? * Sistema**

| | | Sistema | | Guztira |
|---|---|---|---|---|
| | | Publikoa | Itundua | |
| Kristaua | Kontaketa | 38 | 148 | 186 |
| | | % 59,4 | % 97,4 | % 86,1 |
| Ezer ez | Kontaketa | 23 | 1 | 24 |
| | | % 35,9 | % ,7 | % 11,1 |

P 12. *Ikasten diharduen ikastetxetik gehien gustatzen zaizkion gauzak.*

Ikaskideak dira, zalantzarik gabe, ikasleek gehien eskertzen duten faktorea.

| | | Maiztasuna | Baliodunen ehunekoa |
|---|---|---|---|
| Baliodunak | Irakaslea | 16 | 7,3 |
| | Ikaskideak | 106 | 48,4 |
| | Giroa, oro har | 75 | 34,2 |
| | Instalazioak | 4 | 1,8 |
| | Etxetik hurbil egotea | 15 | 6,8 |
| | Besterik | 3 | 1,4 |
| | Guztira | 219 | 100,0 |
| Galdutakoak | Sistema | 1 | |
| Guztira | | 220 | |

Azterlan orokorrean ikasle espainiarrei buruz lortutako datuek ez dute diferentzia nabarmenik erakusten. Irakasleak hobeki baloratzen dira (% 7,5); balio altuenak, berriz, ikaskideen (% 53,7) eta giro orokorraren (% 33,5) kasuetan lortzen dira.

Ikastetxe publiko eta itunduen artean diferentziarik badago.

**Kontingentzia-taula: Zer da ikasten diharduzun ikastetxetik gehien atsegin zaizuna?* Sistema**

| | | | Sistema | | Guztira |
|---|---|---|---|---|---|
| | | | Publikoa | Itundua | |
| | Irakasleak | Kontaketa | 1 | 15 | 16 |
| | | | % 1,5 | % 9,8 | % 7,3 |
| | Ikaskideak | Kontaketa | 35 | 71 | 106 |
| | | | % 53,0 | % 46,4 | % 48,4 |
| | Giroa, oro har | Kontaketa | 20 | 55 | 75 |
| | | | % 30,3 | % 35,9 | % 34,2 |

P 14. *Eskolako ordutegiaz kanpoko harremanetarako adiskideen taldea.*

Elkarrizketatuen % 68,6k nafarrekin eta % 16,4k nafarrekin eta atzerritarrekin izaten ditu harremanak eskolako ordutegiaz kanpo.

Azterlan orokorrean, % 58,3k nafarrekin ditu eskolako ordutegiaz kanpoko harremanak, eta % 16,7k, berriz, nafarrekin eta atzerritarrekin.

Ehunekoetan nabarmenak dira soilik nafarrekin harremanak dituztenen arteko aldeak. Aitzitik, nafarrekin eta atzerritarrekin harremanak dituztenen ehunekoak ia berdinak dira.

P 15 *Nola sentitzen da ikaslea ikasten dihardun ikastetxean?*

Datuak txarxeagoak dira immigranteen presentzia handiagoa den ikastetxeetan ikasten duten ikasleen kasuan.

| | Kontrasteko ikastetxeetako ikasleak. | Nafarrak. Inkesta orokorra. |
|---|---|---|
| Oso ongi | 47,0 | 33,3 |
| Normal eta ongi | 48,9 | 60,1 |
| Batzuetan, gaizki pasatzen dut | 2,7 | 4,2 |
| Oso gaizki; ez zait gustatzen. | 1,4 | 2,4 |

P 16 *Beldurrik sentitu al duzu ikastetxera etortzerakoan?*

| | Kontrasteko ikastetxeetako ikasleak | Nafarrak. Inkesta orokorra. |
|---|---|---|
| Inoiz ez | 90,0 | 96,4 |
| Behin edo behin | 8,6 | 3,6 |
| Ia egunero | 0,9 | |

P 20. *Ikastetxean pandillak egotea*

Ikastetxean pandillak egoteari buruzko pertzepzioa nabarmen handiagoa da immigranteak dauden ikastetxeetan immigranterik ez duten ikastetxeetan baino.

| | Kontrasteko ikastetxeetako ikasleak | Nafarrak. Inkesta orokorra. |
|---|---|---|
| BAI | 39,1 | 54,0 |
| EZ | 48,9 | 46,0 |

P 21. *Pandillaren bateko kidea izatea*

Pandillaren kontzeptua nabarmen lausoa da. Litekeena da peña batekoa edo kuota bat ordaindu beharreko kolektiboren batekoa izateak handiago egitea pandilla baten kideak direla dioten pertsonen ehunekoa.

| | Kontrasteko ikastetxeetako ikasleak | Nafarrak. Inkesta orokorra. |
|---|---|---|
| BAI | 41,9 | 36,6 |
| EZ | 58,1 | 63,4 |

P 22. *Ikasteko eta lan egiteko aukerak Espainian jaio ez direnentzat, Espainian jaio direnek dauzkatenekin alderatuta.*

% 48,4k uste du ikasteko eta lan egiteko aukerak okerragoak edo askoz okerragoak izanen direla Espainian jaio direnek dituztenak baino. % 39,2k diote aukerak berdinak direla.

| | | Maiztasuna | Baliodunen ehunekoa |
|---|---|---|---|
| Baliodunak | Askoz hobeak | 5 | 2,3 |
| | Hobeak | 22 | 10,1 |
| | Okerragoak | 95 | 43,8 |
| | Askoz okerragoak | 10 | 4,6 |
| | Berdinak | 85 | 39,2 |
| | Guztira | 217 | 100,0 |
| Galdutakoak | Sistema | 3 | |
| Guztira | | 220 | |

Oso nabarmena da inkesta orokorrean eta kontrasteko inkestan parte hartu duten ikasleen arteko alderaketa.

Immigranteak hurbiletik ezagutzen ez dituzten ikasleek kontzepzio askoz ere ezkorragoa daukate Espainian arrakasta izateko daukaten gaitasunari buruz.

| *Immigranteek ikasteko eta lan egiteko dauzkaten aukerak, espainiarrek dauzkatenen aldean* | | | |
|---|---|---|---|
| | Hobeak eta askoz hobeak | Okerragoak eta askoz okerragoak | Berdinak |
| Kontrasteko lagina | 12,4 | 48,4 | 39,2 |
| Lagin orokorra | 11,6 | 35,6 | 52,8 |

P 27. *Immigranteek espainiarrek baino aukera txikiagoak izanen dituztela uste izateko arrazoiak*

Elkarrizketatuek emaniko arrazoiak bat datoz inkesta orokorreko ikasle nafarrek emandakoekin, xehetasun batzuekin. Ikastetxe itunduetako ikasleek alderdi batzuk nabarmentzen dituzte; esate baterako, arrazakeria. Ikus ditzagun arrazoiak:

1. Xenofobia, arrazakeria, lanpostuetara sartzeko bazterkeria. Arrazakeria zerbait nabarmenagoa da “kontrasteko” ikastetxeetan azterlan orokorrean baino. Eta kontrasteko ikastetxeen artean, ikastetxe itunduek gehiago azpimarratzen dute alderdi hori. *“Zeren eta bada jendea langileak hartzen ez dituena beste kolore batekoak*

*direlako". "Beste arraza batekoak izategatik baztertzen dira". "Zeren eta gizartea oso arrazista baita alderdi batzuetan". "Ikastetxe batzuetan, enpresa batzuetan, jendea arrazista da eta atzerritarrak okerrago tratatzen ditu". "Zeren eta oraindik ere xenofobia, arrazakeria eta bazterkeriarekin lotutako ohiturak bai baitaude. Eta uste dute ez dugula asko hobetuko".*

2. Lanpostuetarako bertakoak nahiago izatea da ikasleek maizen aipatzen duten arrazoia. "Norbait kontratatzen dutenean, lehenago bertakoa nahiago izaten dute atzerritarra baino". "Bada jendea aurrena etxekoak kontratatu nahi izaten duena". "Jendeari gehiago kostatzen zaio atzerritar bati lana ematea. Gehiago exijitu ohi diote ekuatortar, perutar edo errumaniar bati espainiar bati baino".

3. Mesfidantza: "Jendeak bitxo arraroen moduan tratatzen ditu".

4. Atzerritarrak delinkuentziarako joera handiagoak izateari buruzko errezeloa eta beldurra zenbait erantzunetan ere azaleratzen da. "Bada jendea pentsatzen duena pertsona gaiztoak direla".

5. Azkenik, batzuek aipatzen dute atzerritarrei espainiarrei baino gehiago laguntzen zaiela eta, horrenbestez, onura sozialez gehiago baliatzen direla. "Hasteko, pobrearen itxurak egiten dituzte, eta etxe bat lortzen dute, baina hemengo jendea badago etxea galdu eta ezer ez duena".

P 29. *Kirola norekin egiten duzu?*

Erantzunetan ez dago diferentziarik. Horrenbestez, nafarrek, bertako beren lagunak bilatzen dituzten kirolean aritzeko.

| | Kontrasteko lagina | Inkesta orokorreko espainiarrak |
|---|---|---|
| Nire nazionalitatea duten adiskideekin | 38,6 | 54,7 |
| Gehien bat nire nazionalitatekoekin | 31,4 | 41,3 |
| Beste nazionalitate batekoekin | 3,6 | 1,3 |

# BOSGARREN ZATIA

# AMAIERAKO ONDORIOAK

## ONDORIO OROKORRAK

*(Azterlan kuantitatiboa)*

1. *Ohar orokorra.* Azterlanak berresten du immigranteen kolektiboek klase sozial lauso bat osatzeari buruzko hipotesia. Sozialki gutxi ikusten diren taldeak dira, hirietako auzoetan barreiatuta daude, baina elkarrekin egoteko une eta toki batzuk badauzkate, non beren nortasuna eta kohesio sozialeko lokarriak indartzen dituzten. .

2. *Familiaren osaera.* Hispanoamerikarren kasuan, familien dispertsioa maiz gertatzen da. Ikuspuntu sozialetik eta hezkuntzaren ikuspuntutik familiaren egiturak eragin determinantea dauka nerabeengan. Erdia baino gehiago (% 55,2) gurasoekin bizi dira eta % 27,3 aitarekin edo amarekin. Europa Ekialdetik etorri diren inkestatuen % 69,0 gurasoekin bizi dira, eta % 13,8, berriz, aitarekin edo amarekin.

3. *Harrerako herrialdearekiko identifikazioa.* Ikasle immigrante batzuk gutxi identifikatzen dira Espainiarekin. Hispanoamerikarren % 45,1ek baizik ez luke heldua denean Espainian bizi nahiko. Lautik bati Espainiaz eta beren herrialdeaz beste herrialde batean bizitzea gustatuko litzaioke. Ekialdeko ikasleen kasuan, % 58,6ri Espainian bizitzea gustatuko litzaioke, eta % 31,0ri beren jatorrizko herrialdera itzultzea gustatuko litzaioke.

4. *Ikaskideekiko harremanak ikastetxean.* Ikaskideak oso garrantzitsuak dira kolektibo guztientzat. Hala eta guztiz ere, hispanoamerikarrek, ehuneko handi batean, ez dituzte ikastetxean aurkitzen bereziki atsegingarri zaizkien lagunak. % 40,1ek baizik ez du esaten ikaskideak direla ikastetxetik gehien atsegin zaiena; beste kolektibo batzuetan, berriz, ehuneko hori askoz handiagoa da. Hau da, hasteko, urruntze emozional eta afektibo bat dago hispanoamerikarren eta nafarren artean. Europa Ekialdekoak dira ikastetxeko beren ikaskideak gehien baloratzen dutenak (%65,5); ondotik, espainiarrak eta magrebtarrak datoz.

5. *Ikaskideekiko harremanak ikastetxean.* Ikasle nafarren % 78,5ek nafarrekin edo Espainiako ikaskideekin izaten ditu harremanak. Hispanoamerikarren kasuan, berriz, % 26,7k nafarrekin izaten ditu harremanak, eta % 49,6k guztiekin izaten ditu harremanak.

Ehuneko 20,7k beren herrialdeko edo beste herrialde batzuetako ikaskideekin izaten ditu harremanak. Ez dirudi nafarrak oso irekita daudenik atzerriko ikaskideekiko; immigraziotik heldu diren ikasleak, berriz, irekita daude.

6. *Ikastetxetik kanpoko harremanak.* Eskola orduez kanpo, nabarmenago egiten da nafarren eta immigranteen arteko distantzia. Horrenbestez, neurri batean, gazteen bi mundu paralelo eta ez konbergente eraikitzen dira. Nafar asko, ikastetxetik kanpo, iragazgaitzago bihurtzen dira immigranteak beren taldeetan edukitzeari dagokionez.

*7. Etorkizuneko proiektuak.* Zer planteatzen dute ikasleek beren ikastetxean ikasketak amaitzen dituztenerako? Alde nabarmenak daude ikasketak bukatzerakoan etorkizuna definitzeko moduari buruz. Ekialdeko herrialdeetako ikasleek eta nafarrek joera handiagoa dute unibertsitate-ikasketak eta lanbide heziketako ikastaroak aukeratzeko. Hispanoamerikarren % 41,3k, berriz, unibertsitatera joatea pentsatzen du eta % 30,1ek lanbide heziketako ikastaroak egin nahi ditu. Magrebtarrak dira beste gauza guztien gainetik lan egiteko asmoa dutenak.

8. *Prestakuntza eta gizarteratzea.* Talde horiek gizartean guztiz integra daitezen lortzeko biderik eraginkorrenetako bat da goranzko mugikortasun soziala erraztea, batxilergoko ikasketetan jarrai dezaten erraztuz eta unibertsitatera hel daitezen ere laguntza emanez. Interesgarria litzateke helburu gisa jartzea ikasle espainiarren eta immigranteen ehuneko bera hastea unibertsitate ikasketetan.

9. *Errefusaren pertzepzioa.* Emaitzek agerian jartzen dute soilik 42 ikasle (% 6,3) isolaturik edo bazterturik sentitu direla. Horrenbestez, ez dago immigranteekiko errefusa orokorrik. Hala eta guztiz ere, zehaztasun handiagoarekin aztertu beharreko 42 errefusa kasu badaude; izan ere, haien % 11,2 baizik ez dagokie ikasle espainiarrei. Gainerako guztiak atzerritarrak dira. Errefusari buruzko azterlan sakonagoa eginez, atzeman ahal izan dugu kolektibo guztietan zerbait handiagoa dela errefusaturik sentitzen diren emakumeen kopurua gizonezkoena baino.

10. *Integraziorako oztopoak.* Elkarrizketatuek, nafarrek zein immigranteek, adierazitako arrazoi batzuk badaude, bizikidetasuna zaildu, batzuen eta besteen artean oztopoak sortu eta talde desberdinak osatzeko sentsazioa ematen dutenak, xenofobia sentipenetan oinarrituta: gizartean xenofobiarik badagoela aitortzen da. Immigranteak direla eta mesfidantza duen gizarte bati buruz hitz egiten da. Halako kontzientzia baten arabera, bertakoak dira lehenbizi konturatzen direnak; esate baterako, lanpostu bat eskaintzeko

garaian. Atzerritarrekiko aurreiritziei eusten zaie; batez ere, hispanoamerikarrei dagokienez, gutxi fidatzekoak direla esaten da. Batzuek uste dute lana kentzen digutela eta bertako biztanleek ez dituzten abantailak eta zerbitzuak ematen zaizkiela. Are gehiago, aurreiritzi batzuena arabera, nafarrak atzerritarren bortxakeriazko ekintzen helburuak izan daitezke, edo lapurreten helburuak.

11. *Eskolaz kanpoko jardueretan parte hartzea.* Ikasle nafarrek immigranteek baino askoz gehiago hartzen dute parte eskolaz kanpoko jardueretan. Espainiarren % 81,7k egunero edo egun batzuetan parte hartzen dute eskola jardueretan. Hispanoamerikarren % 39,0k parte hartzen dute halakoetan; Europa Ekialdeko ikasleen kasuan, azkenik, % 31,8k hartzen dute parte halakoetan. Magrebtarren % 67k egun batzuetan bakarrik hartzen dute parte. Datu horiek immigranteen nolabaiteko isolamendu soziala erakusten dute.

12. *Zerbitzuak asteburuetara ere zabaltzea.* Gizarteak nerabe immigranteei arreta emateko zerbitzuak dauzka antolatuta, astelehenetik ostiralera (ikastetxeak, gizarte etxea, gizarte langileak, gizarte hezitzaileak), baina ostiral arratsaldetik igande gauera arte nerabeek ez dute inolako laguntzarik gizartean integratzeko eta beren familietan eta jatorrizko taldeen bilatzen dute babesa. Hori bai, elkarte batetik azpimarratu diguten bezala, "ostiraleko hiruretatik asteleheneko goizeko zoritzetara, denetatik gertatzen da: atxiloketak, borrokak, alaitasunak, haurdun geratzea, egurrak, denetatik gertatzen da, orokorrean, ez soilik nerabeei". Eta gai horrek konponbiderik badu.

13. *Nafarroako familien bizimoduan parte hartzea.* Ez da onartzen immigranteak familia nafarren bizimoduan parte hartzea. Sekula ere asteburu bat lagunen etxean pasatzen ez duten atzerritarren kopurua % 35eraino iristen da hispanoamerikarren eta magrebtarren kasuan. Europa Ekialdeko herrialdeen kasuan, berriz, inkestatutako lautik batek egiten du hori. Horri gehitu behar zaio immigranteek bizitza sozialean atzera egiteko joera dutela: espainiarrak baino gutxiago joaten dira joko-aretoetara, gutxiago joaten dira kalera, gutxiago diskoteketara, ez dira tabernetara joaten eta gutxiago parte hartzen dute kirol jardueretan, eta parte hartzen dutenean ere ia atzerritarren erdiek beren nazionalitateko adiskideekin egiten dute kirola.

14. *Pandillak eta bandak.* Ezin da esan immigranteen kolektiboei aurka egiteko banda egituratu eta antolaturik dagoenik ikastetxeetan,  Baina bai daude pandilla batzuk beste talde batzuekin diferentziak markatzen dituztenak, nolabaiteko maiztasunarekin borroketan esku hartzen dutenak eta agerian jartzen dutenak hispanoamerikarren eta nafarren artean egiazko haustura bat dagoela.

*(Ikastetxeei buruzko azterlan kualitatiboa)*

15. *Harrera-programak.* Aitortu beharra dago ikastetxeak lan bikaina egien ari direla immigranteen premiei erantzuteko. Harrera-programak ongi diseinaturik daude ikaslea lehenbiziko aldiz Nafarroako ikastetxe batean sartzen den lehenengo une horretarako. Alabaina, programetan ez da epe laburreko integrazio jarduerarik aurreikusten. Hau da, jarraipen bat egin beharko litzateke jakiteko ikaslea ikastetxean integratu den ala ez eta nolako zailtasunak aurkitzen ari den. Ikastetxeek nahiago dute immigranteei arreta berezirik ez eskaini; nahiago dute haiek tratatu une jakin batean laguntzaren bat behar izan dezakeen beste edozein ikasle balira bezala. Horrenbestez, ez dute immigranteei buruzko berariazko neurririk diseinaturik, nahiz eta berez kolektibo horiek ikastetxean ongi bereizita egon. Azpimarratzen dute “hemengo eta kanpoko edozein ikasleri harrera egiteko ekintzak” orokorrak direla. Harreraren unetik aurrera, uste dute ikaslearen integrazioa modu naturalean gertatzen den prozesu bat dela. Baina ez da horrela. Ikasturtean zehar luzatzen den prozesu bat da.

16. *“Dolua” gainditzea.* Gomendagarria litzateke ikastetxeko proiektuan aurreikusita egotea, mailak esleitzeko eta defizita gainditzeko plan akademikoaz gainera, banakako arreta plan bat, ikasle immigranteek “dolu-aldia” gainditu ahal dezaten. Beren herrialdetik joan dira, beren familiartekoak, adiskideak, dibertsiok, balioak utzi dituzte, eta adiskiderik ez duten eta ia familiarik ere ez duten herrialde batera iritsi dira: hirian barreiatutako jendea dira. Oso garai zaila da, zeinari, agian, ikastetxeek baizik ezin diote konponbidea eman.

17. *Frustrazioari aurrea hartu.* Ikastetxeek egiaztatzen dute ikasle immigrante askok frustrazio handia pairatzen dutela, eta frustrazio horrek gizartearekiko jokabide oldarkorrak ekar ditzakeela. Ikasle atzerritar askok ikusten dute nola bizi diren hemen bertakoak diren beren ikaskideak, nola dirua daukaten, etxebizitza duina duten –haiek, berriz, askotan, etxebizitza partekatua dute–, familia egituratuta daukaten –ikasle

immigranteen kasuan, askotan, aitak abandonatu egin zituen–, lan duinagoak dauzkaten, lanaldi erregularragoarekin. Horri dagokionez, eskolak frustrazio handiko erreakzioak sorraraz diezaieke, eta gorroto-sentimenduak, haiek parte-hartzerik ez duten ongizatearen gizarte horrengatik.

18. *Integrazioaren aurkako erresistentziak.* Kolektibo batzuek, esate baterako marokoarrek, integrazioaren aurkako jarrera erakusten dute, eta erresistentzia argiak ere erakusten dituzte: horixe atzematen da irakasle emakumezkoak errefusatzeko eta beloa eramateko joeran. Integratzeko zailtasun ugari dituzte: uste dute hezkuntzaren bidez haiek kulturalki asimilatu nahi direla eta beren sinesmenak, ohiturak eta tradizioak abandona ditzaten bilatzen dela. Ez dute ikasteko interes berezirik. Orokorrean oso zorrotzak dira beren eskakizunetan. Biktimistak dira. Aita marokoarrak ez dira ikastetxera joateko deia egiten dietenean. Edo ia gaztelaniarik ez dakiten amak joaten dira. Badakigu, era berean, ikastetxe batzuek baieztatutakoaren arabera, beren adinaren arabera legozkiekeen ikasmailaz beheragoko beste ikasmaila batean matrikulatuta dauden ikasleek gutxiagotasun argiko egoera horren aurkako errefusa erakusten dutela. Eta horrek aurre egin beharko litzaiokeen arazo psikologiko bat suposatzen du.

19. *Kontraste kulturalen eraginak.* Neska hispanoamerikar nerabeek barne-gatazkako egoera larriak paira ditzakete, eta haien ondorioz Espainian sozialki onartzen ez diren jokabideak izan ditzakete; esate baterako, mutilen batekin ihes egitea, nahi gabeko haurdunaldiak, mutil zaharragoekin bizi diren herritik urrun dauden dibertsio-tokietara joatea. Elkarrizketak aztertuz ondorioztatzen den bezala, neska nerabe hispanoamerikarrek, beren adinean, berehalako proiektu lauso bat dute, ezkondu eta seme-alabak edukitzekoa. Familia bat osatzeko adinean daude. Hori dela eta, harritu egiten dira bertako emakumeek seme-alabak hogeita hamar urterekin dauzkatenean. Horrenbestez, hamabost urterekin "ezkongai" daude, eta beren gustuko mutil baten bila ibiltzeko jokabideak mendetasun handiagoa eragiten die. Era berean, beren herrialdeetan, adin horietan emakumeek familia-ardura batzuk berenganatzen dituzte; esate baterako, anai-arreba adingabeak edo zaharrak zaintzea. Elkarrizketaren batean, adierazi izan da hamabost urterekin neskek ikastetxera joateari uzten diotela, zeren eta etxeko arduradunak izatearen papera hartzen baitute. Planteamendu horrek talka egiten du nabarmen Espainiako neska nerabeen kulturarekin: beren planetan ez dago familia-ardurak berenganatzea; ez dute ezkontzean pentsatzen; mutilekiko autonomia gehiago daukate; ez dute seme-alabarik edukitzea pentsatzen; harreman sexual irekiak dauzkate, eta haurdun ez geratzeko bitartekoak ezagutzen dituzte.

20. *Berdintasun programetarako arriskua.* Neskak, batez ere hegoamerikarrak, mutilentzat erakargarriago erakustea eta haiekiko mendetasun handiagoa edukitzea, beren herrialdeetako “matxismo kulturalaren” esparruan, eragin negatiboa izan du generoko berdintasuneko programetan. Neska nafarrak mutilekiko mendetasun handiagoko rola ari dira berenganatzen, batez ere atzerritarrekin harremanak dituztenean.

*(Antolamenduak eta erakundeak)*

21. *Etxebizitza: arazoen iturria.* Etxebizitzak eta kasu batzuetan immigranteen etxebizitza kokatuta dagoen hiri esparruak immigranteekiko errefusa lauso bat eragiten du. Distantzia soziala elikatzen duen urruntze psikologiko bat gertatzen da. Bertakoek nahiago lukete beren atarian, eskaileran edo solairu berean immigranterik ez eduki. Distantziako egoera hori errefus-arazo baten gisara hautematen dute nerabeek, eta beren buruz pertsona ez desiragarritzat jotzeko gertatzen diren bestelako egoera gutxi-asko ikusgarri batzuekin metatzen da.

22. *Banaketa nerabezaroan hasten da.* Nerabezaroaren aurreko garai batzuetan immigranteen eta bertakoen arteko nolabaiteko integrazio bat gertatzen bada ere harreman sozialetan eta jokoetan, nerabezarotik aurrera bi kolektiboak banandu egiten dira. Gazte immigranteen bizitza soziala eta aisialdia bertako gazteen bizitzaren eta aisialdiaren paraleloan joan ohi dira. Horri gehitu behar zaio paralelismoa anizkoitza dela, zeren eta nazionalitate bakoitzak bizimodu paraleloa eratzen baitu bertakoekiko nahiz beste nazionalitate batzuetako gazteekiko.

23. *Bandak edo pandillak egon badaude.* Ezin da esan gure hirietan bandak orokortu direnik, baina sintoma batzuk badaude adierazten dutenak bandak sortu eta egitura daitezkeela gizartearen aurkako elementu gisa, zeren eta horren aldeko giroa bai baitago. Une hauetan jada zenbait banda daude egituraturik, nahiz eta ez duten indarkeriazko formaturik, ez eta borroka egiteko bestelako bandarik ere. Hala eta guztiz ere, udalek ez dute hauteman arriskutsutzat jo daitekeen pandilla gutxi-asko egituraturik dagoenik. Ez dute egiaztatu, ezta ere, bizikidetasuna nahas dezaketen borrokarik gertatzen denik. Aztertutako herritako bizimodua baketsua da.

24. *Udalen kezka.* Udaletan kezka garrantzitsu bat badago gazteen arteko bizikidetasuna hobetzea dela eta; izan ere, batzuk eta besteak bazterkeriarik gabe elkartzeko guneak eta tokiak antolatzen dituzte. Baina ikusten da programak orokorrak direla. Immigranteei zuzenduta daude, kolektibo uniforme bat osatuko balute bezala. Immigranteek ez dute parte hartzen.

25. *Kirola eta integrazioa.* Kirola immigranteak eta bertakoak errazago elkartzeko guneetako bat izan daiteke; izan ere, hartan lankidetza eta elkarrekiko lana, bai eta ekipoen dinamika bera ere, integraziorako zeharkako tresnak izan daitezke. Hala eta guztiz ere, atzematen da immigranteek nafarrek baino askoz gutxiago parte hartzen dutela horrelako jardueretan.

*(Immigranteen elkarteak)*

26. *Arazo desberdinak.* Bi motako nerabe immigranteak bereizi behar dira: Espainian hazi direnak, edo hemen jaio zirelako edo txikitan hona etorri zirelako, eta familia berriz bateratze aldera nerabe garaian etorri direnak. Lehenbizikoek integraziorako bide erraz bat bilatzen dute, neurri batean familiaren bitartezko integrazioa oinarri hartuta. Bigarrenek jatorrizko herrialdetik frustrazio sakonak dakartzate arrastaka eta hemengo gizartera sartzen direnean ere mundu frustragarri bat aurkitzen dute. Gazte horiek beren frustrazioa gizartearen aurkako erreakzioekin erakusten dute. Erraza da nerabe horiek euskarri edo babesa beren nazionalitateko pandilla edo bandetan bilatzea.

27. *Gizartearen errefusa edo distantzia hautematea.* Immigrante nerabeak intentsitate gehiagorekin hautematen du bera hartu duen gizartearen errefusa bere larruazalaren kolorearengatik, bere ezaugarri fisikoengatik, bere hizkuntzarengatik, adierazteko eta janzteko bere moduarengatik, bere maila akademikoarengatik. Horrenbestez, laguntza berezia behar du integratzeko.

28. *Generoko desberdintasuna errefusa hautematerakoan.* Garrantzitsua da azpimarratzea gizartearen errefusa indar handiagoz hautematen dutela mutilek neskek baino. *(Nafarroako gazteriari buruzko azterlanak)*

29. *Gazte nafarrek eta immigranteak nola hautematen dituzten.* Gazteek ez dituzte immigranteak hautematen beraiengan eragina duen arazo baten gisara, baina uste dute immigranteen presentzia arazo sozial bat dela.

30. *Errezeloko jarrera.* Gazte nafarren artean, immigranteak indarkeria-gune bat izateari buruzko nolabaiteko beldurra dago. Zehazkiago, kezkatuta daude gure artean sor daitezkeelako *Latin Kings* deitutakoen antzeko taldeak.

31. *Desberdintasunen pertzepzioa.* Gazte nafarrek uste dute estatus juridikoan ("ez gara berdinak"), jatorri kulturalean eta egoera ekonomikoan oinarritutako desberdintasun sakonak badaudela. Fenotipoa, ezaugarri fisiko desberdinetan gauzatzen dena, bertako identitatea immigranteen aurka gotortzeko eta babesteko baliatzen da.

*(Kontrasteko ikastetxeak)*

32. *Immigranteei buruzko aurreiritziak orokorrak dira.* Azterlanean analizatu nahi izan da ea ikasgeletan eta atsedenaldietan ikasle atzerritarrekin ez dauden gazte nerabeek jarrera xenofoboagoak dauzkaten ala ez ikastetxeetan beraiekin batera daudenek baino. Azterlanak ez du agerrarazten immigranteen ehuneko handi bat dagoen ikastetxeetan ikasten diharduten ikasleen aldean jarrera edo aurreiritzi desberdinik dagoenik.

33. *Etorkizunean izan ditzaketen aukerei buruzko zalantzak.* Teorikoki, azterlan orokorrean gertatzen den bezala, ikasleek guztien berdintasuna aitortzen dute, eta aitortzen dute, halaber, immigranteek eskubidea dutela aukera berdinak izateko, nahiz eta uste izan arrazoi kulturalen ondorioz, nolabaiteko gizarte bazterketaren ondorioz eta baliabiderik ez edukitzearen ondorioz, arrakastarako aukera txikiagoak izanen dituztela bertako ikasleek baino. Laburbilduz, immigranteekin harremanetan ez dauden ikasleek uste dute azken horiek Nafarroan izanen dituzten aukerak bertakoenak baino askoz txikiagoak izanen direla.

34. *Distantzia soziala.* Immigranteak hortxe dauden eta berdinak diren baina nafarrekin nahasten ez diren kolektiboen gisara ikusten dira. Mundu paralelo bat osatzen dute. Ez da hautematen, ezta ere, nafarrek atzerritarrak beren taldeetan integratzeko ekimenak bultzatzen dituztenik.

# BOSGARREN ZATIA

# PROPOSAMEN OROKORRAK

## PROPOSAMEN OROKORRAK

Azterlanak agerian jartzen du nerabe immigranteek joera dutela Nafarroako gizartean talde paraleloak osatzeko eta behar adina adierazle badaudela pentsatzeko egoera hori bazterketa baten gisara edo beren buruaren baztertze sozial gutxi-asko lauso baten gisara bizi dutela. Luzera begira, eta faktore jakin batzuen arabera, egoera edo distantzia sozial horrek gizartearen aurkako indarkeriazko erreakzioak erakar ditzake. Gatazka prozesuak gerta daitezen saihesteko, ikerketa-taldeak honako proposamenak egiten ditu:

1. *Immigranteak integratzearen arloko erantzukizuna.* Orokorrean, gizarteak pentsatzen du immigranteak direla gure gizartean integratu behar dutenak. Hori dela eta, gizarteak haiei zuzendutako neurriak hartzen ditu. Baina garrantzitsua da, halaber, harrerako gizarteak neurriak hartzea jarrera ireki eta abegikorra izan dezan, aurreiritziak abandona ditzan –askotan oso negatiboak baitira– eta xenofobiako edozein adierazpen saihets dezan. Immigranteen kolektiboen eta nafarren gizarte paraleloak existitzeak luzera begira ekar dezake harrerako gizartea errefusatzeko taldeak agertzea, zeren eta, momentuz, nafarrek gutxien nahi dituzten etxebizitzak eta lanpostuak betetzen baitituzte immigranteek, eta, horrenbestez, bazterketa arriskuan dagoen gizarte-zatia osatzen baitute.

***Gomendioa****: Komenigarria litzateke erkidegoko gobernuak komunikabideetan jarduteko programa bat defini dezan, immigranteen ekarpen positiboak nabarmentzeko eta gure gizartean sendo errotuta dauden aurreiritzi sozialen aurka borrokatzeko; hona aurreiritzi horien adibide batzuk: “lana kentzen digute”, “gehiegi laguntzen zaie”, “etxebizitzak eskuratzeko aukera kentzen digute”. Ekintzak bultzatu beharko lirateke, halaber, immigranteek arazoak sortzen dituztela bezalako aurreiritziekin amaitzeko.*

2. *Dolu fasea.* Ikastetxeek immigranteak integratzeko lan bikaina egiten dute. Praktika egokiak erabiltzen dituzte alderdi askotan. Harrera neurriak onak dira. Baina dolu fasea (beren herrialdetik joatea, lagunak bertan utzita) pasatzen ari diren ikasle batzuk oso bakarrik sentitzen dira. Horietan eta beste kasu batzuetan, harreran adostutako neurrietako batzuk aldi baterakoak dira eta ez diete erantzunik ematen ikasturte osoan zehar luzatzen diren arazoei.

***Gomendioa**: Ikastetxeek neurriak programatzea immigranteen tutoretza-jarraipena ikasturte osoan zehar egiteko. Egoera okerragoetan dauden edo "dolu" fasea pasatzen ari diren ikasleak identifikatzea eta arreta berezia ematea. Berariazko neurrien aldizkako ebaluazioak egitea.*

3. *Ikastetxeetako maila akademikoak behera egitea. Ikasleak bertatik joatea.* Ikastetxe batean baino gehiagotan adierazi da immigranteen presentziak berarekin ekarri duela maila akademikoak behera egitea, zeren eta irakasleak immigranteen mailari egokitu behar baitzaizkio. Horrenbestez, guraso batzuek beren seme-alabak beste ikastetxe batzuetara eramaten dituzte. ***Gomendioa**: Aztertu beharko litzateke era immigranteen presentzia handia dagoen ikastetxeetan maila akademikoak behera egiten duen eta zein mailatan gertatzen den hori, zein arrazoi erreal dauden horretarako eta nolako diferentzia ikusten den immigranterik ez dagoen ikastetxeekin alderatuta. Eta arazoari konponbidea emateko ekintzak garatu beharko lirateke.*

4. *Matxismoa.* Matxismoa gai serioa da nerabeen arteko harremanetan, bai ikastetxeetan, bai gizarte bizitzako beste arlo batzuetan ere. Kultura latinoetan, Ekialdeko herrialdeetan eta musulmanengan du eragina. Baina matxismoak, funtsean bera bada ere, ondorio desberdinak dauzka gertatzen den kulturaren arabera. Kontua da matxismo latinoak eta neska nerabe hegoamerikarrak hona etortzeak gizonezkoak erakartzeko eta haien kontrolpeko espazioan sartzeko unea dela pentsatuta, eragiten dutela gazte nerabe nafarrek jokabide horiek imitatzea, zeren eta uste baitute neska hegoamerikarren jokabide-ereduak kopiatuz gizonezkoen artean arrakasta handiagoa lortzeko aukera daukatela. Horrela, generoko berdintasuneko programak neutralizatu egiten dira, neurri handi batean.

***Gomendioa**: Immigranteen presentzia nabarmena dagoen ikastetxeetan, lehenbizi genero-berdintasuneko programak eduki beharko lituzkete; eta genero-berdintasuneko programak lehendik ere badituzte, programa horien diseinua birplanteatu beharko lukete, ikastetxean ikasten duten immigranteen artean gailentzen den matxismo kulturalaren arabera.*

5. *Prestakuntza.* Prestakuntza integraziorako biderik onena da. Ikasle immigrante asko nahitaezkoa delako eskolaratzen dira, baina ez dituzte ezagutzen prestakuntza egoki

batek gizarte industrializatuan gora egiteko eskain ditzakeen aukerak. Garrantzitsua izan daiteke ikastearen balioa sustatzea eta etorkizunean norberaren burua gainditzeko eta unibertsitatean ikasteko hark eskaintzen dituen aukerak nabarmentzea.

***Gomendioa**: Ikastetxeek beren buruari proposatzea urtero handiagoa izan dadila batxilergoan edo lanbide heziketan ikasten jarraitu eta unibertsitatera doazen ikasle immigranteen kopurua. Hau da, ez daitezela muga immigranteen kolektibo batzuek derrigorrezko hezkuntzaz harantzago prestatzeko izan dezaketen interes falta aipatzera.*

6. *Kirol lehiaketak eta bestelako sariketa batzuk.* Atzeman da udalek kirol txapelketen eta bestelako lehiaketen bitartez bultzaturiko jarduerek, non herri desberdinetako nerabeek ere parte hartu baitute, asko errazten dutela gazte nafarrek eta immigranteek elkarrekin harremanak izatea, lankidetzan jardutea, talde mistoetan lan egiten ikastea eta elkarrekin egoteko denbora gehiago hartzera. Antzeko zerbait baiezta daiteke nerabeentzat egokiak izan daitezkeen bestelako sariketa batzuei buruz ari garela ere: musikako, literaturako, musika-tresnetako eta abarretako lehiaketak.

***Gomendioa**: Udalek txapelketak susta ditzaten, bai udalaren beraren barruan, bai udalen artean ere, immigranteak sartuko diren taldeak, neskenak zein mutilenak, osa daitezen. Jarduera horiekin batera, kultur anitzeko taldeak saritzeko estrategiak bultzatu beharko dira.*

7. *Gizarte zerbitzu batzuk asteburuetara ere zabaltzea.* Gizarteak nerabe immigranteei arreta emateko zerbitzuak dauzka antolatuta, astelehenetik ostiralera (ikastetxeak, gizarte etxea, gizarte langileak, gizarte hezitzaileak), baina ostiral arratsaldetik igande gauera arte nerabeek ez dute inolako laguntzarik gizartean integratzeko eta beren familietan eta jatorrizko taldeen bilatzen dute babesa. Hori bai, elkarte batetik azpimarratu diguten bezala, “ostiraleko hiruretatik asteleheneko goizeko zoritzetara, denetatik gertatzen da: atxiloketak, borrokak, alaitasunak, haurdun geratzea, egurrak, denetatik gertatzen da, orokorrean, ez soilik nerabeei”. Eta gai horrek konponbiderik badu.

***Gomendioa**: Administrazio eskudunek lehentasuna ematea gizarte hezitzaileak asteburuetan egoteari, immigranteek parte hartzeko moduko jarduerak sustatzeko eta kolektibo bakoitzaren jarraipen hobea egiteko.*

*8. Udalak* Udalek, immigranteak integratzeko programak eta proposamenak egiterakoan, nerabe immigranteen egoerari buruzko diagnosi bat eduki beharko lukete. Ezin da konponbide orokorrik jarri, baizik batez ere ugariena den kolektiboaren ezaugarrien arabera egokitutakoak. Izan ere, atzematen da udal bakoitzean nazionalitate bateko immigranteak nagusitzen direla: Tafallan, bulgariarrak; Castejonen, marokoarrak; Azkoienen eta Fiteron, ekuatortarrak, eta abar. Tratamendua ezin da uniformea izan.

***Gomendioa**: Udalek zentro ofizialak sor daitezela sustatzea; esate baterako, gazteen zentroak edo etxeak, nerabe immigranteak bertara daitezen diseinatuak. Aholkuak bil ditzatela nerabeei zuzendutako programak idatzi aurretik, betiere tokian toki nagusitzen diren nerabe immigranteen kolektiboari erreparatuta. Beharrezkoak dira, era berean, gazteak udalek kontrolatu eta zuzendutako gazteen etxe edo zentroetara erakartzeko ekintzak.*

9. *Pandillak eta bandak.* Adostasun lauso bat dago esaterakoan pandilla antolatuak badaudela, nerabe/gazte immigranteenak, zein nafarrenak. Batzuetan pandilla horiek imitazioz sortzen dira, identifikazio sozialeko modu gisa zein beste talde batzuei eraso egiteko modu gisa. Pandilla birtual batzuk badaude; beste batzuk, berriz, tokian tokikoak dira. Fenomeno hori, momentuz oso gutxitan bada ere, existitzen dela frogatu da. Baina talde horien eztanda-egite erasokorra probokatu dezaketen inguruabarrak gerta daitezke; horren ondorioa izanen litzateke taldeak elkarren aurka edo talde batzuk gizartearen aurka hastea.

**Gomendioa.** *Toki entitateek bultzatu beharko lukete nerabeen talde formalak sortzea gazteek sentiberatasun handia duten balio batzuen inguruan: boluntarioen taldeak, kirol taldeak, aisialdirako taldeak eta abar. Oro har, gazteen etxe edo zentroen bidez gazteei eskaintzen zaizkien prestazioak banakako premiei erantzuten diete. Aurrera egin beharra dago talde gutxi-asko informalak sor daitezen, nonbaitekoa sentitzeko premiari erantzuteko.*

# ERANSKINAK

## LAGINA: INKESTATU BEHARREKO IKASTETXEAK

### Atzerriko jatorria duten ikasleen ehunekoa

| HERRIA | IKASTETX | ATZERRITARRAK | GUZTIRA | % |
|---|---|---|---|---|
| CINTRUÉNIGO | **“La Paz” DBHIa** | **80** | **224** | **35,7** |
| LIZARRA | **“Tierra Estella” BHIa. DBHa eta Batxilergoa** | **142** | **592** | **23,9** |
| | **”Mater Dei - Puy – Anderaz” Ikastetxea DBHa eta Batxilergoa** | 101 | 529 | **19** |
| | ”Politécnico” BHIa Batxilergoa eta | 25 | 315 | 8 |
| AZKOIEN | **"Ribera del Arga" BHIa Batxilergoa eta Lanbide Heziketa** | **80** | **432** | **18,51** |
| SAN ADRIÁN | **"Ega" BHIa. DBHa, Batxilergoa eta Lanbide Heziketa** | **62** | **526** | **11,7** |
| | “Escuelas Pías” Ikastetxea DBHa | 7 | 200 | 3,5 |
| TAFALLA | **"Sancho el Mayor" BHIa DBHa eta Batxilergoa** | **109** | **657** | **16,59** |
| | ”Politécnico” BHIa Batxilergoa eta Lanbide Heziketa | 27 | 302 | 9 |
| CASTEJÓN | **“Dos de Mayo” HLIPa. DBHa** | **23** | **49** | **46,9** |
| | **“Anunciata” Ikastetxea DBHa** | **60** | **242** | **24,79** |
| | “San Francisco Javier” Ikastetxea DBHa eta Batxilergoa | 10 | 809 | 1,23 |
| | **"Benjamín de Tudela" BHIa. DBHa eta Batxilergoa** | **143** | **915** | **15,62** |
| | **"Valle del Ebro" BHIa. DBHa eta Batxilergoa** | **203** | **1091** | **18,60** |
| TUTERA | ETI LHIK Lanbide Heziketa | 81 | 724 | 11,18 |
| | **“La Compasión-Escolapios”** | **46** | **226** | **20,35** |
| | **“Calasanz” Ikastetxea** | **76** | **429** | **17,7** |
| | “Sagrado Corazón” Ikastetxea | 37 | 571 | 6,47 |
| | **“Santa Catalina - Santísimo Sacramento” Ikastetxea** | **52** | **225** | **23,11** |
| | “San Ignacio” Ikastetxea | 25 | 727 | 3,43 |
| | **“Julio Caro Baroja” BHIa** | **176** | **448** | **39,28** |
| | **“Padre Moret” BHIa** | **139** | **472** | **29,45** |
| | “Pedro de Ursua” BHIa. | 40 | 317 | 12,61 |
| | **“Plaza de la Cruz” BHIa** | **211** | **815** | **25,89** |
| | “Basoko” BHIa | 81 | 535 | 15,14 |
| IRUÑA | “Navarro Villoslada” BHIa | 124 | 870 | 14,25 |
| BERRIOZAR | **“Berriozar” DBHIa** | **79** | **188** | **42,02** |

Oharra: Datuak **2009ko maiatzaren 31koak** dira. Gaurkotasun handiena dutenak dira, zeren eta gaur egun, azaroan, *ikastetxe itundu guztiek ez baitituzte datu eguneratuak* sartu.

Ez dira ageri eskatutako ikastetxeetatik batzuk, edo ez zutelako DBHko ikaslerik, edo ikasle atzerritarren kopurua ez zelako % 1era iristen.

Kultur Aniztasunaren Atala – Hezkuntza Departamentua

AZTERLANEAN IZANDAKO GORABEHERAK

*Ikastetxeak:*

Oro har, ikastetxeen erantzuna ona izan da, zeren eta egin beharrekoa Arartekoaren azterlan bat baitzen. Ikastetxe batzuek, publikoek zein itunduek, zailtasun ugari jarri dituzte azterlana egiteko. Batzuk, hasteko, ez zeuden laguntzeko prest. Azkenean, amore eman dute, baina mugarik gabe geroratuz elkarrizketa egiteko eta galde-sorta aplikatzeko eguna. Oro har, nekatuta daude azterlan ugari egiten direlako, gisa askotakoak, ikasgeletan eginiko inkestetan oinarrituak.

- **Basoko Villoslada BHIa:**

  Ikasketaburuak, oso modu serioan, adierazi du erabakia duela azterlanetan laguntzarik ez ematea, azterlaneko datuak bueltan eskuratzen ez zaizkionean. Adierazi zuen, mesedez, azterlaneko emaitzak helarazteko, zeren eta nekatuta baitaude laguntza emateaz eta irakasle zein ikasleek “denbora galtzeaz”, gero, gainera, azterlanetako emaitzak ez jasotzeko.

- **Basoko BHIa:**

  Haiekin hitz egin nuen, eta azterlana zertan zen azaldu nien, eta esan zidaten dei eginen zidatela egun bat jartzeko... baina ez didate deitu.

- **”Politécnico” BHIa. Batxilergoa eta Lanbide Heziketa:** Azterlanaren emaitzak eskuratu nahi lituzkete.

- **“Sagrado Corazón” Ikastetxea.** Ikasketaburuarekin hitz egin nuen, baina ez zuen erantzun hitzordua zehazteko.

- **Pedro Ursua ikastetxea.** Ikasketaburuarekin hitz egin nuen, baina ez zuen erantzun hitzordua zehazteko.

*Gizarte zerbitzuak:*

- **Arrotxapeako Auzo Unitatea:**

  Telefonoz lau aldiz eta posta elektronikoz bi aldiz haiekin harremanetan jarri ondoren... azaldu zidaten ez dutela harreman handirik kolektibo horrekin, eta adierazi zidaten agian Harrera Programakoek harreman handiagoa izanen zutela haiekin. Adierazi didate lankideekin hitz eginen zutela eta harremanetan jarriko zirela nirekin.

  Hitz egin ondoren, e-maila bidali zidaten esateko Harrera Programakoek modurik ez dutela elkarrizketa egiteko.

- **Arrosadiako Auzo Unitatea.**

  Iruñeko udaleko langilearekin hitz egin ondoren, erabaki genuen entitate hori gure azterlanetik kanpo uztea, harrera zentro bat baitzen. Zentro horretara, izan ere, arazoak dauzkaten gazteak joaten dira. Ikastetxeen bitartez iristen dira bertara, eta informazioa alde batera lerratuko zela ondorioztatu genuen.

- **Tuterako Gizarte Zerbitzua.** Zerbitzu horrek elkarrizketari baiezkoa eman zion burokraziaren ondorioz eta nik luzaro itxaron nuelako erantzun bat jaso arte, zeren eta informatzaileen hierarkia luze bat baitzegoen gizarte langilearekin hitz egin arte. Harekin harremanetan jarri eta bere burua antola zezan itxaron genuen arren, azkenean ez zen erantzunik izan.

- **Tafallako Oinarrizko Gizarte Zerbitzua.** Bi elkarrizketa izan ziren: bata gizarte hezitzaile Nerea Biurrunekin, Tafallako udaletxean bertan; bigarrena, Gazteriaren Etxeko langile Ane eta Garbiñerekin eta gazteriaren arloko teknikariarekin, udaletxean bertan hori ere. Elkarrizketa erraz eta arinak izan dira.

- **Cintruenigoko Oinarrizko Gizarte Zerbitzua.** Hiru elkarrizketa izan ziren: bi Cintruenigoko eta Fiteroko erkidegoan immigranteei abegi egin eta haiek integratzeko programako teknikariarekin. Cintruenigoko elkarrizketa aurreikusita zegoen; Fiterokoa, berriz, inprobisatu egin zen, teknikariak erraztasunak eman zituelako. Elkarrizketak oinarrizko zerbitzuetarako eraikinean eta gazteentzako zentroko lokaletan egin ziren. Aukera izan nuen lokala ikusi eta bedela elkarrizketatzeko, bera baitzen lokaleko arduradun bakarra. Adierazi beharra daukat gazteriaren etxe bat eraikitzen ari dela, baina gaur egun gazteentzako zentroa dela gazteek daukaten lokal bakarra (bertakoak baizik ez dira joaten), eta bertan egiten diren jarduera nahiko eskasak direla, etxean izan ditzaketenen antzekoak ia.

  Aukera izan nuen, halaber, Kirolaren eta Gazteriaren Etxeko teknikariarekin hitz egiteko. Hark, immigranteen elkarteetako zuzendarien telefonoak eskuratu zizkidan. Horietatik, soilik bi aukeratu genituen, ordezkaritza zabalena hartzen baitzuten: ADEREC eta CASA.

- **Berriozarko Oinarrizko Zerbitzua.** Bost elkarrizketa egin dira, hiru bertan egonda eta beste biak telefonoz, gazteez arduratzen zen pertsona bat topatzeko zailtasunak zirela eta. Arrazoia udalean dagoen polarizazio politikoa da: bi muturrak daude eta ekintza guztietan lehia sortzen da herrian. Horrek gazteengan du eragina, oro har. Sentipena izan dut alor honetan (gazterian) desinkronizazio handia dagoela orokorrean. Udalarekin harremanetan jarri nintzenetan, erantzun zidaten zekitela norekin hitz egin behar nuen; bertan bizi den senide batengana jo nuen, eta azkenean pertsona batekin hitz egiten nuenean beti gomendatzen zidaten beste batekin hitz egiteko (institutuko zuzendaria, Lantxotegui elkartea, beste gizarte langile batzuk eta abar), ez axolagabekeriaz, baizik eta asmo onez, eta segur aski arlo honetan hutsune bat egotearen ondorioz.

  Lehenengo zatirako, habitatari buruzkorako, elkarrizketaren gidoia posta elektroniko bidez igorri nuen, gizarte hezitzaileen eta langileen taldeak elkarrekin lan egin zezan hari erantzuteko. Elkarrizketa drogamenpekotasunaren eta immigrazio proiektuaren arloko hezitzailearekin egin zen, Antsoaingo udaletxean (bi udaletan egiten du lan, egun bat batean; hurrengoa bestean) eta bigarren elkarrizketa izan zen. Lehenengoa kirol arloko teknikariarekin egin nuen, eta hark

informazioa erdizka eman zidan, zeren eta “gaizki ulertu bat izan baitzen”; agian, ez nion nire helburua argitasunez helarazi. Izan ere, eman ziezadakeen informazioa 12-14 urteko mutilei buruzkoa zen eta betiere jardueren eta kirolen programaren ikuspuntutik, eta ez hainbeste neska-mutilen sozializazioaren ikuspuntutik; alderdi horri buruz eman didan informazioa bertan bizi delako eman zidan. Hirugarren elkarrizketa gazteriaren arloko teknikariari egin nion; informazio lerratua iruditu zitzaion, zeren eta gazte kontuetan esperientzia eskasa baitzuen eta immigrazioari buruz are txikiagoa. Izan ere, lanpostu horretarako ez zen esperientziarik eskatzen; soilik lizentziatura bat. Izan ere, Biologiako lizentziaturarekin eta gazteentzako kanpaldietan hartutako esperientzia pixka batekin eskuratu zuen lanpostua. Hemen polarizazio politikoaren arazoak gazteen arazoekin egiten du topo. Gazteentzako gizarte etxea lehenago herriko gaztetxea izandakoa da. Orain dela urte batzuk itxi zuten. Orain dela lau urte ireki zuten, eta gero beste bi urtez itxi zuten, zeren eta egoerak gainditu egin baitzuen gazteriaren arloko teknikariaren lana, eta urte eta erdiz egon behar izan zuen bajan. Eta grabazioa egin zen egunean, zentroa berriz irekitzeko prestakuntzetan ari ziren, lehia politikoak barne zirela. Horrenbestez, hartu-emanen bitartez, telefono bidezko bi elkarrizketa egin nituen: bata zinegotzi ohia izandako Txomin G.rekin eta bestea DBHko irakasle Begoña Omatosekin. Jasotako informazioa ez zetorren bat gazteriaren arloko teknikariarengandik jasotakoarekin.

*Immigranteen elkarteak:*

Zenbait gorabehera eta zailtasun izan dira elkarteak aurkitzeko eta haien arduradunekin harremanetan jartzeko.

- **Unión Latina Ekuatortarren Elkartea (Milagro):**

  Interneteko zenbait gunetan bilatu ondoren, posta elektronikoko helbide bat aurkitu nuen. Idatzi nuen baina inork ere ez du erantzun.

- **Colombia Ritmo y Cultura Elkartea**

Internet bidez, posta elektronikoko helbide bat aurkitu nuen. Idatzi nuen, baina erantzun zidaten helbide hori ez zela existitzen.

- **Slavyanskaya Eslaviarren Elkartea (Burlata):**

Telefonoz hots egin nuen, eta gaztelaniaz oso ongi ez zekien neska batekin hitz egin nuen... dirulaguntzarekin lotutako gairen baterako deitzen nuela uste zuen... esan zidan deituko zidala, elkarrizketa egiteko egun bat jartzeko. Haren deirik jaso ez nuenez, berriz ere saiatu naiz harekin hitz egiten, baina haren mugikorra itzalita zegoen, edo ez zuen erantzuten. Hori dela eta, erabaki nuen posta elektronikoko hiru helbideetara, eta hirurak bueltan etorri zitzaizkidan, helbide horiek ez zirelako existitzen.

- **10 de Agosto ekuatortarren elkartea (Lizarra):**

Lizarrako gizarte zerbitzuetan, baliabideen gida bat eman zidaten, non immigranteen hiru elkarte agertzen baitziren; horien artean, 10 de Agosto ekuatortarren elkartea. Gidan agertzen zen helbidera jo nuen... eta halako elkarterik ez zegoen.

- **ADEREC (Cintruénigo).** Webeko posta-erreferentziek ez zuten erantzuten, eta kiroletako teknikariak emandako telefonoak ere ez; horrenbestez, berriz ere hots egin nion eta adierazi zidan elkarteko norbaitekin hitz egitea bidera ziezadakeen pertsona. Josefina zen, Gurutze Gorriko boluntario bat, immigrazioko gaietan diharduena eta, hark adierazi bezala, herrian duela zenbait urte bizi dena (55-60 urte izanen ditu); teknikariak, haren esanetan, kanpoan bizi dira, eta ez dituzte ikusten asteburuan gertatzen direnak; soilik bulegoan sartzen zaiena ikusten dute. Elkarrizketa telefono bidez egin nion.

1. **Sexua** Giz. 1 ☐ Emak. 2 ☐

2. **Adina _______**

3. **Non jaio zara?**

| | | |
|---|---|---|
| Espainia | | 1 |
| Atzerria | Non | 2 |
| Eta duela zenbat urte bizi zara Espainian | | |

4. **Eta duela zenbat urte bizi zara Espainian?**

| | Her. |
|---|---|
| Aita | |
| Ama | |

5. **Zenbat anai-arreba zarete?**

| |
|---|
| |

6. **Zein toki betetzen duzu?**

| |
|---|
| |

7. **Zein da zure erlijioa**

| | | |
|---|---|---|
| Kristaua | | 1 |
| Ortodoxpa | | 2 |
| Musulmana | | 3 |
| Batere ez | | 4 |
| Best., Zein? | | |

8. **Norekin bizi zara?**

| | |
|---|---|
| Nire gurasoekin | 1 |
| Guraso bakarrarekin (aita/ama) | 2 |
| Beste senide batzuekin | 3 |
| Gurasoekin eta beste senide batzuekin | 4 |
| Guraso bakarrarekin (aita/ama) eta beste senide batzuekin | 5 |

9. **Nola tratatzen zaitutze zeure familian?**

| | |
|---|---|
| Oso ongi | 1 |
| Ongi | 2 |
| Gaizki | 3 |
| Oso gaizki | 4 |

10. **Zein nazionalitatekotzat jotzen duzu zeure burua?**

| | | |
|---|---|---|
| Espainiarra | | 1 |
| Ekuatortarra | | 2 |
| Perutarra | | 3 |
| Boliviarra | | 4 |
| Marokoarra | | 5 |
| Best. Zein? | | |

11. **Heldua zarenean, non gustatuko litzaizuke bizitzea?**

| | | |
|---|---|---|
| Espainian | | 1 |
| Gurasoen herrialdean | | 2 |
| Beste inon. Non? | | |

***Ikastetxeari buruz***

12. **Zer da gehien atsegin zaizuna ikasten iharduzun ikastetxetik?**

**Erantzun bakarra**

| | |
|---|---|
| Irakasleak | 1 |
| Ikaskideak | 2 |
| Giroa, oro har | 3 |
| Instalazioak | 4 |
| Etxetik hurbil egotea | 5 |
| Besterik. Zein? | 6 |

13. **Ikastetxean honako lagun-taldeekin izaten dituzu harremanak?**

| | |
|---|---|
| Gehienak nafarrak | 1 |
| Gehienak nire herrialdekoak | 2 |
| Gehienak veste herrialde batzuetakoak | 3 |
| Nahastua daude | 4 |

14. **Ikastetxetik kanpo honakoekin izaten dituzu harremanak**

| | |
|---|---|
| Gehienak nafarrak | 1 |
| Gehienak nire herrialdekoak | 2 |
| Gehienak beste herrialde batzuetakoak | 3 |
| Nafarrak eta atzerritarrak | 4 |
| Inorekin ez | 5 |

**15. Nola sentitzen zara ikasten diharduzun ikastetxean?**

| | |
|---|---|
| Oso ongi | 1 |
| Normal, ongi | 2 |
| Batzuetan, gaizki pasatzen dut | 3 |
| Oso gaizki, ez zait gustatzen | 4 |

**16. Ikastetxera etortzeran beldurra sentitu al duzu?**

| | |
|---|---|
| Sekula ez (P. 19ra pasatzen da) | 1 |
| Behin edo behin | 2 |
| Maiz, hiruzpalau aldiz baino gehiako azken asteetan | 3 |
| Ia egunero | 4 |

**17. Noren beldur zara?**

| | |
|---|---|
| Irakasleren batengatik | 1 |
| Ikaskideren batengatik | 2 |
| Ikaskide batzuengatik | 3 |
| Ikastetxetik kanpodauden pertsonengatik | 4 |
| Best. Zein? | |

**18. Zer dela eta beldur hori?**

| | |
|---|---|
| Beste herrialde batekoa izateagatik | 1 |
| Hitz egiteko moduarengatik | 2 |
| Beste erlijio batekoa izateagatik | 3 |
| Nire larruaren kolorearengatik | 4 |
| Janzkerarengatik | 5 |

**19. Nolako harremana daukazun ikasten diharduzun ikastetxeko ikaskideekin?**

| | |
|---|---|
| Harreman oso ona daukat, adiskide min asko ditut | 1 |
| Askorekin dut harreman ona, bereziki nire herrialdekoekin | 2 |
| Harreman ona daukat gurasoen hizkuntzaz hitz egiten dutenekin | 3 |
| Harreman ona dut bizpahiru lagunekin | 4 |
| Ia lagunik batere ez dut | 5 |

**20. Ba al dago pandillarik ikasten diharduzun ikastetxean?**

| | |
|---|---|
| Bai | 1 |
| Ez (P. 22ra pasatzen da) | 2 |

**21. Horietako baten kide al zara?**

| | |
|---|---|
| Bai | 1 |
| Ez | 2 |

**Ohikoa da nazionalitate edo arraza desberdinetako ikasleen artean liskarrak egotea**

| | |
|---|---|
| Askotan | 1 |
| Batzuetan | 2 |
| Gutxitan | 3 |
| Inoiz ez | 4 |

**22. Taldeen arteko liskarrek zure ikasketetan eragina dute**

| | |
|---|---|
| Beti | 1 |
| Batzuetan | 2 |
| Gutxitan | 3 |
| Inoiz ez | 4 |

**23. Oro har, irakasleek nola tratatzen zaituzte?**

| | |
|---|---|
| Oso ongi | 1 |
| Ongi | 2 |
| Gaizki | 3 |
| Oso gaizki | 4 |

**24. Ikasketak amaitzen dituzunean zer egitea pentsatu duzu?**

| | |
|---|---|
| Lan egin | 1 |
| Unibertsitatera joan | 2 |
| Prestakuntza ikastaroak | 3 |
| Beste herrialde batetara joan | 4 |
| Ezer ez / oraindik ez dakit | 5 |

25. **Zure ustez, ikasteko eta lan egiteko nolako aukerak izanen dituzte Espainian jaio ez direnek, Espainian jaio direnekin alderatuta ?**

| | |
|---|---|
| Askok hobeak | 1 |
| Hobeak | 2 |
| Okerragoak | 3 |
| Askok okerragoak | 4 |
| Berdinak | 5 |

26. **Zergatik?**

27. **Zure ustez, Zein dira bizitzako hiru gauza garrantzitsuenak?**

| | 1ª | 2ª | 3ª |
|---|---|---|---|
| Familia | 1 | 1 | 1 |
| Lagunak | 2 | 2 | 2 |
| Erlijioa | 3 | 3 | 3 |
| Lana | 4 | 4 | 4 |
| Ikasketak | 5 | 5 | 5 |
| Dirua | 6 | 6 | 6 |
| Maitasuna, bikotekideaa | 7 | 7 | 7 |
| Besterik, zein? | 8 | 8 | 8 |

## GIRO OROKORRA

28. **Ikasturtea hasi zenetik gainerako ikasleek isolaturik edo errefusaturik sentitu zara ikasturtea hasi zenetik ?**

| | |
|---|---|
| Bai | 1 |
| Ez (33. galderara joan) | 2 |

29. **Nola zirikatzen zaitutze? Zer egiten dute?**
**Hiru erantzun eman ditzakezu**

| | |
|---|---|
| Iraintzen naute | 1 |
| Iseka egiten didate | 2 |
| Izengotiak jartzen dizkidate | 3 |
| Nire fisikoarekin sartzen dira | 4 |
| Nire gauzekin sartzen dira | 5 |
| Baztertzen naute | 6 |
| Nitaz gaizki esaka dabiltza | 7 |
| Ez didate parte hartzen uzten | 8 |
| Gauzen errua leporatzen didate | 9 |
| Mehatxatzen naute | 10 |
| Diruarekin, lanekin xantaia egiten didate | 11 |
| Nahi ez ditudan gauzak egitera behartzen naute | 12 |
| Imitatzen naute | 13 |

30. **Zergatik uste duzu zirikatzen zaituztela? Hautatu garrantzitsuena**

| | |
|---|---|
| Beste sexu batekoa zarelako | 1 |
| Beste adin batekoa zarelako | 2 |
| Horrela indartsuagoak sentitzen direlako | 2 |
| Beste herrialde batekoa zarelako | 3 |
| Beste kolore, arraza edo erlijio batekoa zarelako | 4 |
| Aparteko ezerengatik | 5 |

31. **Norbaitek esku hartzen al du hori gertatzen zaizunean? Erantzun bakarra eman.**

| | |
|---|---|
| Bai, lagunen batek | 1 |
| Bai, neska edo mutil batzuek | 2 |
| Bai, anai-arrebaren batek | 3 |
| Bai, irakasleren batek | 4 |
| Bai, gurasoren batek | 5 |
| Bai, helduren batek | 6 |
| Ez du inork esku hartzen | 7 |

32. **Eta zuk, ikaskideren bat zirikatzen duzu edo gaizki tratatzen duzu?**

| | |
|---|---|
| Sekula ez dut inor zirikatzen | 1 |
| Noizean behin | 2 |
| 4 aldiz baino gehiago ikasturtea hasi zenetik | 3 |
| Ia egunero | 4 |

**33. Talderen batekin elkartu al zara norbait zirikatzeko?**

| | |
|---|---|
| Ez naiz inorekin sartu | 1 |
| Behin edo bitan | 2 |
| Batzuetan | 3 |
| Ia egunero | 4 |

**34. Zer egiten duzu aisialdian eta aisian?**

| | Egunero | Batzuetan | Noizean behin |
|---|---|---|---|
| Etxean laguntzen dut | 1 | 2 | 3 |
| Anai-arrebak zaintzen ditut | 1 | 2 | 3 |
| Liburuak eta aldizkariak irakurtzen ditut | 1 | 2 | 3 |
| Telebista ikusten dut | 1 | 2 | 3 |
| Musika entzuten dut | 1 | 2 | 3 |
| Interneta, txata | 1 | 2 | 3 |
| Etxerako lanak | 1 | 2 | 3 |
| Eskolaz kanpoko jarduerak | 1 | 2 | 3 |
| Lagunekin kalean egon | 1 | 2 | 3 |
| Besterik, zein? | 1 | 2 | 3 |

**35. Zer egiten duzu asteburuan?**

| | Beti | Ia beti | Batzuetan | Inoiz ez |
|---|---|---|---|---|
| Familiarekin ateratzen naiz | 1 | 2 | 3 | 4 |
| Familiako norbait zaintzen dut | 1 | 2 | 3 | 4 |
| Etxeko lanak | 1 | 2 | 3 | 4 |
| Etxean lagunekin | 1 | 2 | 3 | 4 |
| Jolas-aretoa | 1 | 2 | 3 | 4 |
| Kalean, parkean egon | 1 | 2 | 3 | 4 |
| Diskotekak | 1 | 2 | 3 | 4 |
| Tabernak | 1 | 2 | 3 | 4 |
| Aparteko lana | 1 | 2 | 3 | 4 |

**36. Kirolen bat egiten duzu?**

| | | |
|---|---|---|
| Ez | 1 | Amaiera |
| Bai | 2 | (P. 38ra pasatzen da) |

**37. Astean zenbat ordu**

| |
|---|
| |

**38. Norekin egiten duzu kirola?**

| | |
|---|---|
| Nire nazionalitate bera duten lagunekin | 1 |
| Ia gehienek nire nazionalitate bera daukate | 2 |
| Gutxik dute nire nazionalitate bera | 3 |
| Beste nazionalitate bat dute nacionalidad | 4 |

**HEMEN EZ IDATZI EZER**

**Inkesta zk.:** _ _ _ _ _ _ _ _ _ _ _ _ _ _ _ _ _ _

**Data:** _ _ _ _ _ _ _ _ _ _ _ _ _ _ _ _ _ _ _ _ _ _

**Ikastetxea:** _ _ _ _ _ _ _ _ _ _ _ _ _ _ _ _ _ _

**Inkesta-egilea:** _ _ _ _ _ _ _ _ _ _ _ _ _ _ _ _ _

**Udalerria** **edo herria**

**Ikastetxea:** Público 1 ☐ Itundua 2 ☐

**Irakaskuntza eredua:** G1 ☐ A2 ☐ D3 ☐

**Ikasmaila** ___________